ARGIA

Aktualitatearen gakoak

2020ko abuztua · 5€

PANDEMIARI URGENTZIAZKO BEGIRADA

Bestelako konfinamendu baterako proposamenak

26 **Ekonomia uzkurtuko da, planetak ez du negoziatzen**
Antonio Aretxabala

54 **2040: Pandemiaren oroitzapenak**
Komikia

76 **Nolako eskoletara itzuli nahi genuke?**
Hezkuntza

ARGIA

Sasoi trumoitsu hauetan
inor ez dadila
ARGIArik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU

ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

Aktualitatearen
gakoak
2020ko abuztua

Zentzugabekeriaren aurrean, informazio burujabetza

Azken hamarkadetako abuzturik arraroenean iritsi zaizu *Aktualitatearen Gakoak* berri hau eskuetara. COVID-19aren pandemiak Euskal Herria ere gogor jo du 2020an: gogoan ditugu gaitz horren erruz joan zaizkigun pertsonak, baita eragin duen egoeraren gainontzeko ondorioak sufritzen ari diren guztiak ere. Begiz ikusi ezin dugun koronabirusarekin hasi zen krisiak are agerikoago bihurtu du egunero begi-bistan daukaguna: sistema kapitalistak ez dauzkala gure bizitzak bere lehentasunen artean eta eskala globala duen osasun larrialdi baten erdian ere, gutxi batzuen irabaziak lehenesten jarraitzen duela, milaka lagunen heriotzaren kontura.

ARGIAn ere sumatu dugu izurritea, baina beste printzipio batzuekin egin diogu aurre. Paperezko aldizkaria argitaratzeari utzi genion, astekariaren produkzio-katean parte hartzen duten langile guztien osasun -baldintzak ziurtatu arte. Eta gure komunitateko kideei euskarri guztietan gure kazetaritza jasotzen jarraitzea bermatu diegu, egoera berriaren erruz estutasun ekonomikoak jasaten ari direnek inoiz baino beharrezkoagoa dutelako informazio gaurkotu eta kritikoa eskura izatea.

Gure lan egiteko modua ere goitik behera baldintzatuta geratu da hainbat astez, gainontzeko herritar guztiek bezala konfinatuta informatu behar izan dugulako eta horrek muga askorekin lan egitera behartu gaitu. Ez dizugu gezurrik esango: kaletik erauzi gaituztela sentitu dugu hainbat momentutan. Horregatik atera gara lehen baino are gogo handiagoarekin berriz etxetik, hemengo eta munduko herritarren aldarri, dantza eta suen bila.

Batzuen ustez larrialdi global honetatik zerbait ikasiko dugu. Beste batzuen ustez, lehen baino are okerrago aterako gara. ARGIA egiten dugunok ez dugu edalontzia erdi beteta edo erdi hutsik ote dagoen eztabaidatzera mugatu nahi. Guk bete nahi dugu edalontzia: herritarrak izan daitezela aktore nagusiak krisi sistemiko honek eskatzen dituen lehentasun berriak zehazten direnean, eta ez elite ekonomikoak, hauek bultzatu baitute desastre honetara ekarri gaituen logika ekonomiko, politiko, sozial eta kulturala.

Ahalegin handiak egingo dituzte hemendik aurrera ere, bidea gorpuz beterik uzten ari den zentzugabekeriak aurrera jarrai dezan. Eta ahalegin horien artean, ez dira gutxi izango informazioaren mundura bideratuak. Hedabideen sektorea negozio-eredu aldaketan murgilduta dago eta, desagertzea saihesteko, medio asko kapital handien eskuetan erortzen ari dira. Korporazioen atzaparretatik ihes egiten duten hedabideak geroz eta gutxiago dira; eta are urriagoak dira ARGIA bezala langileen eskuetan daudenak.

Geure buruaren jabe izateak ematen digun askatasunaren fruitua da abuztu honetan kaleratu dugun argitalpen hau ere. Espero dugu interesgarriak iruditko zaizkizun kontuak jaso izana. Hala balitz, zure arreta deitu duten edukiak ingurukoen artean zabaltzea ere eskertuko genizuke, zenbat eta jende gehiagok informazio burujabea jaso, orduan eta prestatuago egongo baikara aurrerantzean izango ditugun erronkei aurre egiteko.

ARGIA

gakoak

Sakonean

16 / **Koronabirusa eta transgenikoak**
Eta COVID-19 OGM bat baldin bada?
Pello Zubiria Kamino

32 / **Shockean adi**
Eta hurrengo konfinamenduan, zer?
Zigor Oleaga

42 / **Emakume langileak osasun krisian**
Lehen lerroan bai, aitortza errealik ez
Onintza Irureta Azkune

Elkarrizketak

8 / **David Graeber**
“Balioa aitortu behar diegu soilik gizakiek egitea nahi dugun lan horiei”
Chris Brooks / Roar Magazine

26 / **Antonio Aretxabala**
“Egun autoa duten 500 pertsonatik bakarrak izango du etorkizunean”
Xabier Letona

Oroimenerako ibilbideak

92-96 / **Iraganera bost bidaia Euskal Herritik atera gabe**
Urko Apaolaza Ávila

48 / **Elikadura burujabetza Euskal Herrian**
Nekazariez gain, erronka instituzio eta herritarren esku ere badago
Jenofa Berhokoirigoin

58 / **Familiak alarma-egoeraren ostean**
Pandemiari biziraun eta gero, lanetan itotzear
Amaia Lekunberri Ansola

68 / **Migrazioa**
Sistematik kanpo utzi dituztenen aldarria
Mikel Garcia Idiakez

76 / **Hezkuntza**
Nolako eskola behar du gaurko munduak?
Estitxu Eizagirre Kerejeta

84 / **Literatura COVID-19 garaietan**
Bada etorkizunik narrazio apokaliptikoetatik harago
Gorka Bereziartua Mitxelena

Komikia

54 / **2040: Pandemiaren oroitzapenak**
Paula Estévez

Kultur gomendioak

98-101 / **Uda honetarako liburuak, filmak eta telesailak**
ARGIA lantaldea

AKTUALITATEAREN GAKOAK 2020

KOORDINATZAILEAK: ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA, LANDER ARBELAITZ MITXELENA ETA GORKA BEREZIARTUA MITXELENA
INPRIMAKETA: ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA **AZALA:** JOSEBA LARRATXE *JOSEVISKY*
KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L., 2020 **ISBN:** 978-84-617-7936-9 **LEGE GORDAILUA:** SS-679-1984

DOAN ETA LIBRE: ARGIAREN EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO. GURE HELBURUA LANTZEN DITUGUN EDUKIAK AHALIK ETA GEHIEN ZABALTZEA DA.

ARGIA **Komunikazio Biziagoa S.A.L.** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabilioia 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa, Euskal Herria)

AZALEKO ILUSTRAZIOA: JOSEBA LARRATXE *JOSEVISKY*

Koronabirusa eta transgenikoak 16

26 *Antonio Aretxabala*

JOSEBA ZABALZA

42 *Emakume langileak osasun krisian*

DANI BLANCO

Komikia 54

PAULA ESTÉVEZ

68 *Migrazioa*

DANI BLANCO

Betiko konfinatuak

10.000. Euskal Herriko zoo eta akuarioetan giltzapean bizi diren animalien kopurua, NOR talde antiespezistak egin duen ikerketaren arabera. Haien habitatetatik lapurtu, familietatik aldendu, bizitza osoa kaiola edo espazio mugatuetan bizitzera derrigortutako milaka animalia. Uda garaiotan "gure" gozamenerako eta beste batzuen negoziorako.

NOR TALDEA AXIER LOPEZ

“Balioa aitortu behar diegu soilik gizakiek egitea nahi dugun lan horiei”

DAVID GRAEBER

Zure lanak ez du zentzurik? Zure lanpostua ezabatuta ere denak berdin jarraituko lukeela, edo agian, gizartea pixka bat hobea litzatekela uste duzu? Baietz badiozu, lasai, ez zaude bakarrik. David Graeberrek dio herritarrek egunerokoan egiten dituzten lanen erdiek ez duela zentzurik. Londresko Ekonomia Eskolako antropologia irakaslea da eta *Bullshit Jobs: A Theory* liburuaren egilea (Pitorik balio ez duten lanak: teoria bat).

CHRIS BROOKS / ROAR MAGAZINE ITZULPENA | **LANDER ARBELAITZ**

***Bullshit jobs* eta *shit jobs* kontzeptuen arteko ezberdintasuna egiten duzu liburuan [euskaraz *pitorik balio ez duten lanak* eta *kaka lanak* deituko diegu]. Azalduko diguzu?**

Nahiko sinplea da: kaka lanak lan txarrak dira, egin nahi ez zenituzkeenak. Gaizki ordainduak, langileak duintasunik eta errespeturik gabe tratatzen dituztenak, txikituta uzten zaituztenak... Gehienetan, lan hauek ez dira beharrarekin ikuspegitik begiratuta zentzurik ez duten kakak. Egin behar diren lanak dira normalean: pertsonak batetik bestera eramatea, gauzak eraikitzea, jendea zaintzea, jendea garbitzea... Kontrara, pitorik balio ez duten lanak ongi ordaindutako lanak dira askotan, onura pertsonalak ekartzen dituzte eta norbait garrantzitsua bazina bezala tratatzen zaitu jendeak, egin beharra dagoen zerbait egiten ariko bazina bezala; zuk benetan badakizu, ordea, hori ez dela horrela. Normalki kontrakoa da.

Pitorik balio ez duten zenbat lan ezaba daitezkeela uste duzu eta zer nolako eragina izango luke horrek gizartean?

Ia denak ezabat daitezke, hori da kontua. Pitorik balio ez duten lan deitzen diegun horietan ari diren pertsonek sekretuan badakite lanpostu hori desagertuz gero –eta batzuetan industria osoa desagertuta ere–, ez litzatekeela aldaketa handirik gertatuko. Are gehiago esango dut, telemarketingean ari direnei, lobbystei

DAVID GRAEBER

Anarkista eta Londresko Ekonomia Eskolan Antropologia irakaslea da, mundu mailan ezaguna. New Yorkeko Occupy Wall Street mugimenduaren hasierako parte hartzaileetako bat izan zen, eta berari egozten zaio *%99a gara* slogana asmatu izana. Liburu ugari idatzi du, besteren artean, sari dezente irabazi dituzten *Debt: The First 5,000 Years* (Zorra: Lehen 5.000 urteak) eta berriki atera duen *Bullshit Jobs: A Theory* (Pitorik balio ez duten lanak: teoria bat).

STEVEN MAY

HIZKUNTZA
berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako soluzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara… eta gainera euskaraz.

"Funtsezkoa ikusezina da begientzat"
Antoine de Saint-Exupery

orkli

edo korporazioen abokatu kabineteei begiratzen badiegu, mundua leku hobea litzateke lanpostu horiek existitituko ez balira. Horrez gain, pentsa zenbat jende ari den egitazko lana egiten pitorik balio ez dutenak bermatzeko, izan beren bulegoak garbitzen, segurtasun lanak egiten, probetxuzko ezer egiten ez duten horiek beste gizakiei eragiten dieten min psikologiko eta soziala zaintzen... Ziur nago egiten ari garen lanen erdia erraz ezaba dezakegula eta horrek ondorio positiboak izango lituzkeela edozertan, artearen eta kulturaren mundutik hasi eta klima aldaketaraino.

Produktibitatearen eta soldataren arteko dibortzioarekin lotzen duzu pitorik balio ez duten lanen ugaritzea. Nola garatu da prozesu hau azken hamarkadetan?

Ez dakit oso berria den fenomenoa. Kontua ez da produktibitatea aztertzea, zentzu ekonomikoan, gizarteari egiten zaion onura baizik. Norbait garbiketa lanak egiten ari bada, edo erizain, edo sukaldari edo autobusa gidatzen, badakigu zehatz-mehatz zertan ari den eta zergatik den garrantzitsua hori egitea. Enpresa bateko marka arduradun edo finantza aholkularien kasuan, hori ez dago hain garbi. Lan baten erabilgarritasunaren eta bere konpentsazioaren artean, beti egon da harreman inbertso xamarra. Denok ezagutzen ditugun salbuespenak kenduta –medikuak edo pilotuak adibidez–, normalean horrela da.

Joera aldaketa baino, zentzurik ez duten eta erlatiboki ongi ordaindutako lanen kopurua izugarri ugaritu da. Zerbitzuen sektorea hazi dela esaten dugu modu tranpatian, baina zerbitzuen sektoreko lanpostu gehienak erabilgarriak eta gaizki ordainduak dira –zerbitzariez, Uberreko gidariez, bizarginez eta antzekoez ari naiz– eta beren kopuruak ez dira asko aldatu oro har. Benetan hazi dena manager, administratibo eta bulegarien kopurua da, azken mendean hirukoiztu egin dira hauek beste langileekin konparatuta. Hortik dator pitorik balio ez duten lanpostuen zentzugabekeria.



Kim Moodyk dio produktibitatea geroz eta handiagoa eta soldata geroz eta baxuagoak izatea, gestio tekniken zorroztearekin dagoela lotua, *just-in-time* produkzioarekin eta langileak kontrolatzeko teknologiarekin; ez hainbeste automazizazioarekin. Hori hala bada, gurpil-zoroan harrapatuta gaude, langileei aginduak emateko eta kontrolatzeko pitorik balio ez duten geroz eta lanpostu gehiago sortuz, eta aldi berean, lanpostu hauek geroz eta txarragoak eginez.

Hori horrela da Amazon, UPS edo Wallmart gisako enpresetan. Argudiatu liteke langileek azkarrago lan egitea eragiten duten gainbegiratze lanpostuak ez direla benetan pitorik balio ez dutenak, zerbait zehatza egiten ari direlako, nahiz eta ez izan oso atsegina. Fabrikazio robotek biderkatu egin dute produkzioa sektore gehienetan eta langileen kopurua txikitu dute. Hala ere, geratu diren apurrei hobeto ordaintzen zaie beste sektore gehienetan ari direnei baino.

Hala ere, sektore horietan guztietan joera bat nagusitzen ari da: alferrikako manager maila ugari sortzea nagusiaren –edo dirua kudeatzen dutenen– eta langileen artean. Neurri handi batean, manager berri hauen "gainbegiratze" lanak ez du ezer ere azeleratzen, mantsotu baizik. Hau nabarmen ikusten da zaintza sektorera hurbildu ahala: hezkuntza, osasuna edo zerbitzu sozialak, batzuk aipatzearren. Zentzurik ez duten lan administratibo berriak sortzeak dakar egiazko lanak hondatzea –erizainak, medikuak edo irakasleak behartuz egunero ez-dakit-zenbat formulario betetzera– produktibitatea mantsotzen ari dira.

Estadistikek erakusten dute: industrian produktibitatea izugarri hazten ari da, eta horrekin batera diru-irabaziak ere bai; baina osasunaren edo hezkuntzaren esparruan produktibitatea jaisten ari da, prezioak igotzen dituzte eta diru-irabaziak mantentzeko soldatak jaisten dizkiete langileei. Horra zergatik dauden greban munduko hainbeste lekutan irakasle, erizain eta medikuak.

IBARRAKO UDALA
Ibarran euskaraz bizi nahi dugu. Eta zuk?
San Bartolome plaza 2
20400 IBARRA
Euskara Zerbitzua: 943 67 38 27
euskara@ibarra.eus
www.ibarra.eus
• Administrazioa 943 67 11 38
• Euskara Zerbitzua 943 67 38 27
• Txontxo Ludoteka 943 67 51 72
• Kukumiku Haur Eskola 943 67 02 84
• Kiroldegia (Tel/Faxa) 943 67 15 44
• Kultur Etxea 943 67 03 99
• Gizarte Zerbitzua 943 67 04 15

Korporazio modernoen egiturek antz handiagoa dute feudalismoarekin, merkatu kapitalismo ideal hipotetiko batekin baino, zuk diozunez. Zer esan nahi duzu argumentu horrekin?
Unibertsitatean nengoenean irakatsi zidaten kapitalismoak esan nahi duela badaudela kapitalistak, baliabide produktiboen jabe direnak, adibidez fabrikak, eta pertsonak kontratatzen dituztela gauzak egin eta saltzeko. Langileei ezin diete ordaindu beraiek diru irabazirik gabe geratzeko bezainbeste, baina ordaindu behar diete gutxienez fabrikak produzitzen duen hori erosi ahal izateko adina. Feudalismoan, ordea, diru-irabaziak zuzenean hartzen dituzte, errentak, tarifak eta kuotak kobratuz, morroi zordun bilakatuz pertsonak, edo bestela, hauek beherantz zapalduz.

Gaur egun korporazioen diru irabazi nagusiak ez datoz gauzak egin edo saltzetik, baizik eta "finantzetatik". Beste pertsonen zorrei erreferentzia egiteko eufemismoa da hori: kobratu errentak eta kuotak eta interesak eta ordain-sariak. Feudalismoa da definizio klasikoan, "erauzte juro-politiko zuzena", beraiek batzuetan dioten bezala. Honek esan nahi du gobernuaren rola ere oso ezberdina dela: kapitalismo klasikoan jabetza babesten du eta agian lan indarra zelatatuko du hau eskuratzea ez dela asko zailtzen bermatzeko. Kapitalismo finantzarioan ordea, diru-irabaziak sistema legalaren bidez erauzten dituztenez, erabat funtsezkoak zaizkie araudi eta erregulazioak, eta egoera honetan gobernuak beraiek babestea behar dute, zorpetutako jendea astintzen duten bitartean.

Merkatua itsu-itsuan defendatzen dutenak oker daude beraz, aldarrikatzen dutenean ezinezkoa dela kapitalismoak pitorik balio ez duten lanpostuak sortzea.
Bai, hain zuzen ere. Kuriosoa da, liberalek eta marxistek puntu honetan egiten didatelako eraso, eta hori da biak 1860ko hamarkadan existitu zen kapitalismoaren kontzeptzioarekin ari direlako funtzionatzen: konpetentzia diren enpresa txiki asko gauzak fabrikatuz eta salduz. Bai, hori horrela da, adibidez, jabea bera lanean ari den jatetxeaz ari bagara, eta ados nago, jatetxe horrek ez du inor kontratatuko ez badu behar.

"Pitorik balio ez duten lanak ongi ordaindutakoak dira askotan, onura pertsonalak ekartzen dituzte eta norbait garrantzitsua bazina bezala tratatzen zaitu jendeak"

Baina gaur egungo ekonomian jaun eta jabe diren enpresa handiek bestelako logikarekin funtzionatzen dute. Diru-irabaziak lortzen badira tarifa eta errenta bidez, zorrak sortuz eta hauek ordainaraziz, estatua erabat inplikatua badago diru-irabazia erauztean: disolbatu egiten da esfera ekonomikoaren eta politikoaren arteko ezberdintasuna. Enpresa hauentzat diru-estrakzio eskemarako leialtasun politikoa erostea, bere horretan, ondasun ekonomikoa da.

Pitorik balio ez duten lanpostuen sorrerak sustrai politikoak ere baditu. Barack Obama AEBetako presidente ohiaren aipu deigarri bat darabilzu liburuan. Hitz egin dezakezu horretaz eta lanpostu mota horiei ematen dien babes politikoaz?
Iradoki nuenean pitorik balio ez duten lanpostuek denboran irauteko arrazoietako bat dela jende boteretsu askori politikoki komenigarri zaizkiola, nola ez, konspirazio teorien paranoikoa nintzela egotzi zidan askok. Nahiz eta idazten ari nintzena, nik uste, gehiago dela konspirazio teorien aurkako zerbait: zergatik ez duen jende boteretsuak elkar hartzen eta egoera konpontzeko zerbait egiten.

Obamarena kea zerion pistola bezala sentitu nuen, funtsean hau esan zuen: "Beno, denek diote ordaintzaile bakarreko osasun-sistemarekin [osasun sistema unibertsal mota bat] arreta medikua askoz ere eraginkorragoa litzatekela, bai, agian hala litzateke, baina pentsatu milioika pertsona dauzkagula osasun enpresa pribatuetan, erredundantzia eta inefikazia horri esker. Zer egingo genuke langile guzti horiekin?". Horrekin aitortu zuen merkatu librea ez dela hain eraginkorra, osasunaren esparruan behintzat, eta pitorik balio ez duten lanpostuak bere horretan mantentzen zituelako nahiago zuen.

Politikariek ez dute sekula horrela hitz egiten eskulangileei buruz: hor dago beti merkatuaren legea lanpostuak desagerrarazteko eta soldatak jaisteko, eta sufritzen badute, ezin duzula ezer egin esango dizute. Adibidez, Obamak ez zirudien hain kezkatua automobilgintzako langileengatik, industria erreskatatu ostean asko kaleratu zituztenean edo soldataren parte handia sakrifikatu behar izan zutenean. Lanpostu batzuek beste batzuek baino gehiago axola dutela argi dago.

DURANGOKO
EUSKARA ZERBITZUA
Barrenkalea, 17
48200 DURANGO
Tel.: 94 603 00 16
euskera@durango.eus
www.durango-euskaraz.eus

Obamaren kasu honetan, nahiko garbi dago zergatia: Tom Frankek orain gutxi esan bezala, Alderdi Demokratak 80ko hamarkadan estrategikoki erabaki zuen langile klasea abandonatzea bere oinarri gisa ulertuta, eta kudeatzailen profesionalen klaseak hartu zituzten horren ordez. Baina, noski, hor pilatzen dira pitorik balio ez duten lanpostu gehienak.

Ez da soilik Alderdi Demokrata mota honetako lanpostuak bultzatzen ari dena, sindikatuak ere ari direla diozu. Azalduko diguzu nola sostengatzen eta bultzatzen dituzten sindikatuek lanpostu hauek eta zer ondorio duen horrek ekintzaile sindikalentzat?

Lanpostuak diruz laguntzeaz hitz egiten zuten, beharrezko ez ziren langileak hartzeko insistitzen zuten, eta noski, edozein burokraziak pitorik balio ez duten lanpostuak pilatzeko joera du beti. Baina aipatzen nuena zen edozein arazo sozial konpontzeko etengabe "lanpostu gehiago" aldarrikatzen dutela sindikatuek.

Inor aurka ez dagoen aldarrikapen apurretakoa da hori, ez baitzara ari opari bat eskatzen, bizirauteko behar duzuna irabazi ahal izatea baizik. Martin Luther Kingen Washingtonera Martxa famatua ere "Lanpostuak eta askatasuna" gisa bataiatu zuten, sindikatuen babesa baduzu, lanpostuen eskaerak beti hor egon behar duelako. Eta paradoxikoki, jendea modu independentean ari bada lanean, autonomo gisa, edota kooperatibetan, ez da sindikatzen, ezta? Aipatzen ari garen arrazoi honexegatik, sindikatuak arazoaren parte gisa ikusten dituen korronte erradikal bat existitzen da 60ko hamarkadaz geroztik. Hala ere, gaiaz modu zabalagoan pentsatu behar dugu: behinola lan gutxiagoren alde, ordu gutxiagoren alde kanpaina egiten zuten sindikatuak nola iritsi diren onartzera kontsumo kapitalismoaren oinarri den puritanismoaren eta hedonismoaren arteko aldaketa arraroa. Azken batean, lanak "gogorra" behar duela (pertsona ona "pertsona langilea" dela alegia) eta lanaren helburuak oparotasun materiala behar duela, sufritu egin behar dugula gure kontsumo eskubidea irabazteko.

"Langile klaseak beti izan dira zaintza-klaseak, aberatsek baino enpatia handiagoa dutelako"

Langile klasearen lan kontzeptu tradizionala okerra dela uste duzu. Zehazki, diozu, langile klasearen lanpostuek antz handiagoa izan dutela emakumeei lotu izan zaizkien lanekin, gizonezkoei lotutako fabriketakoekin baino. Honek esan nahi du garraiobideetan lanean ari diren langileek gehiago dutela komunean irakasleen zaintza lanarekin, igeltseroekin baino. Zein harreman du honek pitorik balio ez duten lanekin?

"Produkzioa" eta "produktibitatea" bezalako ideiekin obsesionatuta bizi gara (eta aldi berean, "hazi" egin behar du denak, oro da "hazkundea"). Uste dut oinarrian teologikoa dela kontua. Jainkoak unibertsoa sortu zuen. Jainkoa imitatzera, beren janaria edo jantziak eta abar sortzera kondenatuta dago gizakia. Beraz, lana zerbait produktiboa bezala pentsatzen dugu batez ere, gauzak egitea: sektore bakoitza bere "produktibitatearen" bidez definitzen da. Errealitatea bestelakoa da ordea, hausnarketak erakutsi behar liguke lan gehiena ez dela gauzak egitea, garbitzea edo distira ateratzea dela, begiratzea eta joerak ulertzea, laguntzea, elikatzea, konpontzea eta gauzak zaintzea bestela. Edalontzi bat egingo duzu behin. Mila aldiz garbituko duzu ondoren. Horretan aritu da langile klasea gehienbat, beti izan dira fabriketako langileak baino gehiago haurtzainak, zapata-garbiltzaileak, lorezainak, tximinia garbitzaileak, sexu langileak eta zabor-biltzaileak eta neskameak eta abar.

Eta bai, garraiobideetan ari diren langileak ere, ticket makinak automatizatuta zereginik ez dutela dirudien arren, hor daude umeren bat galtzen bada, norbait gaixotzen bada, edo jendea molestatzen ari den mozkorren bat uxatu behar bada... Arazoa da publiko orokorraren pentsamendua baldintzatu digutela, burges txikiek bezala pentsatzen dugula, eta ezin dela onartu pertsona batzuk leku batean egun osoan kartetan jolasten aritzea, noizbait arazoren bat gertatzen denerako zain, eta beraz, denbora guztian lanean ari diren itxura egin behar dutela. Hala ere, "produktibitatearen" inguruko balioen teorietatik kanpo utziko dugu azken kontu hau.

Ekonomialari feministek proposatzen duten bezala, alderantzizkoa egitea iradokitzen dut. Uler dezagun fabriketako lana ere zaintza lanaren luzapena dela, izan ere, zuk autoak egin edo autobideak asfaltatu nahi dituzu, soilik, axola zaizulako jendea doan lekura joan ahal izatea. Jendeak bere lanpostuaren "balio sozialaz" pentsatzean horrelako zerbait dago atzean, eta are gehiago, pitorik balio ez duten lanpostuek ez dute inolako balio sozialik.

Gure lanaren balioa nola pentsatzen dugun aztertzen hasi behar dugu, gauza hauek garrantzia hartuko dute automatizazioak zaintza lanak geroz eta garrantzitsuago bilakatu ahala. Ez soilik, lehen aipatu dudan gisan, paradoxikoki sektore horiei eraginkortasuna kentzen ari direlako, eta beraz, lehengo eraginkortasuna lortzeko geroz eta jende gehiagok egin behar duelako lan hor, ezta aipatutakoaren ondorioz gatazka-eremuak direlako ere; baizik eta eremu hauek ez ditugulako automatizatu nahi. Ez genuke robotik nahi mozkorrak lasaitzeko edo galduta dagoen ume bat kontsolatzeko. Soilik gizakiak egitea nahi dugun lan horiei balioa aitortzen hasi behar dugu.

Zertan eragiten die pitorik balio ez duten lanpostuei buruzko zure teoriak lan esparruko ekintzaileei? Zure arabera zaila da lanpostu hauen aurkako kanpaina batek nolakoa izan behar lukeen imajinatzea, baina ideia batzuk eman ditzakezu sindikatuei eta ekintzaileei laguntzeko arazoari adarretatik eusten?

Gustuko dut "zaintza klaseen iraultza" aipatzea. Langile klaseak beti izan dira zaintza klaseak, ez bakarrik beraiek egin dituztelako zaintza lan gehienak, baizik eta agian horren ondorioz, aberatsek baino enpatia handiagoa dutelako. Ikerketa psikologikoek hori erakutsi dute, bide batez esateko. Zenbat eta aberatsagoa izan, orduan eta gaitasun gutxiago izango duzu beste pertsonen sentimenduak ulertzeko. Beraz, lana birpentsatzea –ez bere horretan balio edo helburu gisa, baizik eta zaintzaren jarraipen material gisa– hasiera ona da.

Egia esan, proposatzen dut "produkzioa" eta "kontsumoa" ordezkatzea "zaintza" eta "askatasuna"-rekin. Norbait zaintzea, azken batean, beste pertsona bat mantentzera edo haztera, edo beste pertsona baten askatasuna area-

NATURA
ONDAREA
EUSKARA

LEITZAKO UDALA
Elbarren kalea, 1
948 510 009
www.leitza.eus
leitza@leitza.eus

© PETER MARSHALL

Londresko Ekonomia Unibertsitatean, David Graeber irakaslea kaleratu berri zuten Alba Pasimo garbitzailearen aldeko protesta zaratatsuan. United Voices of the World garbitzaileen sindikatuak egin zuen deialdia. Protesta campusean barrena eta eraikin nagusian ibili zen. Besteren artean ondorengoa eskatzen zuten: garbitzaleen sindikatzeko eskubidearen aitortza, Alba Pasimo garbitzalea berriro onar zezatela, lan karga egokiagoak eta orokorrean lan baldintza duinak, besteren artean, gaixotuz gero baja hartzeko eskubidea, pentsioa eta unibertsitatean zuzenean kontratatutako langileen baldintzak.

gotzera bideratutako ekintza da, amek beren haurrak zaintzen dituzten bezala, ez soilik osasuntsu hazten eta hezten direla bermatzeko, baizik eta berehalakoan, jolasteko aukera izan dezaten, horixe baita askatasunaren adierazpen gorena.

Horiek dena den, epe luzera egin beharreko kontuak dira. Orainaldiari dagokionez, pentsatu behar dugu nola egin aurre manager-profesionalen nagusitasunari, ez soilik dagoeneko existitzen diren ezkerreko erakundeetan –nahiz eta AEBetako Alderdi Demokrata bezalakoei ez dakidan ezkerreko deitu behar diegun–, pitorik balio ez duten lanei aurre egiteko modu eraginkorra aurkitzeko. Zeelanda Berriko erizainek greba egin dute eta arrazoi nagusietako bat horixe izan da: batetik, soldatak murriztu dizkietela, eta bestetik, denbora piloa igarotzen dutela formularioak eta dokumentuak betetzen, egoiliarrak zaintzen aritu beharrean. Beren denboraren erdia baino gehiago galtzen dute horretan zenbait erizainek.

“Gaur egun diru-irabaziak zuzenean hartzen dituzte, errentak, tarifak eta kuotak kobratuz, pertsonak morroi zordun bilakatuz”

Lotura dute bi arazoek, noski. Beren soldatak mantentzeko balio lezakeen dirua, alferrikako administrazio lanpostuak kontratatzeko erabiltzen dute, eta pertsona hauek beren lana justifikatu behar dutenez, oraindik eta lan txoro gehiago ematen diete. Askotan, administrari horiek zenbait alderdi edo sindikatuk ordezkatzen ditu. Nola egin gauza hauek borrokatzeko programa praktiko bat? Bereziki garrantzitsua den galdera estrategikoa da hau. ●

Irizar

Berrikuntza eta teknologia herritarraren ongizaterako

www.irizar.com

Eta COVID-19 OGM bat baldin bada?

Mundua astindu duen SARS-CoV-2 saguzarren birus baten mutazio natural bat ote da –gizakiak azken hamarkadetan munduko leku askotan ingurumenean eragindako transformazio larriei lotua ziurrenik, alde horretatik ere gizakiak probokatua– ala tartean zientzialariek sartu diote eskua transgenian darabiltzaten esperimentuekin? Hitz batez: koronabirus berri hau Genetikoki Eraldatutako Organismoa bat izan ote daiteke, kalean *OGM* deitzen dugun mutante bat?



PELLO ZUBIRIA KAMINO

Talaios Koop.

Teknologia eta ekonomia eraldatzaileetan bidelagun

talaios.coop

kontaktua@talaios.coop - 943 013 297 - 688 864 858

Ezin ukatua da COVID-19 pandemia osasun emergentziaz gain arma geopolitikoa ere badela hasieratik, Txina eta AEBen arteko norgehiagokan mundu osoa tentsionatu duena. Donald Trumpek esan badu koronabirusa dela AEBek Pearl Harborrez geroztik nozitu duten atzerritiko erasorik handiena, iradokizunak barnean daramatza II. Mundu Gerra eta haren baitako bi bonba atomikoak. Beraz, inork ez du ahaztu behar mundua hankaz gora jarri duen SARS-CoV-2 birusaren jatorriaz hipotesi bat plazaratzen duenean muturra sartzen ari dela interes oso handiak jokoan dauden soro batean. Ohartu behar duen moduan hilabeteotan zabaldu diren konspirazio edo *konspiranoia* usainezko teoriek asko jorratutako ortuan ere badabilela.

Argian COVID-19aren jatorrian dauden osagaiak aztertzen ahalegindu gara pandemiaren hasieratik, saiatuz kokatzen hondamendi ekologiko orokorragoaren testuinguruan, globalizazio neoliberalak mugatutako harreman ekonomikoetan, berdintasunik gabeko mundu baten dinamika globaletan... Eta egia da COVID-19ari aurkitu dakizkiokeela loturak Genetikoki Eraldatutako Organismoekin ere, horiekin esperimentuak egiten ari diren konpainia, laborategi, estatu eta armadekin.

NOBEL SARIDUNAREN OHARTARAZPENA

Campagnes Solidaires aldizkariak, Confederation Paysanne ezkerreko nekazari frantsesen sindikatuarena denak, 2020ko maiatzeko zenbakian honela zioen "Manipulazio genetikoak debekatu" titulua zeraman artikuluan:

Luc Montagnier mikrobiologo Nobel Saridunak publikoki esaten du SARS-CoV-2 birusa laborategian manipulatuta sortu dela.

"Industriaren ikerkuntzak eboluzio naturala azeleratu nahi du, berrikuntzak gero eta arinago ezartzeko. COVID-19a izan liteke deriba horren ondorioetako bat. Luc Montagnier biologo eta birologoak publikoki adierazi duenean COVID-19a dela laborategian burututako manipulazio genetikoen ondorioa, ikerkuntza akademikoko jauntxoek erantzunean azpimarratu dute horrelako manipulazio batek 'arrastoak' utziko zituela eta koronabirus honek ez dauzkala. Jauntxook, alabaina, ezagutu behar dute *gain of function mutation* teknika: laborategian birus bat hainbat animaliarengandik pasaraztea, bere egokitze-mutazioak azeleratzeko. Horrela lortu zuten ikerlari holandarrek A/H5N1 hegazti gripea eraldatzea, hau da, oso patogenoa baina ordu-

> **Pandemia honen kalte humano eta ekonomikoek oroitarazten digute manipulazio genetikoak debekatu behar direla, prekauzio printzipioagatik"**
>
> Campagnes Solidaires

AFP



PATRICK SEMANSKY

Ezkerrean Shi Zhengli ikerlaria P4 Wuhango (Txina) laborategian. Eskuinean Denise Branun ikerlaria Fort Detrickeko (AEB) laborategian.

ra arte gizakien artean kutsakorra ez zena bilakatzea gizakien artean arnasez kutsatu daitekeen birus. COVID-19aren osaketa heterogeneoak iradokitzen digu balitekeela mutazio eta birkonbinaketa konplexuen horrelako azelerazio bat egin izana laborategian, nahiz eta ez duen frogatzen. Komunikazio gerra batean sartuta daude AEBak (birusaren sorrera eragotziz Frantziaren laguntzarekin Txinak eraikitako laborategi bati), Txina (errua egotziz justu aurreko uztailean itxi erazi zuten laborategi amerikar bati) eta Frantzia bera (defenditu duena pangolinaren soinean gertatu zirela mutazio naturalak) eta horregatik litekeena da birus honen jatorria ez sekula argitzea. Baina gaurko pandemia honen kalte humano eta ekonomikoek oroitarazten digute manipulazio genetikoak debekatu behar direla, prekauzio printzipioagatik, ez daukatelako segurtasunik %100ean".

Transgenikoen kontrako borrokan Europan aitzindarietakoa den Confederation Paysannek aipatzen duenez, OGMen erbia Luc Montagnier mikrobiologo frantsesak –Nobel Saria eman zioten 2008an, HIESa eragiten duen birusa aurkitu zuelako– apirilaren 17an esnarazi zuen, deklaratu zuenean COVID-19 izurriaren oinarrian dagoen SARS-CoV-2 birusa Genetikoki Eraldatutako Organismo bat dela. Koronabirus berriaren sorrera erabat naturala dela dioten arren zientzialari gehienek, Montagnierrek funtsean dio COVID-19a laborategi batean genetikoki eraldatu dutela profesionalek. Ez du esan birus hau gizakiak osorik sortu duenik, %96an saguzarren birus baten berdina baita, baina COVID-19ak badauzkala HIESa eragiten duen Giza Immunoeskasiaren Birusaren (GIB) sekuentzia batzuk, garatu ezin izan dituenak mutazio naturalen bidez.

Euskara bertakoa;
ikasi eta erabiltzea,
zure esku

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala

Munduko gainerako aditu gehienek berehala gezurtatu dituzte Montagnierren ideiak, berretsiz COVID-19aren jatorriaz dagoen kontakizun onartuena: 2019ko abenduan agertu zela Wuhanen animalia biziak saltzen diren azokan, saguzarretatik abiatuta pangolinetan bereganatu zituela gizakiarenganaino iristeko behar zituen mutazioak, Montagnierrek GIBaren sekuentziatzat jotzen dituenak beste hainbat birusek ere badauzkatela...

Parisko *Liberation* egunkarian, justu Montagnier mintzatu zen egun berean, Romain Ligneul ikerlari gazte frantsesak ere auzitan jarri zuen aditu gehienen teoria, argudiatuz Wuhanen zabaldutako birus anduiak animaliaren baten beste batekin antzekotasunik izatekotan daukala, ez Wuhanen baizik eta handik 900 kilometrora bizi diren saguzarren artean aurkitutako RaTG13 birusarekin: gaur Wuhango birologia laboratorioaren buru den Shi Zhengli ikertzailearen ekipo batek aurkitu omen zuen 2013an. Birus horrek geroztik bere mutazioak ezagutu ditu bai naturan –animalien artean– eta baita laborategietan ere eta denborarekin, dio Ligneulek, eman ditu COVID-19aren aldagai ezberdinak: 1) Wuhanen zabaldutakoak; 2) Txina Hegoaldean, Japonian, AEBetan eta Australian zabaldu direnak, sorburuan duen RaTG13aren antza handiagokoak; eta 3) Europan gehien zabaldu direnak, aurreko bietatik ezberdinak.

Horregatik dio zenbait ikerlari minoritariok COVID-19a Txinan sortu izana bada ere probableena, ez dagoela frogatuta soilik hor sortu zenik eta hor sortu izana ere segurua denik. Saguzarrak beren birusekin munduko herrialde askotan daude eta horiekin esperimentuak egiten ari diren laborategiak ere bai.

Saguzarren birusak ikertu eta manipulatzen dira munduko laborategi batzuetan.

SMITHSONIANS INSTITUTE

NATURAN ALA LABORATEGIAN?

Eztabaidaren korapiloa honetan dago: nola azaldu birusak saguzarretik gizakiraino egindako jauzia? Berez, Txinako saguzarren RaTG13 koronabirusa ez da gai gizakiarenganaino iritsi eta jendeen artean hedatzen hasteko. Uste da beste animalia batean trantsizioa eginez hartu dituela gizakiengan arrakasta izateko ezaugarriak. Pangolina [*Manis pentadactyla*] izendatu da susmagarritzat: SARS-CoV-2ak bere osagaien artean badarama proteina bat gizakiaren zelulak kutsatzea ahalbideratzen diona, hain zuzen ere pangolinaren beste birus batek daramanaren oso antzekoa. Alabaina, diote pangolinarena auzitan jartzen dutenek, proteina horretaz landa pangolinaren birusetik oso urrun dago gizakien artean COVID-19a eragin duena.

Puzzlea osatu nahian beste animaliak ere jo dituzte begiz: basa-katuen antzeko '*Paradoxurus hermaphroditus*' asiatarra (gaztelaniaz '*civeta*', frantsesez '*civette*', ingelesez '*Asian palm civet*'). Badira saguzarretatik gizakienganainoko zubi-lana mapatxeak (*Nyctereutes procyonoides*) egin duela uste dutenak ere, tartean Alemaniako gobernuaren aholkulari nagusia izan den Christian Drosten epidemiologoa. Baina modu naturalean jazotako trantsizio hipotesi

Wuhango azokan animalia basatiak jakitarako saltzen dira, hilik bezala bizirik.

REUTERS

hauen frogarik ez da aurkitu, orain arte.

Laborategiaren hipotesiaren sustatzaileek, aldiz, oroitarazi dute koronabirusen manipulazio genetikoak 1990eko hamarkadan hasi zirela AEBetan eta geroztik etenik ez dutela izan. 2002an SRAS-CoV epidemia larria nozitu zuenetik Txina ere abiatu zen ikerketan, Frantziaren laguntzarekin. Bai Txinako eta bai AEBetako ikerketa taldeak ari dira horretan gaur egun, aitzindarietan erreferente direlarik Ralph Baric iparramerikarra, Ipar Karolinako unibertsitatean ari dena, eta Shi Zhengli txinatarra, Wuhango laborategiko zuzendaria. Birusekin esperimentuak egitearen sustatzaileek argudiatzen dute laborategietan birusen manipulazio genetikoak burutuz aurrea hartu nahi dietela egunen batean birus horiek naturan mutatuta eragin litzaketen gaixotasunei, horiek prebenitzeko botika eta txertoen bila ari direla.

Bide batez, ez da ahaztu behar esperimentuok burutzen dituztela medikuntzaren eta gerraren arteko muga labainkorrean. Alde batetik, uste denez gizadiak aurrean dauzkan krisi larriek (klimarena, biodibertsitatearena...) gero eta gehiagotan eragingo dutela animalia basatien birusak gizakien artean hedatzea, ikerlariok aurrea hartu nahi diete, txerto berriekin antizipatuz... eta bide batez esperimentuak finantzatzen dituzten farmaziako konpainia erraldoiei negozioa segurtatuz. Baina beste aldetik, esperimentuok arma biologiko berri oso arriskutsuak sortzeko ere baliatzen dituzte militarrek. Armadek aspaldiko ezaguna dute gerra bakteriologikoa, bakteriorik eta birusik bazenik ere ez zekiten garaietatik erabili izan dute.

Laborategiotako ikerketetan topo egiten dute arma kimiko eta biologiko berriak sortzeko ahaleginek eta elikagaiak kontrolatzeko landare eta animalia transgenikoen garapenak

Horien edo beste norbaiten laborategitan manipulatzen ari ziren birusen batek ihes egiteak eragin ote duen pandemia? Ezinezkoa da, diote eraldaketa era naturalean gertatu dela ziur daudenek: “Ikerlari horiek edo beste batzuek manipulatuta sortu izan balute SARS-CoV-2, utziko zizkioten eraldaketaren arrastoak”. Ziur? “Ez derri-

gor", erantzuten diete laborategiaren hipotesiaren aldekoek: laborategietan erabiltzen duten tekniketako batek, *gain-on-function* teknikak, ez duelako arrastorik uzten.

'GAIN-ON-FUNCTION' DIOZU?

Hitzez hitz "funtzio-berriak-irabaztea" itzuliko genukeen teknika zera da: birusak errazago mutatzen direnez animalia batetik bestera jauzi egitera behartuz –are gehiago espezie batetik bestera–, laborategian hori bortxatzea lortzen dute animalia baten birusa beste espezie bateko bati injektatuz. Munduan bioteknologiako ikerketan ari diren puntako zenbait laborategitan hudoa (*Mustela putorius furo*) eta gisako mustelidoak birusen manipulazio esperimentuetan erabili izan dituzte 20 urteotan, mutazioen abiada azkartzeko *gain-on-function* teknikarekin.

Duela urte batzuk A/H5N1 gripearen birusa Ron Fouchier holandarraren ekipoak horrela mutarazi zuen, laborategian hudoa erabiliz. Kasualitatea ala ez, Holandan bertan 2020ko maiatzean gertatu da susmo horiek berpiztera zetorren kutsadura episodio berri bat: hudoak bezala mustelidoen familiakoak diren ur-ipurtatsak (*Mustela lutreola*) larrugintzarako hazten zituzten 10 granja itxiarazi eta 10.000 animalia hilarazi dituzte agintariek, langileetako batzuk koronabirusez kutsatu dituztelako. COVID-19a animalietatik gizakietara zuzenean pasatzen ikusi den kasu bakanetakoa izan da.

Animalia baten birusa injekzio bidez beste bati pasatzeko teknika horrek ez du manipulazio genetikoen arrastorik uzten, hain zuzen ere ez delako biologia molekularrezko teknika bat. Beraz… posible da Luc Montagnier ikerlariaren ustearen (COVID-19 laborategian sortu da) eta haren kontrako iritzi maioritarioaren (COVID-19 naturan sortu da) arteko partida berdintasunean geratzea betirako, froga faltan.

Ron Foucher ikerlari holandarra bere laborategian.

Laborategien hipotesiak esan nahiko ote luke COVID-19a Txinan sortu dela? Ez derrigor, laborategi gehiagotan ere ari baitira. AEBetan, esaterako, Afrikako Ebola izurriteaz geroztik. AEBek 2014 eta 2017an debekatu zituzten esperimentuok, Ron Fouchier holandarraren ekipoak A/H5N1 birusa laborategiko esperimentu bidez gizakien artean kutsagarri bihurtzea lortu zuela argitaratu ostean sortu zen eztabaida etikoa ikusita… baina salbuespen moduan baimenduta jarraitu dute Ipar Karolinako unibertsitateak eta Harvardekoak, *gain-on-function* teknikarekin Wuhango birologia institutuak egiten duen moduan. Zerbait adierazten du AEBek gaiotan daukan interesaz.

AEBetako Armadaren Komando Medikuak Fort Detrick basean garatzen

ERASMUS MAGAZINE

ditu gisa honetako ikerketa eta esperimentuak, batetik gerra bakteriologikorako prestatzeko eta bestetik txerto eta bestelako erremedioak ekoizteko, agintariek beren web instituzionalean aitortzen dutenez. Hedabide amerikarretan irakurri ahal izan denez, Fort Detrick dagoen Maryland estatuan 2019ko gripeak bereziki gogorrak izan omen ziren eta ohi baino goiztiarragoak. Kointzidentzia izan liteke, baina uztailean itxi egin zuten armada yankiaren erreferentziazkoa den laborategia hilabete batzuetarako, segurtasun arazoak atzemanda.

BIRUSA SUNTSITZEKO, GEHIAGO MUTARAZI

Manipulazio genetikoen mundua gardentasunik gabeko eremu iluna da, nekazaritzan hedatu diren OGMen sakoneko informazioa azaleratzen saiatu direnek ondo ikasi duten bezala. Laborategiotako ikerketetan topo egiten dute batetik arma kimiko eta biologiko berriak sortzeko armada handiek burututako ahaleginek eta, bestetik, gizadiaren elikagaien produkzio katea kontrolatzeko korporazio handiek sustatutako landare eta animalia transgenikoen garapenak.

OGM edo GEO esanda gehienetan arto, soja eta bestelako labore transgenikoez oroitzen garen arren, gizakien osasuna artatzeko botika berri garrantzitsu asko ere geneen manipulazioen inguruan sortu dira azken aldian, horiek dira gaur egun industria farmazeutikoen ikerketa eta negozio eremu nagusia…eta osasun sistema publiko eta pribatuen gastuen osagai oso potoloa ere bai. Duela 20 urte ezezagunak ziren eta lehen urratsetan zeuden botika *biologiko* deituak dira gaur egun, bederen mundu aberatsean, immunitate sistemarekin zerikusia duten gaixotasun guztien borrokarako erremedio izarrak, zer diren ez jakin arren gero eta ugariago kontsumitzen dituztenak artritisetatik hasita minbizia arteko dozenaka gaixotasunen artekoren bat daukaten milioika herritarrek.

AEBETAKO ARMADA

Fort Detrickeko (AEB) base militarraren atarietako bat.

COVID-19a saguzarretik gizakiaganaino hondamendi ekologikoaren poderioz edo kasualitateren batengatik iritsi bada… orduan konpainia bioteknologikoek bigarren punpan aprobetxatuko dute aukera manipulazio genetikoei ekiteko. *El Pais* egunkarian Esteban Domingo eliteko birologo espainiarrak honela laburbildu zuen maiatz hasieran zein den puntako ikerlarien estrategia: “Lortzen badugu birus hau normalean baino gehiago mutaraztea, suntsitu ahalko dugu”. Alegia, ikerlariak ari direla COVID-19a ezabatu behar omen lukeen txertoaren bila koronabirus hori manipulatuz laborategietan.

Bitartean, informazio berriak agertzen ari dira. Artikulu hau inprimategira bidean zegoela jakin da Bartzelonako Unibertsitateko ikerlariek, Albert Bosch mikrobiologo eta Espainiako Birologia Elkarteko lehendakaria buru, SARS-CoV-2aren arrastoak aurkitu dituztela 2019ko martxoan hiri hartako estolderian hartutako ur laginetan… pandemiaren kronologia –aurkikuntza berresten bada– Wuhanen ofizialki dena hasi baino bederatzi hilabete lehenagora eraman eta jatorriaz zalantza gehiago zabalduz. ●

Bertako ekoizleekin konpromisoa

Hemengoak gara eta bertako produktuen kontsumoa sustatzen dugu

Hemengoa izatea ona da

EROSKI 50 urte zurekin

www.eroski.es

Klase kontuak

Ez dira gutxi udazkenean birusaren beste agerraldi bat iragartzen dutenak. Eta harekin batera, bigarren "atxiloaldia" etxean. "Batzuetan, zigorra ez da, zentzu hertsian, egindako arau-haustearen araberakoa, baizik eta pertsonaren bizi baldintza sozialen araberakoa". Edwin H. Sutherland soziologoaren hitzak dira kartzeletako erregimenari buruz. Baina balio lezakete konfinamendu garaietarako ere, zeintzuetan debekuak berdinak diren Neguriko txalet batean edo Bilboko San Frantziskoko 50 metro karratuko pisu konpartituan bizi direnentzat.

JORDI BORRÀS AXIER LOPEZ

ANTONIO ARETXABALA

Vigon jaioa, 1963an. Iruñean bizi da eta Zaragozako Unibertsitateko ikertzailea da. 25 urtez Nafarroako Unibertsitateko irakaslea izan zen, eta unibertsitate bereko Arkitektura Laborategiko zuzendari teknikoa. Espainiako Geologoen Kolegioko ordezkari ohia Nafarroan. Esako urtegia ez handitzea aholkatu du eskatu dizkioten txosten teknikoetan eta buru belarri ari da ekonomiaren desazkundearen aldeko lanean. Bereziki aztertu ditu hirietako mugimendu sismikoak.

“Egun autoa duten 500 pertsonatik bakarrak izango du etorkizunean”

ANTONIO ARETXABALA

Joan Josep Boch ekonomialariari maiatzean egin genion elkarrizketan berak zioen lagun baten esanetan planetak ez zuela negoziatzen, eta ekonomiaren uzkurtzea bai ala bai etorrriko zela. Geroxeago jakin genuen lagun hori Aretxabala zela. Uztail hasieran aurkeztu zen Sustrai Erakuntzaren enkarguz egin duen *Nafarroako meatzaritza trantsizio ekologikoaren eta energetikoaren testuinguru historiko berriaren aurrean*.

XABIER LETONA BITERI JOSEBA ZABALZA

Diozunez, ekonomiaren uzkurtze hori gertatzen ari da dagoeneko.
Herenegun [ekainaren 24an] esan zuen Espainiako Bankuak datorren urterako %12,8ko atzeraldia espero dela. Askoz datu gehiago dago norabide berean, baina tira, argi dago atzeraldian gaudela. Aspaldi erran dut baliabideen eskasiagatik gertatuko dela hori. Gure antolaketa ekonomikoa, kapitalismoa –eta ez dut hitz hau zentzu txarrean erabiltzen– oinarrituta dago material geologikoen etengabeko hornitzean. Baina planetak aski da esan du, ezin du gehiago eman.

Aspaldi erraten da hori eta hazkundeak jarraitzen du.
2008ko krisiarekin ere atzeraldia egon zen. Baliabide mineralen kontsumoa eta hazkunde ekonomikoa lotuta daude, historian beti izan da horrela, hutsik egin gabe: baliagaien kontsumoa hazten bada, ekonomia ere bai, eta alderantziz.

Zergatik da hain garrantzitsua meatzaritza desazkunde ekonomiko eta ekologikoan?
Gure antolaketa sozial guztiaren oinarriari eusten diolako. Zure telefonoa, koadernoa, boligrafoa, eserlekua, eserleku azpiko hormigoia... sektore ekonomiko guztiak, dena oinarritzen da meatzaritzan.

ararteko | HERRIAREN DEFENDATZAILEA

arartekoa@ararteko.eus
www.ararteko.eus

ARABA
Prado, 9
01005 VITORIA-GASTEIZ
✆ 945 13 51 18 · Fax: 945 13 51 02

BIZKAIA
Albia Eraikina
San Vicente, 8-11. solairua
48001 BILBAO
✆ 94 423 44 09 · Fax: 94 424 18 44

GIPUZKOA
Arrasate, 19-1
20005 DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN
✆ 943 42 08 88 · Telefax: 943 42 72 97

Lehengai oso garrantzitsuak agortzen ari direla diozu, ez da posible aurrerapen teknologikoekin, eta beraz efizientziaz, baliabide gutxiagorekin gehiago egitea?
Planetak dituen baliabideak ditu, ez gehiago. Energia sortzeko, energia inbertitu behar da, eta petrolio gehien ekoitzi den XX. mendearen erdialdean petrolio upel batekin 100 ateratzen ziren. Historian esklaboak, egurra, bale olioa, eguzkia, haizea... erabili dira energia gisa, baina energia berriak etorri diren bakoitzean, haiek ez dituzte aurrekoak ordezkatu, metatu egin dira eta askoz gauza gehiago ekoiztu da. Gaur egun petrolio upel batekin 15 upel sortzen ditugu. Galdera zera da: gurea moduko gizarte konplexu batek zer energia maila behar du irauteko? Dagoeneko asko ikertu da horri buruz, eta esaten da gizarte honek arazo handiak izango dituela petrolio kupelen harremana 1-10 edo 1-5era jaisten denean. Jevons Teoremak azaltzen digu orain arte eraginkortasunarekin zer gertatu den beti: baliabide bat eraginkorrago erabili denean, haren erabilerak gora egiten du, kontsumoa handitu egiten delako. Makina oso efiziente bat sortzen dugula? Ez da baliatzen energia gutxitzeko, egiten dira halako lau makina eta gehiago produzitzen da. Hori gertatzen da haztera behartua dagoen ekonomian, ez dugu ezagutzen zer gertatuko litzatekeen txikitzen edo hazten ez den ekonomian, baina hor seguruenik bai, teknologiak lagunduko luke energia aurrezten.

Kalkulatuta dago 1-10 edo 1-5 upel harreman horretara iristeko zenbat denbora beharko den?
Ez, baina Nazioarteko Energiaren Agentziaren 2010eko txostenaren arabera, petrolio onaren kontsumo gailurra 2005 eta 2006 artean eman zen. Orduan agertu zen frackinga AEBetan, zeinak kasurik onenean upel harremana 1-8koa eman zuen eta gaur egun ia 1-1ekoa den. Beraz, bai, upelak sartu ziren merkatuan, baina horrek burbuila handitzen besterik ez zuen lagundu, frackingak inoiz ez baitu etekinik eman. Laburtuz, hainbat petrolio mota daude, eta badirudi guztien kontsumo gailurra 2018an eman zela.

"Gasolioa gutxitu ahala –2021erako asko nabarituko da– hornitze arazoa gero eta handiagoa izango da. Horrek desglobalizaziora garamatza"

Hala ere, salbuespenak egon daitezkeela ere aipatzen duzu, toki batzuetan BPG handiagoa izan daitekeela horretarako gastatzen den energia baino.
Mundua osotasunean hartuta hori ezinezkoa da, baina hainbat herrialde garatuetan gerta liteke. Hori bai, iruzur eginda. Herrialde baten BPGaren igoera ahalbidetzen duen petrolio edo ikatzaren erretzea beste herrialde batzuetara eramanez lortzen da hori. Herrialde horren klase ertaina birrinduz lortzen da, prozesu industrialak eraman dituzulako Txina edo Indiara. Edo iruzur egiten da zorraren bidez: klase ertainak zorpetzen dira, hauek kontsumitzen dute eta horrek BPG handitzen du. Baina energia hori beste nonbaiten sortu da. Edo sortzen den aberastasuna gero eta okerrago banatzen da: Espainiako hiru aberatsenek estatuko 17 milioi pertsonak adina diru dute: bai, hainbat amarrurekin, BPGk gora egin dezake, baina gero eta gutxiagoen artean banatzen da.

Meatzaritzari dagokionez, ondo kokatutako al dago Nafarroa desazkundeari begira?
Beste herrialdeen antzera. Inoizko izendapen egokienarekin urre beltza deitu dugun petrolio gordina, dagoeneko ez da hain lorterraza eta horrekin egiten da diesel onena, meatzaritza eta garraioaren oinarria izan dena, eta globalizazioa bultzatu duena. 2015etik aurrera nabarmen nabaritu zen lehengai askoren jaitsiera eta urte horretan NBEk bide-orri bat finkatu zuen baliabideen eskasiari aurre egiteko. Orduan sortu ziren Garapen Jasangarrirako 17 Helburuak. Helburu horiei jarraituz, Europar Batasunak dagoeneko egin du bere plana, iragan azaroan aurkeztu zena Nafarroan, EBko ekonomia kontseilariaren eskutik. Hurrengo egunean –ongi koordinatuta daude– Nafarroako Gobernuak eta enpresek aurkeztu zituzten aurrera begira egin beharreko berrantolaketa ekonomikoaren oinarriak.

Eta zein da oinarri hori?
Orain arteko hazkunde ekonomikoaren euskarri izan den laukotea – erauzketa, produkzioa, kontsumoa eta hondakin bihurtzea– bukatu dela. Aipatu plan hauetan guztietan hori zigortu egiten da, energia garbiak bultzatzen dira, ekonomia zirkularra, guztien onerako ekonomia, gertuko hornitze kateak erabiliko dituena.

Finantzak gogor sartu dira meatzaritzaren munduan ere. Kasu zehatz bat ikusteko, kontaiguzu Nafarroan nola izan den.
Geoalkali dugu hemen, bere burua potasen ustiaketan aditutzat jotzen duen Highfield Resources Australiako enpresaren filiala. Enpresa honek ez daki zer den meatzaritza eta izan dituen etekinak beti izan dira burtsa mugimenduei esker, akzioen salerosketarekin; baina lortu du Aemina-n egotea, Nafarroako meatzaritzaren sektorea biltzen duen irabazi asmorik gabeko erakundean.

Izan daiteke berriztagarria behar dugun energia guztia?
Ezinbestean hala izan beharko du, baina ez ingurumenarekiko oso arduratsuak garelako, beste erremediorik izango ez dugulako baizik. Enpresa handiak –Repsol, Cepsa...– jadanik pasatzen ari dira berriztagarrietara, haien ohiko ustiaketak dagoeneko ez direlako errentagarriak. Duela hamarkadak dakigu dieselen erreketaren ondorioz sortutako nitrogeno oxidoak minbizia eragiten dutela, ez da ezer berria. Orain berdez jantzi dira, baina enpresa horiei ingurumena bost axola izan zaie beti eta orain ere bai.

Munduan kontsumitzen dugun energiaren %86 fosila da eta %14 berriztagarria, baina etorkizunean inoiz ezingo da sortu gaur kontsumitzen dugun adina energia berriztagarri, gehienez gaur egun kontsumitzen dugun energia guztiaren %20-30 izanen da. Energia garbiak deitzen ditugu, baina hori ere ez da guztiz egia. Haize-errota bakoitzaren edo eguzki-panel bakoitzaren atzean, euskarri diesela duen meatzaritzan oinarritutako jarduera zehatz bat dago: haize-errotaren palak, errepideak, mendi puntara egiten den garraioa, mantenua... guztiaren atzean dago petrolioa.

Hau da, egungo baliabideen %20-30arekin bizi beharko dugula esaten ari zara?
Bai. Petrolio upel batek energia aldetik egiten duen ekarpena pertsona batek 80 urtetan ematen duen energiaren parekoa da. Humanitatea hasi zenean petrolioa erabiltzen, planetarekiko genuen harreman zirkularra apurtu zen. Energia fosilak erabiltzen hasi ginenean fenomeno berri bat sortu zen: hondakina. Naturan ez dago hondakinik, baina guk sortu ditugun hainbat produktu, baliagarriak ez direnean botatzen ditugu eta kito, plastikoa, CO2... 2040rako-edo esaten da plastiko tona kopurua arrain tonarena baino handiagoa izango dela gure ozeanoetan. Nola saihestu edo gutxitu sortzen ari garen inpaktu hori? Ekonomia txikituz, ez dago beste erremediorik.

Horretarako aldaketa handiak egin beharko dira gizartean.
Eliteek badakite desazkundea saihetsezina dela eta prestatzen ari dira horretarako. Adibidez, egun autoa duten 500 pertsonatik bakarrak izango du autoa, jakina, hori aberatsa izango da. Orduan, bi norabide daude: gerta liteke aberats

ANTZUOLAKO UDALA
Herriko plaza 8
20577 Antzuola
Tel.: 943 766 246
Faxa: 943 787 100
udala@antzuola.eus
www.antzuola.com

ANTZUOLA eta BERGARAko udaletan euskaraz lanean

Udal barruko eta kanpoko harremanak euskaraz bideratzea da gure helburua

Bergarako Udala
San Martin Agirre Plaza
20570 Bergara
Tel.: 943 779 100
euskara@bergara.eus
www.bergara.eus

horiek gero eta txiroagoa den masa handi baten bizkar bizitzea, edo jar gaitezke ados eta baliatu ezinbestekoa den desazkundea aberastasuna hobeto banatzeko.

Foro batetik bestera zabiltza. Nola ikusten dituzu Nafarroako Gobernua eta elite industriala egoera honen aurrean?
Estralurtarrak bagina bezala begiratzen gaituzte. Ez ikusiarena egiten da, legealdiak lau urtekoak dira eta ez da epe luzerako neurririk hartzen. Enpresariak? Horiek fede handia dute, inbertitzea besterik ez dute buruan, eta diru-laguntzak nahi dituzte berriztagarrietan inbertitzeko. Gobernuen aholkularitza mundua enpresetako jendearekin osatua dago batez ere, eta horiek interesez josiak daude. Mundu politikoan ere inor ez doa hauteskundeetara esanez desazkundea behar dugula. Podemos sortzear zela, adibidez, hau guztia jarri zitzaien mahai gainean, baina esan zuten hortaz ez zela hitz egingo hauteskundeetan, horrek ez zuela botorik ematen.

Nola egin daiteke desazkundea modu ordenatu batean eta nola eragingo du gure bizitzetan?
2008tik aurrera desazkundearen eragina oso agerikoa da gizartean. BPGa handitu daiteke armagintza, prostituzioa, drogak eta beste sektore batzuekin gizenduta, baina hori norbere buruari iruzur egitea da. Gure bizimaila etengabe ari da jaisten, duela urte batzuk mileuristak txiroak ziren ia, eta gaur egun ia luxua da. Orain arte ezagutu dugun kapitalismoak eman du berea, baina adi, sozialismoak ere enbor beretik egin zuen hazkunde ekonomikoa. Ez du zentzurik kotxe pila bat egiten jarraitzeak. Oinarrizko errenta unibertsala eta gisakoak ere partxeak dira. Hau da, zein da paradoxa? Hazten bagara planeta suntsitzen dugu eta orduan suntsitzen dugu hazkunde hori posible egiten duen ekosistema.

Zergatik esaten duzu "garraioaren gudua galduta dago"?
Hau grabatzen ari den zure telefonoa BQ markakoa da, ezta? Bada, berez espainiarra da, baina espainiarra bakarrik diseinua da, piezak mundu osoan egiten dira, eta muntaia Txinan. Telefonoa egiteko milaka kilometro egin dira, eta

"Oro har, energia fosilekin galdu ziren hainbat harreman humano berreskuratuko dira, hau da, WhatsApp gutxiago eta domino eta karta joko gehiago"

berdin gainerako produktuekin. Hori da globalizazioa. Nola garraiatzen da guztia: gasolioarekin. Ez dago itsasontzi elektrikorik, ezta eolikorik, eta gasoliorik gabe nekez eraman daitezke atzera aurrera egungo produktu guztiak. Zein da arazoa? Petrolio berriak ez direla onak gasolioa egiteko, eta egun ekoizten den gasolioaren gehiengoa garraiora –guztiaren %53– eta nekazaritzara doa. Esaten digute apurka garraioa energia berriztagarrietara iragango dela, baina ezinezkoa da. Gasoilaren gainbehera etengabekoa da, dagoeneko ez da errentagarria eta horregatik uzten ari dira, ez arrazoi ekologikoengatik. Horrek hornitze sareei bete-betean eragingo die. Europan, merkantzien garraioaren %20 trenez egiten da, Espainiako Estatuan %2,6 bakarrik, gainerako dena errepidez, kamioien bidez. Garraio hori guztia –eta berdin nekazaritzakoa– diru publikoz lagundua dago, baina gasolioa gutxitu ahala –2021erako asko nabarituko da– hornitze arazoa gero eta handiagoa izango da. Horren ondorioz izango den garraio sarearen galerak desglobalizaziora garamatza; gure gizarteak konplexutasuna galduko du, eta horrek deszentralizazioa eta deshierarkizazioa ekarriko ditu.

Jar dezakezu adibide bat deszentralizazioarena hobeto ulertzeko?
Espainiako Estatuaren erdigunean bizi dira bizirauteko ezer produzitzen ez duten 15 milioi pertsona. Jakiak, lehengaiak... dena eraman behar da Madril ingurura, energia kopuru izugarriak xahutuz eta Extremadura, Asturias, Galizia eta periferiako ekosistemak txikituz. Noizbait herritarrak ohartuko dira horretaz; alegia, ez dela posible batzuk erabat zaharkitua dagoen Almarazeko zentral nuklearra (Caceres) jasan behar izatea, edo Asturias eta Galizia eukaliptoz betetzea, edo erreka guztietan ur-jauziak eraikitzea Madrilgo "señoritoek" halako bizi maila izan dezaten. Felipe II.enarekin hasi zen eredu zentralista hori eta, orduz geroztik, hazkunde ekonomikoak sostengatu du garraio sarea, baina aurrera begira deszentralizatu beharko da. Oro har, energia fosilekin galdu ziren hainbat harreman humano berreskuratuko dira, hau da, WhatsApp gutxiago eta domino eta karta joko gehiago. ●

Ordizia, bizi herria, bizi euskaraz

ORDIZIAKO UDALA
Euskara Zerbitzua

Kale Nagusia, 26 · 20240 Ordizia
943 805 622
euskara@ordizia.eus

ordizia
bizi herria

MerkaERKIDE

Euskal Kooperatiben Plataforma Komertziala
Plataforma Comercial de las Cooperativas Vascas

¿Buscas proveedores de calidad?
Kalitatezko hornitzaile bila zabiltza?

Registrate en: Erregistratu zaitez:

www.merkaerkide.com

y recibe ofertas sin compromiso eta jaso eskaintzak konpromisorik gabe

Automoción
Automobilgintza
Maquinaria
Makineria
Ingeniería
Ingeniaritza
Electricidad
Elektronika
Mecanizados
Mekanizazioak
Automatismos
Automatismoak

Asesoría
Aholkularitza
Financiación y Crédito
Finantzaketa eta Kreditua
Artes Gráficas
Arte Grafikoak
Informática
Informatika
Limpieza
Garbiketa
Formación
Prestakuntza

Transporte y Logística
Garraioa eta Logistika
Construcción y Obra
Eraikuntza eta Obra
Mobiliario
Altzariak
Suministros
Hornidurak
Almacenaje
Biltegiratzea
Textil
Ehungintza

Más de 500 productos y servicios 500 produktu eta zerbitzu baino gehiago

Tel: 902 646 927 info@merkaerkide.com

ERKIDE
Euskadiko Lan Elkarteen, Irakaskuntza, Kontsumo eta Kreditu Kooperatiben Federazioa
Federación de Cooperativas de Trabajo Asociado, Enseñanza, Consumo y Crédito de Euskadi

Ikudea

ETA HURRENGO KONFINAMENDUAN,

zer?

ZIGOR OLEAGA DANI BLANCO

Aurreko konfinamenduaren digestio politiko, ekonomiko edo emozionala egin gabe gaudela oraindik, uda ostean berriz ere antzeko neurriak ezarriko dizkigutela aurreikusten duten ahotsak gero eta ugariagoak dira. Zer gertatu da martxoa eta ekaina artean alor ekonomikoan, politikoan edo osasunarenean? Inposatu dizkiguten neurrietatik zer zen zentzuzkoa, zer ez? Euskal herritarrok, ezkerrak eta mugimendu herritarrek nola erantzun diogu egoerari? Eta, batez ere, zer ikasi dezakegu bizitakotik, hurrengo balizko konfinamendu bati aurre egiteko baliagarria izan dakigukeena?

Emakume feminista arrazializatuen kolektiboetan militatzen duen Silvia Zunigarekin, Antonio Escalante antimilitarismo eta auzogintzako militantearekin, Mirene Begiristain ekonomialariarekin eta Mati Iturralde medikuarekin mamitu ditugu kezka horiek (argazkietan, ezkerretik eskuinera). Bota dizkiguten ikuspuntu eta proposamenek bertute bikoitza dute: konfinamendu bati begira erabilgarriak izan daitezke, baina, konfinamendurik ezean ere, dugun eta datorkigun testuingurua borrokatzeko berdin dira baliotsuak.

Ekarpenak nork bere esparru eta bizipenetatik egitea proposatu diegu solaskideei. Zenbat buru, hainbat bizipen. Begiristain ekonomian doktorea da eta EHUko irakaslea eta ikerlaria, agroekologian eta elikadura burujabetzan espezializatua. 9 eta 17 urteko semeekin eta heldu batekin konpartitzen duen etxean pasa du konfinamendua.. Bi helduak telelanean, seme nagusia teleikasketan presio handipean, txikia eskolaren berririk gabe bi hilabetez. Soldata eta etxe "egokiak", belarra zapaltzeko aukera... pribilegiatua sentitu da "arruntak beharko luketen baldintzak izateagatik", eta, hala ere, "ezin eramana". Zaintza sistema osoaren gabeziak agerian geratu direla dio. Iturralde medikua da herri txiki batean, hirian aritu zen aurretik. Konfinamendu garaiko bizipen kontraesankorrak azpimarratu ditu, "arlo pertsonal zein profesionalean". Osasun sistemak "kolapsatu" zuenean urruntze soziala eta antolaketa ezinbestekotzat zituen, baina amorruz bizi zuen agintariek agintekeria hutsez inposatzea "gauza erabat zentzugabeak", pedagogian eta konfiantzan oinarritu ordez. Escalantek begirada antimilitarista eta komunitariotik sufritu du alarma egoera, hiru sentimendu nagusirekin: Lehenbizikoa bere "pribilegioen gordinkeria" beste egoera batzuk ikusita; bigarrena inpotentzia, "soldaduska inposatu digutelako eta auzoan legetik harago behar zena egin ez dugulako"; konfinamendua amaitzean kezka eta harridura, militantzia kide askok adierazi dutelako "hibernazio antzekoa izan dela konfinamendua" eta indarge daudela.

Talde solasaldia hastear gaudela Zunigak abisua eman du, ezin izango du hitzordura agertu. Telefono bidez mintzatu gara berarekin. Urtea eta lau hilabete dela heldu zen Bilbora Nikaragua jaioterritik ihesi, 2018an piztu zen gatazka soziopolitikoaren errepresio giroan heriotza mehatxuak jaso ostean. LGTB kolektiboaren alde lan egiten zuen ekintzaile feminista lesbiana da. Papergabea da, zaintza arloan zituen ordukako bi lan prekarizatuak galdu zituen itxialdia hastean, aurrezkirik gabe. Hamar pertsonarekin batera pasa du konfinamendua, "estres sozial orokortuari gehitu norberarena, kezkak... oso gogorra izan da".

ZER IZAN DA HAU?

Bat-batean oinarrizko eskubiderik gabe eta konfinatuta geunden. Historian lehen aldiz munduko biztanleriaren gehiengoa gelditu egin zen –literalki–, borondatez edo mehatxu bidez. Orainaldi distopiko gaindosiak gure bizitza kolektibo eta pertsonalak astindu zituen informazioen, albisteen, neurri sanitario, ekonomiko, politiko eta sozialen zaparradan. Abiadurak gertaerak asimilatu ezinak egiten zituen; ezjakintasun sentsazioak irizpide propioak izatea eragozten zuen; beldurrak eta antsietateak eztabaida politiko kolektiboa ezinezko egiten zuten. Zentralismoa eta autoritarismoa indartu ziren egitura politikoetan. Eztabaida eta hausnarketa politikoa inoizko desaktibatuen, behar handieneko garaian.

Konfinamendu bitartean ezin gertaerez jabetu, eta orain egitea proposatu diegu solaskideei. “Lortu dute ezartzea hainbat neurri inongo ebidentzia zientifikorik gabe”, dio Iturraldek. Arauetako askok ez zuten inongo azalpen medikurik: ume batekin atera bai, birekin ez? Adituen izenean jendartearenak diren eztabaidak lapurtu dizkigutela uste du: “Heldu gara erabaki behar izatera nor ingresatu ZIUetan eta nor ez, adinaren edo gaixotasunen arabera esaterako. Hori ez da adituen erabakia, hori jendartearena da”. Umeen etxealdi zentzugabea salatu du, “gerora frogatu da ez dutela birusa transmititzen”. Zaharren egoitzetako “genozidioa” azpimarratu du, hiltzeagatik baino, hiltzeko moduagatik: “Gelan bakarrik hilabetez, bisitarik eta jarduerarik gabe”. Lantegira bai; ez, ordea, zahar etxera, mendira, triste dagoen lagunarengana edo bizilagunari erosketak egitera. Konfinamendu eta urruntze neurri sanitarioak behar ziren, baina bizitza lehenesteko, ez jarduera ekonomikoa.

Eta zein ekonomia. Begiristainek salatu du ahaleginak automozioa eta manufaktura ez gelditzera bideratu direla, eta zorpetzea areagotuz kapital finantzarioa elikatzen jarraitzera. Hartu diren babes neurri sozial batzuk zentzuzkoak iruditu zaizkio: hipotekak izoztea, erregulazio espedienteak (ABEE), moratoria fiskalak... Baina ez dira nahikoak izan, “ez baitira irizpideak ipini banaketa horretan, ez baikara denok leku beretik abiatzen”, dio. Zaintza eremuko langileak, autonomoak edo nekazari txikiak laguntza oso eskasa

aholkukoop
Fiskala Kontablea Laborala
EKONOMIA SOZIAL ETA ERALDATZAILEAREN BIDEAN DOAZENEN AHOLKULARITZA
aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus

HITZURUN
Hizkuntz Zerbitzuak
Morlans Bulego
Antonio Maria Labaien, 14-5.C
20009 Donostia (Gipuzkoa)
Tel.: 943 598 626
hitzurun@hitzurun.eus
www.hitzurun.eus
bai euskarari
Ziurtagiriaren Elkartea

MARCOS okindegia
Benetako antzinako ogia
✆ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

izan dute, langabetuek edo papergabeek are gutxiago. Udalek laguntza handiagoak bideratu dituzte tokiko komertzio eta enpresa txikietara, dio, "baina zenbat diru dago hor?". Titularretatik harago, diru-laguntza lerroak benetan nora joan diren lupaz aztertzeko beharra ere nabarmendu du Begiristainek.

Lupa herritarron gainean jarri dute –Foucault zaleek nekez irudikatuko lukete mikropolitikaren eta biopolitikaren uztarketa poetikoagorik–. Erresistentziarik gabe, Escalanteren iritziz. "Azkenean soldaduska egin dut", dio ironiaz 58 urteko kontzientzia-objektoreak: "Ikasi dute praktikan gaitasuna dutela gu kuartel baten gisan antolatu eta edozein agindu betearazteko. Non eta Euskal Herrian, oso intsumiso gutxi egon da". Militarrak prentsaurrekoetan eta kalean, Polizia kalean eta balkoietan, gerra terminologia, heriotzaren esplotazioa. Onarpena handia izan da. Beldurra sustatu dute, eta ez dugu jakin beldur kolektibo hori kolektiboki lantzen: "Bakoitza bere beldurrarekin, beldurra modu indibidualean kudeatzen".

Lupa horren begirada ezberdin sentitu dute Zunigak eta bere inguruneak migratzaile, papergabe eta zaintza arloko emakume posiziotik. Lupak ez zuen ikusten konfinamenduari aurre egiteko neurri positiboak aplikatzeko orduan: gizarte-segurantzarik ez, langabezia-prestaziorik ez, izoztu ahal izateko hipotekarik ez... Berak bezala bere inguruneak lana galdu zuen bat-batean. Etxeko langile egoiliarren kasuan, asko kanporatu eta kale gorrian utzi zituzten. Ordea, lupak mikroskopio itxura zuen 'herritar-soldaduen' diziplinatze orduan. Beldur handienetako bat ezinbesteko erosketak egitera irtetea zen. "Dendara joan eta polizia bidean, pasa zitezkeen 20 euskaldun arazorik gabe, eta niri beti gelditu eta 'nora zoaz, zer egin behar duzu...'".

HERRITARRAK, EZKERRAK, HERRI MUGIMENDUAK...

Zuniga buru-belarri murgildu da babes sareak indartu eta erresistentzia kutxak sortzeko borrokan. Urtarrilean dozena bat emakume nikaraguar, militante eta feministek Feministak Nika EH kolektiboa sortu zuten. Konfinamendua hasi eta berehala sortu zuten erresistentzia kutxa Mujeres No domesticadas, Mujeres con Voz eta Mujeres Tejiendo Red emakume arrazializatuen kolektiboekin batera. Alokairuaren ordainketan laguntzea zen hasierako helburua. Lehenbiziko asteetan 20.000 euro batu eta 100 emakume lagundu zituzten. Astebetean bete zuten hilabeterako jarri zuten erronka. Egoerak gainezka egin zien, ordea: "Egunero ehunka pertsona deika janari eta aterpe eske, gehienak inongo prestaziorik gabe, erroldatuta ere ez zeudelako, batzuk Euskal Herrira orain dela zortzi-bederatzi urte heldu baziren ere". Hori dela eta, janaria eta arropa ere jasotzen hasi ziren.

Emakume migratzaileen eta bere taldeen artean harreman politak eta garrantzitsuak eraiki dituztela dio Zunigak, "berdinen artean lanean". Baita arrazializatutako pertsonez osatuak ez dauden beste kolektibo batzuekin ere, Pikara Magazine eta Sortzen Kontsultategiarekin adibidez. Baina bi esperientzia mingarri ere aipatu ditu. Bata, marko zabalagoan sortutako erresistentzia kutxa –"Guk gure errealitatea eta beharrak ezagutzen ditugu"–. Bestea, zenbait GKEren aldetik espero zuten ekarpen ekonomikorik edo bultzada sozialik ez jasotzea: "Talde horiek guk bizi dugun errealitatetik sustengatzen dira, beren proiektu, jarduera eta diskurtsoen oinarria gara".

Oro har jendartearen erreakzioa oso ahula begitandu zaio Begiristaini: "Konfinamenduko sentimendu nagusia tristezia izan da, indibidualismoa zainetaraino sartua dugu". Erakundeen eta agintarien jarrera neutralizatzaileak zerikusirik izan duela uste du. Mugimendu feministak antolatutako mahaian ez dute parte hartu, adibidez. Edo, nekazal produkzioari begirako protokoloa sektoreko elkarteek egin ondoren, Jaurlaritzak "kopiatu eta bere lana bailitzan aurkeztu zuen". Iturraldek uste du erakundeen erabaki eta jarrerei ez zaiela interpelazio nahikorik egin, ez eremu politiko formalean, ez sindikalgintzatik, ez herri mugimenduen aldetik. Bereziki kritikoa da sindikatuekin, ABEEn "defentsa baldintzatu gabea" egiteagatik, batzuetan publikotik enpresarien etekinak bermatzeko tresna izan direnean, edo lantokietara ez bueltatzea gehiago ez borrokatzeagatik.

"Orain arte onartzen ez genituen gauza asko onartu dugu", dio Escalantek, arauak ahaztu eta bidezko irizten diogunaren aldeko praktikak bultzatu behar direla defendatuz. Hariari heldu eta Euskal Herri osoan ugaldu diren zaintza sareak ekarri ditu Iturraldek hizpidera. "Hasieran espontaneoki ondo hasi ziren, baina ondoren tropa ordenatu zuten". Beste herri batzuetan bezala Zuian ere arazoak izan zituzten Ertzaintzarekin, "herritar batzuei medikamentuak etxera eramateagatik". Instituzioek sareak instituzionalizatu edo baztertu egin zituzten. "Hausnarketa behar zen hori gainditzeko. Ezin duzu pentsatu: 'Gabezia batzuk beteko ditugu, baina baimentzen digutenaren arabera'. Izan behar da guk nahi dugunaren arabera". Ados dago Escalante. "Auzoan 300 pertsona ginen saretuak eta 200etik gora ez dute ezer egin, ez dugu jakin nola edo zertan erabili esku horiek". Whatsapp bidez komunikatzeak, bestalde, zahar asko kanpoan uzten ditu eta, Zunigak gogorarazi digunez, baita interneterako dirurik ez dutenak ere.

Escalantek faltan sumatu dituen hiru gauza zerrendatu ditu. Egoera hausnarketarako baliatzea: "Zerk ekarri gaitu hona? Zergatik daude zahar etxeak? Nola, zertarako bizi nahi dugu? Aldaketa handiak egiteko beharrezko galderak dira". Polizia kontrol eta militarizazioaren aurkako ekimenak, bigarrenik. Eta hedabide kritikoen ekarpen handiagoa: "Saio honen moduko gehiago mezu batzuk konpartitzeko, bereziki irratiak auzo mailan informazioa emateko...". Begiristainen aburuz balkoietatik harago jendarte komunikazioan "oso kreatibitate gutxi" erakutsi dugu, webinar metaketan eta adituaren figuran oinarrituz, edo jakintza esparruak elkarrengandik bananduta irudikatuz, besteak beste.

Norabide eta ekimenetan asmatu edo okertzetik harago, oinarrizko beste baldintzapen bat agertu da solasaldian: herritarren eta mugimenduen gaitasun eta energia mugatua. Begiristainek dio maila pertsonalean gauzetara ezin heldu bat egon dela, eta herri mugimendua antzeko nabaritu duela: "Mugimenduak oso prekarizatuak daude, ez dugu arkitektura sendorik erantzuteko eta ahal dena egin da". Iturraldek bide beretik jo du, eta bere esperientzia kontatu du. Konfinamendu betean bat-batean Arabako zaharren egoitza bat hustu eta egoiliar guztiak lurraldeko gainontzeko egoitzetan banatu zituzten. Berak lan egiten duen egoitzara gauerdian hamar zahar eraman zituzten inongo argibiderik gabe, dementziekin, ez zegoen modurik nortzuk ziren jakiteko ere, ezin asmatu zer medikazio zuten... "Eskubide galera erabatekoa. Gau hartan negarrez heldu nintzen etxera, pentsatuz biharamunean salaketa idatzi behar nuela. Baina hurrengo egunean ezin nuen ile

Amurrioko Udala
Juan Urrutia plaza z/g
01470 AMURRIO
Tel.: 945 89 11 61
Faxa: 945 89 16 45
amurrio@amurrio.eus
www.amurrio.eus
AMURRIO
bai euskarari
Ziurtagiriaren Elkartea

bakar bat ere mugitu". Aldi berean, dio Begiristainek, eskerrak hamarkadatan egin den herrigintzari, hortik heldu baitira erantzun interesgarrienak.

Testuinguru emozional eta materiala oso kontuan hartzekoa da balorazioak egiterakoan. Beldurra norbere edo ingurunekoen bizitzagatik, konfinamendu fisikoaren ondorioak, bizitzaren prekarizazioa, orainaldiarekiko eta etorkizunarekiko ikara... Batetik, ezinekin barkaberagoa izan eta erruduntasunak mugatzeko arrazoiak dira. Bestetik, herri mugimenduaren oinarriez galdekatzeko balio dezake. Militante asko pribilegioen gordinkeria ahoz salatzetik pribilegioak galtzeko beldur intimora ez ote den pasa zalantza du Escalantek: "Horrek auzitan jartzen du zertan oinarritzen den gure militantzia, ea gure planteamenduek erosotasunetik soilik balio diguten".

ERREFERENTZIA ASKATZAILE PROPIOEN FALTAN?

Trump edo Urkulluren errezetei aurka egiteko Osasunaren Mundu Erakundearenak aldarrikatu ditu ezkerrak –OME, "ustelkeriaren habia", dio Iturraldek–; kolpea leuntzeko neurri sozial batzuk hartu direnez gobernuei gehiago exijitzeko anbiziorik gabe geratu gara, agian; 'askatasuna' aldarrikatuz eta arauak apurtuz kalera atera den bakarra eskuin muturra izan da... Ez al dira egon sektore antikapitalista eta antipatriarkalak pentsatzeko eta ekiteko erreferentzia propiorik gabe? Enbata betean iparra markatu zezaketen itsasargi iraultzaile edo eraldatzaileen faltan?

Begiristain ez dago ados, edo ez guztiz. Proposamenak egon badaudela dio. Feminismoak epe labur eta ertainerako neurriak aurkeztu dituela, agroekologiatik beste horrenbeste, edo politika fiskalean. Arazoa horiek jendarteratzeko egungo gobernantza ereduen gaitasun ezan dagoela uste du, "batetik eta bestetik", proposamenak bazterretara kondenatzen dituena. Iturraldek uste du pausa bat ezinbestekoa zela, bizitzen ari ginenaz hausnartu eta erreferentzia propio sendoak sortzeko. Agindu-obeditu logika sakondu egin da jendartean konfinamendu bitartean, solaskideen ustetan: erakunde eta aditu 'jakintsuak' batetik, herritar 'ezjakinak' bestetik.

Horren aurrean, zientzia ez dela neutrala gogorarazi du Begiristainek, eta aditu jakin batzuei ematen zaiela hitza. Confebaskek langabezia %15era igoko dela dionean, esaterako, ez da errealitate bat deskribatzen ari, baizik eta errealitate jakin bat sortzeko baldintzak eraikitzen –langabezia tasa hartzen diren neurrien araberakoa izango baita–. " Nahi dugun jendarte eta sistemaren araberako irakurketak behar ditugu", dio. Baina ez da lan erraza, osasunaren arlora ekarriz Iturraldek azaldu duenez. Teknologia sanitarioan farmazeutikoen boterea eta gaitasun teknikoa hain da handia, non osasun arloko profesional kritikoak baloreen eta etikaren eremuan zokoratuta geratzen diren, ikerketa eremutik kanpo: "Eta krisi honetan adituen izenean guztion bizitza arautu da goitik behera, jauzi kualitatibo bat izan da. Osasuna desteknologizatu behar da, eta teknologian ikerketa independente eta publikoak egin". Ahalduntze pertsonal eta kolektiboa gakoa da, eta bada zumitzik: "Gu kapazak gara eta badakigu", dio Escalantek sistema politikoaren aurreko delegazionismoaren aurrean; "Jakinduria partekatu eta banatu behar dugu, denok dakigu zertxobait, inork ez dena, agian denon artean...", Iturraldek, adituen jainkotzea arrakalatzeko.

BESTE KONFINAMENDU BAT POSIBLE DA

Osasun krisialdi eta konfinamendu berriak aurreikusiz antolatzen ari da hurrengo ikasturtea hezkuntzan, arautzen telelana, agintzen langileen oporraldi egutegia. Solaskideek ere uste dute etorriko dela, izan birusaren agerraldi berri batengatik, izan horren aitzakian sistemak inposatua bere interesetan sakontzeko. COVID-19arekin sortutako errealitatea kapitalismoak "bere ametsik onenean ere" ez lukeela irudikatuko diote. Iturralde ez da aurreko konfinamendua ulertzeko teoria konspiratzaileen zale –ezer baztertzen ez badu ere–, "baina pentsatzen dut hemendik aurrera datuak manipulatuko dituztela. Urrian egoera behartu nahi badute, esaterako, hastea esaten "ROa 1,1etik gora igo da!' Hau egin behar da, beste hau ez'". Escalantek denbora gutxi dugula dio, "osasun krisia egon edo ez, saiatuko dira kontrol soziala areagotzen hartuko dituzten neurri ekonomikoak baketzeko". Gaurdanik prestatu behar garela uste du, ikusitako hutsuneentzako bitartekoak garatuz eta sortutako tresna baliagarriak indartuz. "Momentua hau da".

Iturraldek eremu txikietan antolatzen hasteko unea dela deritzo. Konfinamendua amaitu zela eta, Zuia Elkar Zainduzen desagertzea planteatu zen. "Ez! Gau-

Konfinamendu egoerarako proposamenak

(Edo balizko konfinamendu agertokirako gaurdanik lantzen hastekoak)

AUZOGINTZATIK

Etxadiz etxadi antolatu. Pertsona batek edo bik antenarena egiten dute, beharrizan-egoerei edo ekimenei buruzko informazioa jaso eta helarazteko. Zaintza sareak abiapuntua izan daitezke.

Gabeziak atzemanda modu antolatuan desobeditu: sukalde herrikoiak sortu, pilatuta bizi diren pertsonentzako lekuak bilatu, adinekoak egunero atera ahal izatea bermatu modu seguruan...

Komunikabide alternatiboak tokiko ekimenak hedatzeko bitarteko bilakatu –batez ere irratiak–; eztabaida irekiak egin, auzoko informazioa helarazi eta mezu ofizialak edota zurrumurruak auzitan jarri.

Larrialdietarako alarma eta erantzun sareak eta metodoak prest izan, Poliziaren gehiegikeriei, etxegabetzeei edo antzeko egoerei aurre egiteko.

Osasun-proiektu komunitario bat diseinatzen hasi.

OSASUNGINTZATIK

Kronista talde bat sortu aurreko esperientziak jasotzeko eta hurrengorako abiapuntuak markatzeko. Gure osasun beharrei entzun eta ikasi duguna birpasatu era kolektibo eta indibidualean.

Informazio eta iritzi sareak osatu errealitatea kritikoki aztertzeko. Adibidez, ume eta zaharren konfinamenduaren aurka, edo arriskurik gabeko mugikortasuna mugatzearen aurka.

Zaintza sarea pandemiaren unean uneko errealitateari egokitu behar zaio eta horretarako datu errealak ezagutu behar dira. Osasun zentroarekin harremana egin kontrasteak egiteko datu ofizialetatik harago.

Zerrenda bat osatu pertsona, familia eta kolektibo zaurgarriekin eta aztertu pandemiaren fase bakoitzean zer behar izango lituzketen. Behar mota bakoitzerako dispositiboa prestatu –inposatutako arau zentzugabeak modu antolatuan desobedituz beharrezkoa denean–, eta beharrezkoa bada interlokutore lana egin osasun sistemarekin.

Zaintza sareek zaharren egoitzetako laguntza ere antolatu beharko lukete, egoiliar, senide edo langileekin kontaktuan jarriz.

ARRAZIALIZATU ETA BAZTERTUENETATIK

Enplegurik gabe eta kale gorrian geratzen direnentzat bizitegi-baliabideak gaitzea (aterpetxeak, alokairuak edo etxebizitza sozialak...). Halaber, alokairuan laguntzeko premiazko laguntzak.

Administrazioarekiko komunikazioa erraztu eta trabak saihesten dituzten bitartekoak sortu (zalantzak argitzeko, espedienteak edo eskaerak izapidetzeko, prestazioak kudeatzeko...). Pertsona guztiek ez dute ordenagailua eta interneterako sarbidea, edo izapide jakin batzuk egiteko prestakuntzarik ez dute.

Kaleratzean baja ematen dieten lankideei errolda ematea, eskubiderik galdu ez dezaten.

Aurreko konfinamenduan sortutako laguntza-sareak aktibo mantentzea eta babestea, bereziki migratuen guneetatik sortutako ekimenak.

Udalek beharra duten pertsonentzako jakiak eta janari prestatuak etxez etxe banatzeko zerbitzuak sortzea.

UDALGINTZA ETA EKONOMIATIK

Herri ordutegiak eta mugikortasun eremuak antolatu hainbat gako kontuan hartuta: adina, osasun egoera, aniztasun funtzionala, lanaldi egoera, herriaren tamaina…

Herrietan egon daitezkeen etxebizitza hutsak, jabetza publikokoak, pisu turistikoak... zerrendatu eta etxebizitza arazoak dituzten pertsonentzako lehenetsi.

Autonomo eta enpresa eta komertzio txikientzako laguntzak. Kostuen eta egoeraren arabera eten ahal diren ordainketak bertan behera utzi. Mikrokredituak jarduerarekin jarraitu ahal izateko, finantza etikoko erakundeen bitartez.

Herri sukalde komunitarioak sortu: elikadura osasuntsua bermatzeko, kontziliazio aukerak laguntzeko, elikagai bankuarekin batera koordinatuz... Herrietan dauden azpiegiturak kontuan izan (herri eskolako sukaldea, elkarte gastronomikoak…).

Egoeragatik bertan behera geratzen diren lan esparruetako langile publikoen jarduna larrialdi egoerarekin lotutako beharretara bideratu. Berrantolaketa hori aurreikusi.

za piloa egin behar dugu, orain gainera bildu gaitezke, beharrak identifikatu..", dio. Gehiengoak hala iritzita, mantentzea erabaki zuten azkenik. Sortutako sareak mantendu ez ezik, indartu egin behar direla defendatu du Zunigak. Pertsona guztien erregularizazioa ezinbestekoa dela dio, bestela edozein neurri sozialetik kanpo geratzen jarraituko baitute milaka pertsonek. Bitartean, erresistentzia kutxa mantentzen du Feministak Nika EH taldeak, "COVID-19aren ondoriozko sarraskiak dirauelako". Ordea, kutxa aurkeztu ondorengo bi asteetan ekarpen asko jaso bazituzten, azken astean bakar bat ere ez. Auzoetatik eta kolektibo txikietatik lan egitea proposatzen du, "sare horiek dira pertsonengana gehien heldu eta eguneroko arazoak konpontzen dituztenak".

Konfinamenduko akatsak ez errepikatzera deitu du Zunigak. "Espero dugu eremu sozial eta politikotik hurbiltzeko gai izango direla modu desinteresatuan, gure esperientziak ezagutzeko gogoz, ekarpena egiteko aukera izan dezagun konfinamendu batek berriz ere modu berean kolpatu ez gaitzan". Egun "utopiko xamarra" iruditzen bazaio ere bikaina litzatekeela dio, "kuestionamendu eta gonbidapen bezala diot".

"Gelditu zaitez etxean" ekidin eta Hego Amerikatik ikasitako "gelditu zaitez auzoan" martxan jarri nahiko luke Escalantek. Auzoko Batera sarean 300 pertsona zeuden esku bat botatzeko prest. Oinarri horrekin eta etxadika antolatuz gero –bakoitzean dinamizazio lanetarako bi pertsonarekin–, uste du posible dela beharrak identifikatu eta asetzea: gabezia ekonomikoetarako erresistentzia kutxa, pilatuta edo etxerik gabe daudenentzako okupatu daitezkeen etxe hutsen eta bigarren etxebizitza uzteko prest daudenen zerrenda; lapiko herrikoiak elikadura beharretarako.

Begiristainek bestelako gobernantza mailetan eragitea ere defendatu du. Elikadura burujabetzaren esparruan eztabaida hori bada: "Eskualde edo herri mailako estrategiak garatzen ditugu, baina nola lortu aldundietako edo Europako politiketan eragitea? Erabaki plano horiek publikoak eta gureak izan zehar dute". Herrigintzak alternatibak ditu. Epe ertain eta luzerako proposamenak bota ditu, baita gaur bertan ezarri daitezkeen batzuk ere: zaintzan enplegu berriak sortu, baldintzak hobetu eta publifikatzea, sukalde pu-

Osasunean heziz gero adituek inposatutako osasun neurrietatik zeintzuk diren zentzuzkoak eta zeintzuk ez baloratzeko gaitasuna izango genuke herritarrok, erabaki propioen arabera pertsonalki eta kolektiboki jokatzekoa, ondorioz

bliko guztietan tokiko elikadura sistema erabili, zerga sistema eraldatu kapitalaren errentek gehiago ordain dezaten...

Pasatako konfinamendutik ikasitakoak aletu ditu Iturraldek. Zentzurik gabeko neurriak ezin ditugula onartu dio, zaharrak isolatuta uztea edo hiltzear dagoen senidearekin egoteko debekua kasu: "Konfinamenduan desobedientzia zibil kolektiboa egiteko aukera dago, zergatiak ondo azalduta eta zentzuz eginez gero". Enbata betean pausa hartu eta pentsatzeko denbora hartzea ezinbestekoa dela uste du, eta instituzioei etengabeko interpelazioa egin behar zaiela. Osasun arloan, maila lokalean herritarrak hezteko ekimenak garatzea proposatzen du, "autogestionatzeko eta osasun sistema makroaren menpekotasuna ekiditeko". Adituek inposatutako osasun neurrietatik zeintzuk diren zentzuzkoak eta zeintzuk ez baloratzeko gaitasuna izango genuke herritarrok, erabaki propioen arabera pertsonalki eta kolektiboki jokatzekoa, ondorioz.

Konfinamendu formala epe laburrean inposatu nahiz ez inposatu, konfinamendu garaiko gobernantza ereduaren arrastoak gure artean geratuko dira. Beldurra sustatzea, militarizazioa, politikako, osasuneko edo ekonomiako 'adituen' agintekeria, ezberdintasun sozialak areagotzea, prekarizazioa orokortzea eta sakontzea. Konfinamendu formatuan edo ez, kolapsora urratsak ematen jarraituko dugu. Norabidez aldatzen ez badugu, bederen.

Munduak beldurra ematen du eta amets kolektiboen deseskaladan murgiltzeko tentazioa indartsua da. Pribilegio deitzen diegu garai batean eskubide zirenei, iraganean haserretzen gintuzten apurrengatik esker ona sentitzen amaitu dezakegu orain, hainbat eta hainbat erabaki beldurretik hartzen ditugula ukatu eta beharra bertutez mozorrotzeko joeran sakontzeko arriskua dugu. Ametsak biziberritzeko garaia ere izan daiteke, ordea: hausnartuz, enpatia kolektiboa eta etika pertsonala garatuz, begi bat ipar iraultzailean eta bestea eguneroko lokatzetan, elkar zainduz eta etsaia borrokatuz eta, batez ere, saiakera praktikoetan zikinduz. Ziurtasun sendo apurrak eta ziurgabetasun ugariak motxilan, behar beste hanka sartu eta berriz saiatzeko prest. Ezer ez da definitiboa, baina hurrengo hilabeteetan eta balizko konfinamendu berri(et)an hartzen ditugun jarrerak garrantzitsuak izango dira bide bat edo bestea argitzeko. ●

Mondragon Unibertsitatea

LEARNING FROM REALITY

Espainiako Estatuko
5 unibertsitate onenen artean

BERRITZAILEA

Mundu osora zabaldu den hezkuntza eredu propio eta berritzailea eraiki duen unibertsitatea. **Bikaintasuna ikasleen mugikortasunean.**

multirank

PRAKTIKOA

Enpresari, errealitateari, atxikitako unibertsitatea. Gurean, <learning by doing> ez da eslogana, geure DNAn txertatu dugu, eta ondorioz, formazio dualean liderrak gara.

HURBILA

Lankidetzan aritu, batera sortu, elkarrekin jardun eta konfiantza giroan prestatzen diren pertsonak dira unibertsitateko protagonista. **Bikaintasuna ezagutzaren transferentzian.**

multirank

KONPROMETITUA

Herrialde-proiektuarekin konprometituriko jende ekintzailea eta langilea ardatz duen kultura. **Bikaintasuna inguruarekiko binkulazioan.**

multirank

www.mondragon.edu

Plastikozko harremanak

Adinekoek sufritu dute isolamendurik gogorrena, bereziki zahar etxeetan daudenek, egun batetik bestera inguruko pertsona maite guztiak debekatuta, beldurra eta arriskua nagusi ziren eremuan. Haurrak eta zaharrenak. Pandemiaren aurkako neurrietan eta kudeaketan bazterrean utzitakoak. Kontsumitzen eta soldatapeko lanik egiten ez dutenak izatea kasualitatetzat hartu behar al dugu? Irudian: ama eta semea, plastikoa erdian, besarkadarik gabeko hiru hilabeteren ostean zahar-etxean, Valentzian (Herrialde Katalanak).

BIEL ALIÑO AXIER LOPEZ

Lehen lerroan bai, aitortza errealik ez

ONINTZA IRURETA AZKUNE DANI BLANCO / HODEI TORRES

Martxoan etxean gelditu ginen eta ikusi genuen nola batzuk bizirauteko oinarrizkoa den guztiari eusten ari ziren: zaharrak zaintzen egoitzatan eta etxe partikularretan, ospitaletan eriak artatzen, garbiketa lan sakonak egiten, farmazian herritar aztoratuak artatzen... Eta ikasi genuen oinarrizkoa bermatzen zutela sektore horiek, eta ikusi genuen langile gehienak emakumeak zirela, eta konturatu gara prekarioak direla. Ohartzeak ordea, ez du esan nahi emakume horien bizi eta lan baldintzak aldatu direnik. Sistema kapitalistari ez zaio interesatzen.

DANI BLANCO

Hedabideetako argazki hura, emakume aurpegia zuen irudi hura, aztertzen laguntzeko eskatu diegu bi sindikalistari. LABeko Eli Etxeberriaren eta ELAko Jone Bengoetxearen analisiak baliatu ditugu ondoko erreportajean.

ITXIALDIAN ITOTA ETA ENGAINATUTA

Ezinezkoa da pandemia garaiko emakumearen argazkia egitea. Erraz ahazten bada ere, emakumeen arteko diferentziak, bizi-egoerak, oso desberdinak dira, eta abiapuntuaren arabera, osasun krisiaren eragina aldatzen da gorputz batetik bestera. Bengoetxeak esango digu ez dela gauza bera emakume euskaldun zuri eta baserritar bat izatea edo etxeko lanetan egun osoz ari den paperik gabeko emakume arrazializatua, adibidez. Agintari politikoek erabakiak hartzerakoan ez zituzten emakumeen egoera desberdinak kontuan hartu: enplegua zuten ala ez, adin txikikoak eta nagusiak ardurapean zituzten ala ez, enplegu gabekoak ziren ala oinarrizko zerbitzuetan ari ziren.

Etxeberriak eta Bengoetxeak egun batetik bestera etxean harrapatuta geratu zen emakumearen argazkia ekarri dute gogora segituan. Etxeberriak emakumeak erabat itota, gaindituta eta engainatuta sumatu zituen. Pandemiak kontraesanak agerian uzten lagundu zuen, nola sistemak ezin dion eutsi emakumeen doako lanik gabe eta zaintza lanak prekarizatu eta ikusezin bilakatu gabe. Prestatu eta negoziatu gabe, emakumeak egun batetik bestera zaintzaile, umeen irakasle, etxe garbitzaile, etxekoen emozioen kudeatzaile... bihurtu ziren. Askok, gainera, telelana egin zuen.

Biak ados dira genero rolak indartu zirela pandemian. Bengoetxeak dio COVID-19 aurreko garaian denboren eta lanen banaketa desorekatua bazen, hilabete haietan desorekak gora egin zuela: "Telelanean aritu ziren, eta lana eta bizitza pertsonal-familiarraren arteko muga ezabatu zen, jardunaldi bikoitzak eta hirukoitzak egin zituzten. Kontziliazioa ez da erreala".

Gizonak etxean inoiz baino gehiago egonda, kontziliazioa errazagoa izango zela pentsatzea ameskeria baino ez zen izan: "Mugimendu feministak lan itzela egin du genero rolak kolokan jartzen. Alabaina, ezin dugu pentsatu egun batetik bestera sexuaren araberako lan banaketa, zaintza lanen banaketa, aldatuko denik. Ez da berez aldatzen. Jakin nahi nuke zelan bizi izan den hau guztia etxeetan", dio Etxeberriak.

Ez etxean, ez lan merkatuan. Pandemia baino lehen ere, emakumeen bizitzak eta lanak prekarietateari lotuta zeuden. Orain agerian geratu dira. COVID-19 garaiko emakumeen egoerak ulertzeko, adibide baten bidez atzera jotzea proposatu digu Bengoetxeak: "Jendartearentzat garrantzitsua al zen COVID aurretik 1.000 eurora iristen ez zen supermerkatu kate bateko emakume langile baten lan egoera, zeinak jardunaldi partziala duen eta ardura familiarrak? Garrantzitsua al zen?". Gipuzkoako eta Bizkaiko zahar egoitzetan egindako greba luzeak ekarri ditu gogora, baita Gipuzkoan epaitegi eta komisaldegietan bederatzi hilabetez egindako greba ere. Ez da ezer aldatu: torlojuak eta armak egiteak edo burtsan inbertitzeak pertsonak zaintzeak edo eraikinak garbitzeak baino gehiago balio du.

AITORTZA SOZIALIK IZAN AL DA?

Biek oso antzeko iritzia dute, eta sentsazioak elkarbanatzen dituzte. Bai, osasun krisiak lagundu du oinarrizko sektoreak

zein diren bistaratzen, gizarteak ikusi du sektore horietako langile ia denak emakumeak direla, eta era berean, lanbide prekarizatuak direla. Etxeberria haratago doa eta iruditzen zaio mugimendu feministak hainbat urtez azpimarratu duen "bizitza erdigunean jarri" mezua ulertzeko balio izan duela: "Orain arte jende ugarik ez du asko pentsatu bizitza zer den eta nola sostengatzen den. Pandemian horretaz konturatu izana positiboa bezain harrigarria da". Alabaina, ohartzeak edo jabetzeak esan nahi al du aitortza soziala lortu dutela emakume langileek eta lanbide ezkutatuek? Solaskideek ez dute uste hala denik. Biek aitortza soziala aldaketarekin, lan baldintzak hobetzearekin, lotzen dute. Txaloak dira horren adibide. Aitortza egiteko borondate oneko ekintza bazen ere, azkenerako pandemiari aurre egiten lehen lerroan ziren langile askok eskatu zuten txalo gutxiago jotzeko eta zerbitzu publiko sendoagoak garatzen saiatzeko. Erakunde publikoek bazekiten oinarrizko sektoreak zein ziren, beste gauza bat da aitortzea interesatzen zaien. Hala dio Etxeberriak: "Botere publikoak ez daude prest sektore horiei behar duten balioa emateko. Zaintza lanen atzean dagoen negozioa itzela da eta negozioa izaten jarraitzea nahi dute".

Bengoetxeak uste du botere faktikoek eta *establishment* orokorrak bere pribilegioei uko egitea zaila izango dela: "Patronalen 'denok barku berean' gaudenaren mantra ezagunak oihartzuna du eta 'denok estutu beharko ditugula gerrikoak' ere bai. Guztiok lasterketan posizio berean egongo bagina bezala". Beraz, diskurtsiboki nolabaiteko aitortza bai, baina politika aurrerakoiak ezartzeko borondate politikoa nekez. Aurreko inertzietara bueltatzeko seinale asko daude.

EMAKUMEEN ARTEAN ERE MAILAK

Sektore prekarizatu eta feminizatuak denak, baina haien artean ere kategoriak antzeman ziren. Argazkietan medikuak, erizainak, ospitaleko laguntzaileak... ikusi genituen. Egoitzatako gerokultoreak apenas agertu ziren eta etxeko langile atzerritarrak azaldu ere ez.

Gutxien azaleratu ziren eta prekarioen diren sektoreak aipatzerakoan guztiz bat egiten dute solaskideek. Ekonomia ezkutuan aritzen direnak, egoera administratibo irregularrean daudenak, etxebizitzarik gabekoak eta bazterketa soziala bizi dutenak ez ziren agertu ere egin. Etxeetan adinekoak zaintzen eta garbikea lanak egiten ari diren emakume atzerritarrak dira okerren daudenetakoak. Osasun krisian, une batez, agenda politikoan tokia izatea lortu zuten. Laguntza ekonomiko baten bidez aurrerapauso txiki bat ematea lortu zuten, pauso sinbolikoa eta ez oso erreala. Etxeberriaren ustez esanguratsua da etxeko langileekin egin zutena: "Benetako zaintza lanak egiten dituztenak horrela tratatuak izan baziren, horrek esan nahi du sistemak oso gaizki tratatzen gaituela orokorrean".

Sektore prekarizatuenak ez ziren azaleratu pandemian, sistema kapitalistari ez zaiolako interesatzen, eztabaida potoloak mahai gainean jarri beharko liratekeelako. Ez da beraz, kasualitatea emakume langile batzuk telebistan ez ikustea. Hala dio Etxeberriak: "Eztabaidak egiteak esan nahi du kontraesan guztiak mahai gainean jartzea. Gure zaintza sistema pertsona batzuen esplotazioan sostengatzen dela aitortzea gogorra da, eta gainera, sistema eroriko litzateke. Horregatik, ez da eztabaidatzen". ●

“Geure buruari bidaltzen genizkion kemen mezuak”

NIEVES HÉRNANDEZ HERRERO
BM-ERCORECA SUPERMERKATUKO LANGILEA

Osasun krisia lehertu zenean ez zen supermerkatuan lanean ari. ELA sindikatuko ordezkari liberatua zen. Egun batetik bestera bere lankide ohiak zurrunbiloak harrapatuta sumatu zituen eta egoera garratzari eusteko supermerkatura itzultzeko baimena eskatu zuen. Muskizeko BM dendan aritu zen. Beraienean, eta beste denda askotan ere, kaos galantak sortu zirela dio. Erosleak komuneko paper, irin eta legami bila zetozkien, egunean hiru aldiz sartzen zirenak ere bazituzten.

Muskizeko dendan hogei bat lagun aritu ziren lanean, hamabost bat emakumeak. Psikologikoki eta fisikoki porru eginda gelditu zirela aitortu du. Kalerainoko ilarak zituzten. Lan zamari ezin zioten eutsi eta era berean langileek haien osasuna arriskuan jarri zuten. Ia inolako babes neurririk gabe hasi ziren lanean, gero helduko ziren maskara eta bestelakoak. Supermerkatu kate horretako bost langilek baino ez zuten positibo eman, baina bestelako arrazoiengatik hartutako bajak hamarnaka izan ziren.

Hérnandez 8:00etan hasten zen lanean, eta 14:00tan, 15:00etan edo 16:00etan bukatzen zuen, eguneko lanaren arabera. Lanaldi murriztua dauka. 18, 14 eta 12 urteko hiru seme-alaba. Ama ere etxean, arrisku taldean. Beti etxekoak kutsatzeko beldurrez. Malabarismo batzuk egin behar izan zituen, baina etxekoek eutsi ziotela sentitzen du: senarra eta seme zaharrena arduratu ziren etxeaz, neurri batean. Zorionekoa sentitzen da babesa izan zuelako eta bi soldatak mantendu zituztelako. Sektorean gehienak emakumeak dira eta lanaldi murriztu asko daude. Panorama latzak ezagutu zituen: lanaldi murriztuan ari ziren langile batzuen soldata, ordura arte familiako bigarren soldata zena, etxeko soldata bakar bihurtu zen. Pozez negar egin zuten enpresak 500 euroko gehigarria emango ziela iragarritakoan.

Mirestekoa iruditu zitzaion osasungintzako langileek egin zuten lana. Hala ere, amorruz dio supermerkatuetako langileak ez zirela lehen lerrora eraman hilabeteak pasa arte. Txalorik ez haientzat. Beren burua goratu behar izan zuten, kemen mezuak, argazkiak eta bideoak zabaldu zituzten langileen arteko whatsappetan.

HODEI TORRES

BERTAKOA BERTATIK
ANOETAKO UDALA
BASERRI BIZIAK
DENDA BIZIAK
HIZKUNTZA BIZIAK
HERRI BIZIAK

"Langileak amorratuta eta zapuztuta gaude"

LARRAITZ VARAS SÁNCHEZ
ERIZAINA BARAKALDOKO GURUTZETAKO OSPITALEAN

Larrialdietako ebakuntza-gelan egiten du lan, pediatrian. Zortea izan zuela dio. Beste lankide batzuk zerbitzuz aldatu zituzten, eta berak ez zion zuzenean aurre egin behar izan COVID-19ari. Hala ere, maskarak berrerabili zituen eta hasiera hartan ezagun egin ziren zakarretarako plastikozko poltsak erabili zituzten babeserako jantzi moduan. Protokolo bateraturik ezean, ezjakintasun handiz lanean aritu zirela dio.

Bere buruagatik baino, etxekoak eta ospitaleko pazienteak kutsatzeko beldurra zuen, birusa izanez gero. Babes gutxirekin lanean ari zirenez, aldi bakoitzean dutxatuta joaten zen etxera. 3 eta 4 urteko umeak eta senarra kutsatzeko beldurra zuen, eta batik bat pandemia betean asko lagundu zion ama kutsatzekoa. Telelanean ari zen ama, ez zen arrisku taldekoa, baina bai erretzaile amorratua.

Kirioak dantzan jarri zitzaizkion 4 urteko umea gaixotu zenean, burutik pasa baitzitzaion kutsatu zuela. Sustoa baino ez, eskarlatina baitzuen.

Erizaina ospitalean. Gremiokoek txalo zaparradak jaso zituzten. Herritarrek txaloak jotzea eskertu zuen, baina desmotibatzailea zitzaion herritarrak supermerkatuetan eta terrazetan aurrera eta atzera lasai ederrean ikustea: "Badakit txaloak zintzoak zirela, baina herritarrak ez dira ohartzen osasun sistema pribatizatzen ari direla eta langileok eskubideak galtzen ari garela. 32 urte dauzkat eta 21ekin hasi nintzen erizain lanetan. Okerrera goaz". Langileek amorru eta zaputz handia dutela dio, horrela lan egitea ez dela batere atsegina. Ospitalean egoera latzak bizi izan ondoren, dena baretu zela dio eta berriz lehengora itzuli direla, alegia, okertzen ari den osasun sistema batean lan egitera. Ingelesezko *burn out* terminoa erabili du langileen egoera adierazteko. Terminoak esan nahi du langileak neke profesionalaren sindromea daukala: neke fisiko, emozional eta intelektuala du eta lanbidearen eskakizunei erantzuteko gai ez izatera iritsi den langileak nabari duen estresaren ondorioz sortzen da.

HODEI TORRES

“Guk ere merezi genituen txaloak”

LUCERO GUTIÉRREZ
ETXEKO LANGILEA

Bi enpresarentzat egiten du lan. Batak asteburuetarako eta jai egunetarako lana ematen dio, menpekotasun handia duten adinekoak etxean zaintzen. Bigarren enpresaren bidez etxe garbitzen aritzen da astean zehar. Osasun krisian lan batzuk galdu zituen adinekoen seme-alabak etxe aldetik zebiltzalako eta haiek egin zituztelako lehen kontratatutako langileek egiten zutena. Oinarrizko sektore ugaritan bezala, berak ere babes neurriak hartzeko aukera gutxi izan zuen, hasieran materialik ez zegoelako.

Kutsatzeko beldur handia izan zuen. Paranoia hitza erabili du berak. 21 urteko alaba eta bikotekidea ditu eta haiengana hurbiltzeko zailtasun handiak zituen, kutsatzeko beldurrez. “Umorea ere aldatu zitzaidan, ez nintzen ni. Hilko banintz alabari zer gertatuko zitzaion pentsatzen hasten nintzen, oraindik gaztea baita! Familia da gauzarik handiena”.

Ordukako enplegu guztiak ez zituen galdu COVID-19ak eragindako ondorioengatik. “Normaltasun berrira” itzultzen ari ginela, garbiketa lanak egiten zituen etxe batean 90 urteko gizonak ipurdia ukitu zion. Esan zion ez zegoela prest horrelakorik onartzeko. Lanik gabe utzi zuten: “Lana joan eta etorriko da, duintasuna da garrantzitsuena”.



Lucero Gutiérrez ez dira bere egiazko izen-abizenak. Ez du enplegatzaileek ezagutzerik nahi eta argazkia ere bizkarrez atera diogu SOS Arrazakeriaren bulegoan.

DANI BLANCO

Osasungintzako langileek txaloak jasotzea ondo iruditu zitzaion, baina berak beste emakume batzuen alde jotzen zituen esku zartak: etxeko langileen, supermerkatuko eta farmaziatako langileen alde, adibidez. Txalo-orduan pareko bizilagunari horixe bera galdetu zion, ea besteok ez al zuten txalorik merezi, eta baietz, arrazoi zuela erantzun zion bizilagunak.

Produkzioak abar
www.abarprodukzioak.com

kooperatiba soinueder
www.soinueder.com

ELIKADURA BURUJABETZA EUSKAL HERRIAN

Azken urteetan geroz eta gehiago hitz egiten da elikadura burujabetzaz, gero duin eta osasuntsu bat segurtatzeko bidean ezinbesteko osagai gisa kokatuz. Koronabirusak eragin krisi globalak are gehiago begi-bistan jarri digu zein baitezpadakoa zaigun gure elikadura beharrak bertatik asetzeko posibilitatea. Erronka eder horri so jarri gara, ekoizpen espaziotzat Euskal Herria bere osotasunean hartuz. Hiru laborarirekin hitz egin dugu, baita nekazaritza esparruan aktibo diren beste eragile batzuekin ere. Helburua betetzeko bidean ditugun aukerak zein oztopoak azaldu dizkigute, helmugara iristeko asmoz eman beharreko aldaketak ere plazaratuz.

Nekazariez gain, erronka instituzio eta herritarren esku ere badago

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

JOHN LAMBETH

Ortzi-mugan elikadura aldetik burujabe litzatekeen Euskal Herri bat ezarri eta helmugara heltzeko bideari begira jarri gara. Gaur egungo errealitatetik begiratuta bideak luzea –ez bada luzeegia– dirudi. Alta, egingarria da, baldin eta eman beharreko aldaketak ematen baditugu –guztiok, bai nekazariek, bai instituzioek eta baita herritarrok ere–. Bide horretaz aritu gara luze eta zabal Leitzako Gotzone Sestorain, Abadiñoko Unzalu Salterain eta Itsasuko Maryse Cachenaut laborariekin. Sestorainek Nafarroako errealitatetik hitz egin digu, Salterainek EAEkotik eta Cachenautek Ipar Euskal Herrikotik. Hiruak dira agroekologiaren alde, hau da, laborantza herrikoi eta iraunkor baten alde militatzen ari, eta noski, laborantza industrialak ekar lezakeen elikadura burujabetzarik ez dute nahi, sozialki, ekologiko eta ekonomikoki kalteak besterik ez dituelako ekartzen eredu horrek. Hauez gain, Juan Manuel Intxaurrandietarekin ere hitz egin dugu, Nafarroako INTIA Nekazaritzako Elikagaien, Teknologien eta Azpiegituren Nafarroako Institutuko gerente izandako eta gaur egun teknikari denarekin, baita Patxi Iriart, Euskal Herriko Laborantza Ganberako langilearekin ere. Guztiek dute auzia klima larrialdiaren testuinguruan kokatu eta agroindustriatik agroekologiara pasatzeko behar gorria azpimarratu dute.

Hasi baino lehen, argi ukan dezagun zer den elikadura burujabetza. *"Bide Berriak, elikadura burujabetza Euskal Herrian"* dokumentalaren egileek emandako definizioari segi, "herriek bere elikadura sistemaren inguruan erabakitzeko eskubidean oinarritutako ikuspegi politikoa da. Merkatuen zentralitatea, bizitzaren pribatizazioa eta desberdintasunak bultzatzen dituen ereduaren kontra, elikadura burujabetzak bizitza eta elikadura zentroan jartzea proposatzen du eta beste eredu sozialak eta ekonomikoak amankomunean eraikitzea". Via Campesina nekazari ttipien sindikatuak eskubide gisa kokatzen du: "Osasuntsua eta kulturalki egokia den elikadura izateko herriek duten eskubidea da, metodo iraunkorren bidez ekoiztutakoa, eta herriek beren nekazaritza eta elikadura sistemak definitzeko duten eskubidea".

Euskal Herriko itzulia egin eta begibistakoa gelditzen zaigu zer nolako erliebe, paisaia eta klima aniztasuna duen gure herriak. Laboraria lurrarekilako harreman estuan izanik, betidanik egokitu da bere inguruneari, araberako ekoizpenak garatuz. Horrek ondorio interesgarria dakar: Euskal Herria anitza da, barazkigintzatik fruitugintzara, arrantzara eta kabale hazkuntzetara pasaz, guztia ekoiztu dezakegu eta guztia ekoizten dugu. Elikatzeko orduan beraz, nahi izanez gero, bertatik jaso dezakegu denetarik eta hau aberastasun handia da. Alta, aipatu dokumentaleko datuei segi, Euskal Herrian ekoizturikoaren %4 bakarrik kontsumitzen dugu eta gainera, inportaturikoak pisu handia du gure plateretan.

Elikatzeko orduan, nahi izanez gero, bertatik jaso dezakegu denetarik eta hau aberastasun handia da. Alta, Euskal Herrian ekoizturikoaren %4 bakarrik kontsumitzen dugu eta inportaturikoak pisu handia du gure plateretan

Euskal Herria munduan kokatua izaki, mundu mailan hartzen diren norabideek zeharkaturikoa ere da. Sekulako aldaketa bizitu du lehen sektoreak azken hamarkadetan: laborantza modernizatzeko –ulertu, industrializatzeko, espezializatzeko, intentsifikatzeko– beharra saldu zitzaien lurraren langileei. Bigarren Mundu Gerla eta gero hasi zen prozesua Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdi mailan; Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan geroago, 1986an Espainiako Estatuak Europar Batasuna integratzeko hautua egin zuenean. Eta gaur egungo lehen sektoreak ez du ezer ikustekorik gure aitatxi-amatxiena izandakoarekin. Gutxiago ala gehiago, zazpi lurraldeetan errotu da eredu industriala. Eta gutxiago ala gehiago, ondoan beti hor dira logika iraunkorrean dihardutenak, indartsu Ipar Euskal Herriari dagokionez, ahulago eta minorian Hego Euskal Herrian.

"Ipar Euskal Herrian ez gira beste lekuetan bezain urrun joanak, ez gira hain industrializatuak, santza hori badugu", dio Cachenautek. Nahi balute ere, ezingo luketelako, ingurumen menditsuak mugatzen duelako. Hori horrela, etxalde ttipi-ertainek bideratu laborantza herrikoi eta iraunkorra nagusi da eta horren alde lanean dabilen mugimendua ere aberatsa da ekimenez eta egiturez. Egoera bestelakoa da nagusiki esportaziora bideraturiko nekazaritza industrial boteretsua duen Nafarroan –batez ere barazkigintzan, zerealgintzan eta txerri hazkuntzan–. Ekologikoan eta eredu iraunkorrean dabiltzan baserri ttipiak izanda ere –batez ere Nafarroa iparraldean–, pisu gutxi dute beste ereduaren parean. Intxaurrandietak dio: "Nekazaritza ekonomikoki inportantea da eta ekonomia konbentzionalaren ikuspegitik, oraindik gabiltza betiko mezuekin: lehia da inportantea eta lehiatu ahal izateko, behar dena da handia izan, espezializatu eta esportatu. Hori ez dator bat elikadura burujabetzarekin". Datu esanguratsu bat: behi esnedunetan, eredu ekologikoan diharduen Jauregia izeneko baserria bakarra da eta Caparrosoko 5.000 behiko behitegia ere haien errealitate dute nafartarrek. "Agroindustria lurra eta ura bereganatzen ari da, nekazari ttipiak desagerraraziz. Sozialki desastre bat da", Sestorainen hitzetan. Argi du: "Beraientzat elikagaiak ez dira herritarrak elikatzeko, baizik eta dirua ateratzeko beste merkantzia bat. Orduan ekoizpen kostuak ttipitzen saiatzen dira, eta hori egiten dute asko produzitzeko asmoz eremu asko akaparatuz eta beraien langileak esplotatuz". Araban ere dute esportaziora bideraturiko ekoizpena, Gipuzkoa eta Bizkaia orokorki basogintzan espezializaturik direlarik: "Basogintzan esnetarako behietan eman den politika berdin-berdina da: monokultura, intentsiboa eta espezializazioa. Pinua izan da nagusi eta interes ekonomiko handiak daude atzetik, gaur egun basogintzako lobbyen eskuetan daude geroz eta gehiago".

Ipar Euskal Herritarrontzat irudikatzea neke zaigun errealitatea dago beste lau lurraldeetan: inbertsio fondoak ari dira baserriak eta bodegak berenganatzen eta sistema integratua martxan da –"zuk jartzen dituzu zure instalazioa, baserria eta esku-lana, baina ez duzu kudeatzeko aukerarik, erabaki guztiak hartzen ditu integradoreak, berak jartzen ditu txerriak, pentzuak eta medizinak, zuk egiten duzu langile-lana baina ez zara langile, bere nominan

ez zaude, autonomoa zara, eta erabaki guztiak kanpotik datoz eta zergak kanpoan pagatzen dira", Intxaurrandietak azaltzen duenez–. Aragonesak edo katalanak izan ohi dira integradoreak. Orokorki, zazpi lurraldeetan laborari eta baserrien kopurua apalduz doa abiadura handian. Haatik ekoizpena azkarki emendatu da, direnek geroz eta gehiago ekoizten dutelako, batez ere agroindustriako alimaleek.

Baina argi geldi dadila: dena ez da zuri ala beltz, beltzean puntu zuriak badira eta zurian berriz beltzak. Hau da, korronte nagusi industrialaren kontrako zentzura doazen laborariak daude zazpi lurraldeetan –Nafarroan hamabi kalitatezko sormarka izatea da horren adibide, demagun– eta logika industrialaren mehatxua bada Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan ere.

Hori horrela, nola irauli egoera? Nola babestu orain arte biziraun duen eredu herrikoia Ipar Euskal Herrian eta nola bideratu berriro eredu iraunkorrera Hego Euskal Herriko lehen sektorea?

DANI BLANCO

INSTITUZIOEN ARDURA HANDIA

Europar Batasunak 1962an martxan jarritako NPA Nekazaritza Politika Amankomunak bideratzen du gure laborantza. Oinarrian, Europatik Europako herrien elikadura hornikuntza segurtatzea zuen helburu eta bi zutabetan banatu zen politika: lehena ekoizpena sostengatzera eta bigarrena, baserri munduaren garapena segurtatzera. Arazoa da helburua bete arren, logika berean segitu duela EBk –kantitatea kalitatearen aurrean kokatuz– eta eredu produktibistaren sostengatzen diharduela oraindik. 60ko hamarkadan Frantziako Laborantza ministro izandako Edgard Pisaniren hitzak oroitarazten ditu Cachenautek: "Politika batek funtzionatzen duenean erran nahi du mundua aldatu duela eta mundua aldatu den heinean politikaz aldatu behar da". NPAk ez du aldaketarik bideratu: lehen zutabera bideratua da aurrekontuaren %80 eta lur eremuaren araberakoa da laguntzaren heina. Hots, geroz eta handiagoa izan eta geroz eta laguntza gehiago jasotzen da –eta larriena, lurrak lantzearena ez dela baldintza bat, landu gabe ere jasotzen da dirulaguntza–. Noski, ondorioztatu kalteak ikaragarriak dira munduko Hegokoentzat, merkatuak finkatu prezioen arabera, horren parean hango nekazariek ezin dutelako konpetitu konkurrentzia desleialaren parean –haiek ez dituzten dirulaguntzen bidez ahalbideturikoa, erran gabe doa– .

Laborantza herrikoia eta iraunkorraren aldeko NPA batera heltzeko errokaz galdetuz gero, bidea zaila eta dorpea dela argi geratzen da erantzunak entzunez. "1992ko erreformarekin esperantza ukan nuen baina apenas aldatu zen… inertziak potoloak dira", dio Intxaurrandietak, Cachenautek berriz "biziki urrun joan dira, laguntzak eremuaren arabera banatze hori ez dute aldatuko, tendentzia ez da aldatuko". Hala eta guztiz ere, elkarrizketetan behin baino gehiagotan atera da Europako Batzarrak maiatzaren 20an aurkezturiko *Farm to Fork* edo Baserritik Sardexkara estrategia, bidea irekitzeko aukera gisa planteatuz. Hain zuzen, behingoan ingurumenari eta iraunkortasunari garrantzia bideratzen dio Europak, helburuak ere zentzu horretara planteatuz: hemendik 2030era %50 ttipitu nahi da pestiziden erabilpena eta orokorki, lurren %25 ekologikoan lantzea finkatu du. Horrek "aukera berriak irekitzen" dituela dio Salterainek, argi utziz hala ere "kontraesanak" badirela, tartean merkatuaren liberalizazioa dakarten akordioek bere horretan segitzen dutelako. Nekazaritza

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

herrikoi eta iraunkorraren ikuspegitik helburu interesgarriak jarririk, orain mekanismoak aldatzea da erronka: dirulaguntzen banaketak ere zentzu berera joan beharko du. Lehen zutabe hori irauli beharra da. Dirulaguntzak nekazaritza iraunkorrera bideratu eta Sestorainek gehitzen duenez, "esportaziorako baldin bada dirulaguntzarik ez banatu" eta "ekoizpenak tokiko beharren arabera antolatu". Elkarrizketatu guztiek diote gauza bera: Bruselan eta Estrasburgotik etorri behar lukeen aldaketa itxoitea ez da nahikoa eta aldaketa tokian-toki bideratu daiteke. Eta horretan, "ardura", "eginkizun" eta "eragin" alimalea dute Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak, Euskal Hirigune Elkargoak baita udalek ere. Esparru horiei dagokionez, nekazaritza herrikoia eta iraunkorra sostengatzeko aldera, azken urteetan aldaketa baikorrak egon arren, orokorki tendentzia nagusia nekazaritza industriala sustatzean dela diote. "Eusko Jaurlaritzaren nekazaritza politikan era positiboan baloratzekoak diren aldaketak egon dira, bereziki baserriratzeko prozesuetan; baina oraindik ere baditu nabarmeneko ajeak, oraindik ekoizpen eredu intentsiboa sustatzeko eta babesteko joeran daude. Uste dugu mentalki oraindik instalatuta daudela eredu guztiak posible direnaren ustean eta elkarren artean ez direla talkan eta guk horrekin ez dugu bat egiten", Salterainek azaltzen duenez. Eroskirentzat ekoizten dabilen Almeriako tomate ekoizle multinazional batek Arabako Gaubea herrian asmoa duen 18 hektareako ekoizpen intentsiboa Gobernuak sostengatzea ematen du adibide gisa. Egoera berdintsua da Nafarroarentzat. Sestorainek dioenaz, nahiz eta egon ekimenak eredu iraunkorrera bideraturik, "benetako apustu bat egitea" falta da. Arazo nagusienetarikoa AN lehen Agropecuria de Navarra zena eta gaur egun Alimentación Natural deituriko egiturak duen boterean kokatzen du, nekazaritza politikak bideratzen dabiltzalako. Adibidetzat, Nafarroako Ubidea aipatzen dute Intxaurrandieta eta Sestorainek. Itoizko urtegitik Nafarroa hegoruntz doan ubidea, bertako 53.000 hektarea lur lehor ureztatzeko. Alde baikor gisa edozer gauza ekoizten ahalko dela dio Intxaurrandietak, baina azpiegitura eta aurrekontua ikaragarriak direla. Nekazariarentzat ere inbertsio handia da, ura pagatu beharko duelako eta ekoizpenaren arabera, agian ez delako errentagarria. Zentzu berera doa Sestorain: hori horrela, nekazari ttipiek lurrak agroindustrial handiei saldu beharko dituztela dio, "latifundizazio" egoera deitoratuz: "Gaur egun ekoizpen eskubidea handien esku da".

Euskal Hirigune Elkargoan behintzat elikadura burujabetzaz hitz egiten da eta funtsean, aurtengo otsailaren 22an aurkeztu txostenean Ipar Euskal Herriarentzako elikadura proiektu bat adostu dute, "kontsumitzaileen ohitura eta eskaera berriei egokitua, geroz eta gehiago tokian tokiko horniketa lehenetsiz, ingurumena errespetatuko duena eta ekoizleen errentari dagokionez axola izango duena". Argiki diote: "Egitasmoak helburutzat du lurraldearen elikadura burujabetza". Horren alde lanean aritu nahi dute beraz eta txalotzekoa da.

EHLG ere dabil xede horrekin hasieratik eta bi pertsona dabiltza helburura heltzeko bidea lantzen. Hauen artean dugu Iriart eta azaltzen duenez lurra eta elikaduraren arteko loturari so dira. Laborantza lurrak desagertuz doazen heinean, ondoko elementua jakin nahian dira: 2050ean bertatik bertako herritar guztiak elikatzeko gisan zenbat lur beharko dugu? Turismoak pisu handia ukanki, turistak ere jarri dituzte kalku-

JOÃO JESUS

luetan, bertan elikatzen diren guztiak kontutan hartzeko gisan. Oinarritzat bi plater ukango dituzte: bata, orain arteko elikadura ohiturarena eta bestea, naturak eman dezakeenari egokituta, "dakigulako guztiak gu bezala elikatzen balira ez litzatekeela iraunkorra munduarentzat eta ez genukeela aski baliabide naturalik". Noski, elikadura guztia laborantza herrikoian eta iraunkorrean oinarritua litzateke. Ekoizpenaren antolaketari ere begira jarri beharko dira, gaur egun ardi eta behi hazkuntza delako nagusi Ipar Euskal Herrian eta demagun, barazkiei dagokionez beharren %5 bakarrik delako bertatik asetzen.

Lurraren erronkari dagokionez, "ezkorrago" dela aitortzen du Cachenautek. Instituzioek eta herriko etxeek horri begira ardura handia dutela dio: "Ez dut sentitzen lotura egiten dutenik behar dugun laborantzaren eta lurren babestearen artean. Eraikuntzak manatzen du guztia eta hori arazo handia da, lur bat desagertzen denean usu betiko delako desagertzen". Etxebizitza politika berrikusteko premia ikusten du itsasuarrak. Lurren antolaketa, dirulaguntzen banaketa, ikastetxe zein zaharren egoitzetako sukalde kolektiboen horniketa, udalek asko egin dezakete elikadura burujabetzaren bidean. "Botere publikoek busti egin behar dute; beraiek izan dira hau dena norabide batetan eraman dutenak eta orain egin behar dute gauza bera baina kontrako norabidean, lagundu egin behar dute" Sestorainek dionaz. Hori erraterakoan, batez ere Nafarroako Gobernuaz ari da, baina udalei ere eskatzen dizkie aldaketak. Eztabaida "lurreratzeko", hots udaletaraino eramateko garrantzia ikusten dute guztiek: "elikadura burujabetza posible den aztertzeko eta gero hortik antolatzeko", Salterainen ustez. Zentzu horretara lanean dabiltza batzuk, tartean Nafarroako Mendialdea mankomunitatea.

HERRITARREN PRESIOA

Maila lokaletik haste, agroindustriak sekulako botere eta eragina du instituzioen gain. Hori horrela, guztien ahotarik aterabide bera entzuten da: herritarren presioa. Vandana Shiva ekofeminista indiarraren hitzak gogoraratzen ditu Intxaurrandietak: "Egunean hiru aldiz egin dezakegu iraultza: gosarian, bazkarian eta afarian". Azkenean, erosten dugunaren arabera, eredu bat ala bestea sustatzen dugulako. Kontsumo ereduari dagokionez, aldaketa baikorrak sendi dituzte guztiek, tokikoa eta kalitatezkoa kontsumitzearen ideiak geroz eta leku gehiago hartzen duelako herritarren artean. Baina horrez gain, herritarrek instituzio publikoen erabakietan eragiteko boterea ere dutela diote. Transgenikoen gaia dugu adibide on bat: Ipar Euskal He-

rrian transgenikoaren ekoizpena debekatua da eta hori herri mugimenduari esker lortu zen, duda gabe. Hego Euskal Herrian aldiz kantitate handian dira, batez ere Nafarroan –9.166 hektarea ziren 2019an, hegoaldean kokaturik–. Sestorainek argi du: "Baldin badago nekazarien, kontsumitzaileen eta udalen aldetik bulkada bat, elkarrekin eramana eta antolatua, Nafarroako politiketan eragin daiteke. AN bezalako botere faktikoak eragiten du, eta guk antolatu behar dugu kontrako norabidean indarra egiteko eta egiazko aldaketak bideratzeko". "Kontra-botere efektibo" gisa kokatzen du Salterainek ere jendartea, kontsumoa "elementu eraldatzaile garrantzitsua" delako.

EAEn 1999tik 2009ra 8.150 baserri desagertu dira, %33 jaitsi da kopurua; 2009tik 2019ra Nafarroan 9.000 dira desagertu, %36 apaldu da; eta Ipar Euskal Herrian ere 2000tik 2010ra 840 gutxiago dira, baserrien %25a

LABORARIAK BEHAR DIRA, ANITZ

Helburua betetzeko laborariak beharko dira eta kantitate handian. Azken urteetako tendentzia irauli behar litzateke – EAEn 1999tik 2009ra 8.150 baserri desagertu dira, %33 jaitsi da kopurua; 2009tik 2019ra Nafarroan 9.000 dira desagertu, %36 apaldu da; eta Ipar Euskal Herrian ere 2000tik 2010ra 840 gutxiago dira, %25a–. Tendentzia beste aldera bideratu behar da, Salterainek ohartarazten duenez, bestela agroindustria jarriko delako eskaerari erantzuten. Arabako Gaubea herriko tomate ekoizpen proiektua jartzen du adibidetzat: "Iraunkortasun ikuspegiarekin janzten dute, *'0 kilometro'* kontzeptuarekin, dakitelako kontsumitzaileek baikorki baloratzen dutela, baina kontzeptu hori perbertitzen dute, bakarrik distantzia fisikora mugatzen dira, inondik inora kontutan hartu barik nola ekoizten den eta zer inpaktu ukanen duen inguruko ortugintzan".

Baserrian lanean hasteko bideratu dirulaguntzak jasotzeko baldintzak berrikusi behar direla diote elkarrizketatu guztiek. Gaur egungo ikuspegiari segi, inbertsio ikaragarriak egin behar dituelako laborantzan abiatzen denak eta ekoizpen hein oso handia galdetzen zaielako. Etxalde ttipi bat bizigarria izan daiteke, kalitatea lehenetsiz eta salmenta zuzena eginez eta dirulaguntzak horretara bideratu behar direla diote. Nola ez, lurrak eta baserriak eskuratzeko bidea ere erraztu behar zaie gogoa dutenei –tartean, lurraren espekulazioa geldituz–. Azkenik, eta garrantzia handikoa, lanbide hau baikorki baloratzeko beharra: "Baserritar izatea karga bihurtu da eta laborari izatea ezin da karga bat izan, laborari izateak izan behar du ofizio erakargarri bat, harrotasunez egingo duzuna eta gainera modu duinean bizitzeko aukera emango dizuna –eta duintasuna ez da neurtzen bakarrik dirutan–, Sestorainen hitzetan. "Buruko txiparen aldaketa" beharrezkotzat du, argi duelako "zoriontsu bizitzeko aukera" dela nekazari izatea. ●

koop57 SCCL
finantza zerbitzu etiko eta solidarioak
Mundu berri bat!
euskalherria@coop57.coop
943 005 680
coop57.coop

Mahala
BASERRIKO PRODUKTUAK
jan baserritik

www.mahala.eus
info@mahala.eus - 943 670 724

ITSAS MENDI Karabanak eta autokarabanak

Europako marka garrantzitsuenak:
KNAUS, HYMER, BENIMAR, PILOTE.
Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua
itsasmendi@itsasmendi.com / www.itsasmendi.com
Errep. Nazionala 1 - 20140 Andoain (GIPUZKOA)
Tel. 943 59 32 90

2040:
PANDEMIAREN
OROITZAPENAK
ZURRUT
GAUR 6.SEKTOREKO ZINTA TRABATU ZAIGU BERRIRO...
EZIN DUT SINETSI... LANGILEAK AURREZTEKO JARTZEN DITUZTE

ETA AZKENEAN LANGILEOK LAN BIKOITZA EGITEN AMAITZEN DUGU...
ZURRUT
UGH, SALDA HAU GEROZ ETA NAZKAGARRIAGOA IRUDITZEN ZAIT!
BEHINTZAT KILKER-LATA HANDIA JARRI DIGUTE GAUR!
EZIN DUT SINETSI...
ILARRA!
EZINEZKOA DA! URTEAK DIRA ILARRIK JATEN EZ DUDALA!
AHH... ETXEKO LORATEGIAN LANDATZEN NITUEN TXIKITAN
2020KO UDABERRIA GOGORA EKARTZEN DIT HONEK...
NIRE HAURTZAROKO EGUNIK ZORIONTSUENAK ...


GURASOEK INOIZ BAINO DENBORA GEHIAGO PASA ZUTEN NIREKIN
AITAK ETXETIK EGITEN ZUEN LAN
KIROLA KALEAN EGITEA DEBEKATU ZUTENEZ NIREKIN ARITZEN ZEN JOLASEAN . . .

GLUP GLUP
RIIING
EZIN DUGULA ORDAINDU! MOZTU EZAZUE BA ARGINDARRA!
AFARIA EKARRI DIZUT... ZERBAIT JAN BEHAR DUZU...
AMA...
AIZU! AIZU! ONDO AL ZAUDE?
PAULA ESTÉVEZ

FAMILIAK ALARMA-EGOERAREN OSTEAN

Pandemiari biziraun eta gero, lanetan itotzear

Koronabirusak bistan utzi ditu sistema kapitalistaren josturak, eta edonork esango luke horiek erreматatzeko xedea izan duela agintariek egindako osasun krisiaren kudeaketak. Bizitza eta kapitalaren arteko norgehiagokak goia jo duen osasun larrialdi egoeran ere, gobernuetatik alor ekonomikoaren alde egin dute postura, bizitzaren sostengua besteren kargu utziz. Egiteko horren zati handia familiengan erori da; konfinamendua agindu zenetik, eta eskolen euskarria faltan, hainbat etxetan larri dabiltza soldatapeko lana eta lan erreproduktiboak uztartzeko eginkizunean. Lan zama hori eremu pribatuan nola eragiten ari den jakin asmoz, zenbait etxetako atea jo dugu, itaun nagusi bat buruan: familiek badute gaitasunik egungo zaintza lanen kargari eusteko?

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

CAMILA ARAVENA

Pandemia bilakatuta heldu zitzaigun urte hastapenetan COVID-19a. Gaur artean sendabiderik aurkitu ez zaion gaitza parez pare eta urteetako murrizketen ondorioz ahuldutako osasun sistema publikoa kolapsatzetik gertu, inoiz baino argiago begiztatu ahal izan dugu zaurgarri garela eta zaintza lanak ezinbesteko ditugula. Inork dudarik bazuen, osasun larrialdi egoerak zalantzak uxatu ditu: bizitzaren sostengua dugu biziraupenerako eginkizunik funtsezkoena. Alabaina, begi-bistakoari ezikusi eginez segi dute agintariek, eta osasun larrialdi egoeraren aurrean hartu dituzten neurrietan logika kapitalistak nagusitu dira beste behin; Kapitala Vs. Bizitza gatazkan are gehiago sakonduz, ororen gainetik ekonomiaren osasuna lehenetsi duen gestio politikoa egin dute. Hala, indartu egin da atzeragotik zetorren zaintza krisia, eta bizia sostengatzearen eginkizuna, biderkaturik oraingoan, lehengo lepo beren gainera erori da. Eta ezagun denez, lepo horien artean emakumeak dira nagusi.

Esparru publikoan argi ikusi da nola sektore feminizatuetako –eta hargatik prekarizatuetako– langileak izan diren, hein handi batean, gau eta egun osasun krisiaren lehen lerroan lanean aritu direnak: erizainak, erresidentzietako langileak, etxeko langileak, kutxazainak... Ohikoan ikusezin izatetik lehen planoan egotera igaroz, gizarteak funtsezko dituen egitekoak gehien debaluatu ohi direnak direla argi utzi dute. Etxeko lau pareten artean ikusezin bilakatuta, zaintza krisiaren areagotzeak eremu pribatuan izandako eragina antzematea zailagoa da lehen begi-kolpean. Pribatutasunean muturra sartuz gero, baina, lan erreproduktibo artean itota datza familien –eta bereziki horietako emakumeen– gehiengo handiak. Izan ere, osasun krisiak zaildu egin du aurretiaz ere konplexu eta nekeza zena: ordainpeko lana eta lan erreproduktiboa –hots, ordaindu gabeko lana– uztartzea. Konfinamendu agindua indarrean jartzearekin batera eskolak itxi izanak, eta haurren zaintza lanetan lagungarri izan ohi diren aitona-amonak arrisku sektore izendatzeak, etxeko eta zaintza lanak kudeatzeko pisutsuak diren bi euskarriren faltan utzi zituen familiak. Ordutik, egoera zertxobait laxatu bada ere, alimaleko handitzea pairatu duen lan kargari hala moduz aurre egin beharrean aurkitzen dira.

Egoera puntuala zela ondorioztaturik eta gauzak lehengora bueltatu artean, etxeetan ahal bezala moldatu dira errealitate horretara. Koiunturala zirudien egoera espero baino gehiago luzatzen eta sakonki eragiten ari da ordea, eta egungo testuingurua familiak egoera honetara bultzatu zituen berbera ez den arren, biharko egunean etxeetan pilatutako lan zama arintzea ahalbidetuko duten baldintzak emango ote diren, ez da ziurra. Eta bien bitartean, ez dirudi gobernuek familien egoera hobetzeko deus egiteko asmorik dutenik. Egoera horren aurrean, etxeetan ozta-ozta eta egoera prekarioan eusten diote kronifikatzen ari dela dirudien egoerari. Telelanaren aukera duten kasu apurretan ere –aukera bat klase zeihartasunak zeharkatzen duena–, bateko eta besteko lanak uztartzea helburu ia lorrezina bilakatu da.

Koiunturala zirudien egoera espero baino gehiago luzatzen eta sakonki eragiten ari da

"Konfinamenduak lana eta zaintzaren arteko tentsioa larriagotu du, eta hala ere, nahiko eraginkorra izan da gaizkiagotutako tentsio hori izkutatzen", egin zuen irakurketa Inés Campillo soziologoak *El Salto*n. Hausnarketak gogora ekarri diezaioke bati Silvia Federiciri ikasia: nola familien baitan gauzatzen den, ezkutuan eta isilik, makineria kapitalistak martxan segitzeko beharrezkoa duen lana. Federicik *Kaliban eta Sorgina* saiakeran azaldu zuenez, kapitalismoak, ordena sozial gisa egonkortzeko, lurren itxiturak bakarrik ez, besteak beste emakumeen gorputzen itxiturak ere ezinbesteko izan zituen. Lursailak hesituz landatarrei lan bitartekoak desjabetu zitzaizkien era berean –horiek produkzio kapitalistaren menera ekarriz–, sorgin-ehizaren bitartez emakume gorpuak hesitu ziren, eta mendeko estatusa eman zitzaien emakumeen posizio sozialari eta egin ohi zuten lanari. Hala, lan erreproduktiboak ekonomia esparrutik at kokatu eta debaluatu egin zituen sistema eratu berriak. Horrekin guztiarekin batera, lurren itxiturak bizitza komunala zartatzea ere ekarri zuen, harremanak hesituz eta familia nuklear deritzoguna indartuz. Hesitutako familiaren baitan ikusezin eta doako bilakatu ziren jada debaluatutako erreprodukzio lanak, makineria kapitalistaren martxari eusteko ezinbestekoa den lan indarraren iturri direnak; eta horrela bilakatu zen familia kapitalismoak emakumeek egiten duten lanaz jabetzeko daukan instituziorik garrantzitsuenean.

Krisialdi berri baten testuingurua zimendatzen ari den honetan, gehiengoaren bizkarretik eusteko bere buruari, kapitalak herritarrei gerrikoa estutuko diela aurreikustekoa da. Bide horretan,

orain artean bezala, familiak giltzarri izango zaizkio, eta azken hilabeteotan eremu pribatuan jazotako aldaketak abiapuntu mesedegarri suerta ahal zaizkio. Konfinamenduak berekin ekarri dituen aldaketen artetik gelditzeko etorri direnak ba ote dauden eta zein diren zehazteko oraindik goizegi izan badaiteke ere, gauza bat eztabaidaezina baita: familien lepotik, makineria kapitalistak doan ateratzen zaizkion lanen zerrenda handitzea lortu du.

CHARLES DELUVIO / UNSPLASH

FAMILIA NUKLEARRETAN GENERO ARRAKALAREN AREAGOTZEA

Eustaten *Generoa eta denboraren erabilera* txostenaren arabera 2013an emakumeek, batez beste, beren denboraren %15a eskaintzen zioten etxeko lanei eta zaintzari; gizonek, bataz beste, beren denboraren %7a eskaintzen zioten bitartean. Urteen igaroarekin ehuneko horietan gorabeherak eman ahal izan badira ere, desparekotasunak indarrean segi du, eta datuek adierazten dutenez, azken hilabeteetan indartu egin da. Empar Aguado eta Cristina Benlloch soziologoek konfinamendua indarrean zela abiatutako *Denboraren erabilera konfinamenduan* ikerketaren lehen behaketek adierazten zutenez, gure jendartean nagusi den familia eredu nuklear eta heterosexualean erreprodukzio lanen karga handitzeak genero arrakala areagotu du, haurrak dituzten etxeetan bereziki. Horren azalpena Lidia Farré eta Libertad Gonzalez ekonomialariek burututako inkestaren emaitzetan aurkitu daiteke: eremu pribatuan ebatzi beharreko lana ugaritu bada ere, lanen banaketa oso gutxi aldatu da. Orain gizonezkoek denbora gehiago eskaintzen badiote ere soldatapekoa ez den lanari, emakumeek segitzen dute egitekoen gehiengoaz arduratzen. “Erosketetan salbu, ohikoena da emakumea izatea zeregin guztien arduradun nagusia, gizona ordez”, diote. Egoera berrian antolaketa molde zaharrari eusten diote familiek, eta hori hala da emakumeak direlako beren lan jarduna gehien malgutu dutenak egoera berrira egokitzeko.

Ikerketen ondorioak baieztatzera dator Laura Vegaren kasua. Bost eta bi urteko bi alaba ditu, ogibidez gizarte hezitzailea da, eta alarma-egoera ezarri zenetik telelanean dihardu berak eta etxetik kanpo lanean jarraitzen du bikotekideak, lanordu erdiz. Eskertuta dago bere lantokian langileei kontziliaziorako erraztasunak eskaini zaizkielako, baina hala ere kritiko agertu da telelanarekin, iruzurra iruditzen zaio: “Normalean egiten duzuna baino hiru aldiz gehiago egin behar duzu, eta hala ere ez zara dena egitera iristen”. Hori bai, ziria sartu diotela uste duen arren, jakitun da berea baino egoera muturrekoagoak badirela: “Zorionez soldata daukat, beste familia batzuek aspektu horretan ere arazoak dituzte”.

Bere ogibideak gordinagoak diren errealitateetatik gertu mantentzen du, are gehiago krisialdiaren ondorioak ageriko egiten ari diren honetan. Izan ere, etxe barruko lanak bakarrik ez, soldataren truk egiten duen lana ere nabarmen areagotu zaio, eta eginbehar horiek guztiak uztartzeko saiakeretan dabil martxotik. Hala ere, hain txikiak diren haurren zaintza tarteko egonik, ez zaio erraza. Lehen etxean zeukaten antolamendua pikutara joan dela dio, eta bere bikotekideari enpresak telelana esleitu ez izanak ez du laguntzen.

Haurren aitak lantokira joaten jarraitu behar izan du alarma-egoera ezarri ondotik ere, ez diote beste aukerarik eskaini. Eszedentziak, lan jardunaren mol-

ELGOIBARREN
euskalgintza eta kulturgintza sustatzen

ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO

Euskara Zerbitzua:
943 744 366 · euskara@elgoibar.eus
Kultura Zerbitzua:
943 742 158 · kultura@elgoibar.eus

Aita Agirre plaza 3, 1. solairua
www.elgoibar.eus · www.elgoibarreraz.eus
www.euskaraalaezkara.eus

DANI BLANCO

daketa... Vegaren iritziz, gaur-gaurkoz ere neurri horiek emakumezkoen kontu izaten jarraitzen dute enpresa askoren begietara: "Nahiz eta kontziliaziorako politika pila bat egin, badakigu oraindik zer gertatzen den. Emakumeoi ahalbidetzen dizkigute, baina ez gizonezkoei, eta horrek eragina dauka: nahi eta nahi ez azkenean beti emakumeengan erortzen da umeen zaintza, eta gainera lan horiek ez dira inon agertzen, existituko ez bailiran". Bikotekidea eguerdian etxeratzen da. Ordura arte bera moldatu behar izaten da lanean den bitartean haurrak zaintzeaz, eta azaltzen duenez, goiza izan ohi da momenturik tirabiratsuena. Hala bada, haurren zaintzaren zati mardula kudeatuta dagoenean heltzen da bikotekidearen sorospena.

> **"Nahiz eta kontziliaziorako politika pila bat egin, badakigu oraindik zer gertatzen den. Emakumeoi ahalbidetzen dizkigute, baina ez gizonezkoei"**
>
> Laura Vega

AMA BAKARREKO FAMILIAK: LAN KARGA BERA, ESKU ETA DIRU ITURRIEN ERDIAREKIN

Guraso bakarreko familien egoera gordinagoa bilakatu dezake soldata bakarrarekin aurrera atera behar izateak, baldintza horietan soldataren eta zaintzen artean hautatzeko aukera bera hauts bihurtzen baita. Deustuko Unibertsitateko zenbait ikerlarik landutako *Familia gurasobakarrak eta bazterketa sozial arriskua* artikuluaren arabera, 2016an EAEko familien %10,47 gurasobakarrak ziren, eta horietatik %8,6tan emakumeak ziren familia buru. Emakumeak nagusi diren familia eredu hori da –hiru kide baino gutxiagoko familiekin batera– pobrezia arrisku handiena duena EAEn, Save The Childrenek 2020ko urtarrilean publiko egindako *Seme-alabak dituzten etxeetako pobrezia-egoeraren azterketa Euskadin* txostenaren arabera. Eztandarazi den krisiak langabezia igotzea eragin duenez, arrisku hori areagotu egin dela ondorioztatu daiteke. Baina etxe barruko lan kargari dagokionean, baliteke familia eredu batetik besterako aldea ez izatea hain esanguratsua. Ama bakarra den Sonia Eraña Corralek dio bi gurasoko familietan lanak banatu daitezkeela eta horrek gauzak pittin bat erraztu ditzakeela, baina bere egoera lagun batzuenarekin alderatuz gero, ez du ezberdintasun handirik antzematen: "Zenbait lagunen kasuan bikoteek jarraitu dute etxetik kanpo lan egiten, beraiek izanik telelanean lan egitera pasa direnak, nire alabaren adin bueltako umeez kargutu bitartean".

Hiru urteko alaba dauka Erañak, eta ingeniaria da. Lantokian telelana egiten hasi zen lehenetarikoa izan zen, berak hala eskatuta. "Banekien zaila izan-

DANI BLANCO

go zela, baina ez nekien zein puntura arte", egin du balorazioa atzera begira jarrita. Bidea ez dio arindu enpresak, erraztasunak ordez exijentziak jaso baititu goitik. Eta zailtasunak gehitu dizkio alaba aitona-amonekin ezin utzi izanak, horiek arrisku sektorekoak izanik ezin izan baitu berengana jo, haurra gurasoekin utziz gero kaltetu egin ahal zituela pentsatze hutsak atzera botata. "Ahizpak ospitalean egiten du lan, hargatik jakin dut errealitatea ez zela telebistan irudikatzen zuten bezalakoa, eta horrek beldurra areagotu dit", dio. Hala bada, bakar-bakarrik atera behar izan ditu aurrera bai soldatapeko lana zein zaintza eta etxeko lanak. Egundoko esfortzua egin arren, baina, erruduntasun sentipena izan du barrandan.

EGOERA SOSTENGAEZINA, ETA ZIURGABETASUNA ORTZI-MUGAN

Sakrifizio bikoitzak erruduntasun bikoitzari eman dio bide bai Erañaren zein Vegaren kasuan. Biek sentitu dute kulpa, dela lan egin ahal izateko haurrak nahiko luketen modura ez zaintzeagatik, dela haurrei jaramon minimoa eskaintzeagatik lanean guztiz produktibo ez izateagatik. "Oso gaizki sentitzera iritsi naiz, nire alabaren beharrizanak lanari ez lehenestearren errudun. Baina bietako bat, edo lan egiten duzu edo haurrak zaintzen dituzu, ez dago besterik", dio Erañak. Telelanean diharduten askok hartutako neurria hartu du guztia egitera heldu nahirik: eskolara joaten zenean baino beranduago oheratzen du haurra, beranduago esnatu dadin, eta bera goizaldeko ordu txikitan esnatzen da, haurra lo dagoela probestuz arreta guztia lanean jartzeko. Edozelan ere, biak datoz bat ondokoan: haurrak etxean eta norbere kargu izanik, ezinezkoa da lantokian bezala lan egitea, lehen bezain produktibo izatea. Horri haurren hezkuntzaz ere arduratu beharra gehituz gero, egoera bideraezina iruditzen zaio Vegari: "Astean zehar, lana amaitu ostean ez naiz alabarekin borrokan hasiko, berarekin jolastu ordez eskolako lanak egin ditzan. Asteburuetan egiten dugu zeozer, orduan baitaukagu denbora gehiago, eta denok gaude etxean". Familiei gauza lartxo exijitzen ari zaizkiela deritzo, eta argi mintzo da: "Horrela ezin da".

Bere denbora non dagoen galdegiten du Vegak, bere egunerokotasuna biziraupenera mugatua ikusita: "Esna-

tu, haurrak jantzi, janaria egin, lanean hasi… horrela egunero, marmotaren eguna bailitzan". Batzuetan etxetik kanpo lan egin nahiko lukeela dio, telelanean aritzeak berarekin baitakar buruan hainbat kontu izatea, eta ondorioz, karga mentala. Eraña ere akituta agertu da; eginbehar guztiak uztartzeko lo orduak murriztu baditu ere, loa galarazten diote kontu hauek guztiek, eta ondorioz gutxi eta gaizki deskantsatzen du. "Nekea pilatuz doakizu, eta tarteka gehiago ezin izatearen sentipena izan dut", aitortu du. Eszedentzia hartzea planteatzera ere heldu dela dio.

"Eszedentziak, telelana… zuek jakingo duzue nola egin, hor konpon", agintariek lan erreproduktiboei dagokienez erakutsitako jarrera kritikatu du Vegak. Soldatapeko lanari dagokionez gauza asko moldatu dituztela deritzo, baina soldatapekoak ez diren lanak gainetik kendu dituztela dio, arlo pribatuan kokatu eta etxeko kontutzat joaz.

Indarrak gutxitzen eta epe motzerako behar zuen egoera luzatzen joan ahala, etorkizun hurbilari begira jarriak dira biak, baina zeruertzean ziurgabetasuna da nagusi. Eraña eta Vegak, biek antzerako bidetik ikusi dute beren lan karga arintzeko aterabidea: ikastetxeen irekiera, dela eskolak emateko zein haurrak zaintzeko, eta talde txikietan behar izatera. Agian zaintzaile eta irakasle gehiago kontratatu beharko liratekeela dio batak, gurasoen artean antolatzeko aukera ere hor dagoela, besteak. Hala ere, bat datoz haurrak tarte batez bitartekoen eskuetan uztea ahalbidetuko luketen espazioak sortzeko beharrean.

KOMUNITATEAREN BALIOA NABARMENDUZ

Esku gehiagoren beharra, beraz, Vega zein Eraña adieraztera datozena. Interdependente garela eta komunitatea ezinbesteko dugula, hori ere egin baitu ageriko koronabirusaren agerpenak. Horren adierazle argiena ditugu tokian toki sortu diren elkartasun sareak, gainontzekoengandik isolatzeak aterabidetik gutxi duela jakitun, lehen momentutik elkar babesaren aldeko apustu egin dutenak. Alabaina, etxeetan bizi den lan kargak adierazten duenez, komunitatearen babesari oztopo zaio familiaren eta etxeko pribatutasunaren bueltan orain bost mende eraikitako horma.

Kontrara, koronabirusak azaleratutako krisiaren aurrean abantailaz joka-

tu ahal izan dute beren bizia modu komunitarioagoan oinarritzearen aldeko hautua egina zutenek. Bartzelonako La Borda etxebizitza komunitarioko bizilagun Joana G. Greznerrek *Pikara Magazine*n azaldu duenez, beren kasuan "elkar babesa ez da hutsetik egituratu behar izan, geure artean eta beste proiektu batzuekin elkarbanatzen dugun egitura sozial eta fisikoaren ardatza baita". Irteera-puntu horretatik abiatu izana lagungarri suertatu zaiela adieraztera dator bizipenaren nondik norakoez egiten duen deskribapenak.

Egoera egungoa bezain muturrekoa izatera iritsi gabe artean, kapitalismo basatiaren aurrean feminismoa eta komunen politika proposatzera zetozen Federicik ARGIAren 2643. zenbakian egindako adierazpenak ere: "Hortxe dago lanak gizonekin elkarbanatzearen aukera, baina zer gertatzen da ez badugu ondoan gizon bat? Bakarrik bizi bagara? Edo beste emakume batekin? Noski gizonek lanak emakumeekin elkarbanatu behar dituztela, baina hori ez da konponbidea. Gakoak antolatzeko modu komunitario eta kolektiboagoan datza". Duela urte bete pasa egindako adierazpenek are zentzu gehiago hartu dute orain, zaintza krisia

DANI BLANCO

are sakonago bilakatuta eta krisialdi berri bat ate joka dugula. Federiciren azalpenak oinarri hartuta, komunitarioagoak diren antolamenduen alde apustu egiteak ekidin ahalko liguke, hein handi batean, gehiago zukutuko gaituzten itxiturak pairatzea; eta ondorioz, besteren artean, lan produktibo eta erreprodukti-bo artean itotzea.

Komunitatea balioan jartzea, familia birdefinitzea... errealitate bizigarriago baterantz bidea norabide horretan dagoela pentsatzeko arrazoiak badira, nahiz eta osasun krisiak zabaldutako hutsartetik etorkizunari behatzerakoan ziurgabetasuna gailendu. Ezbai horretan iparrorratz izan daitezke Greznerren hitzak: "Bizi duinaren aldeko zeharkaldi komuna elkarbanatzen eta gozatzen aritzearen ziurtasunak ematen du indarra eta poza ziurgabetasunean nabigatzen jarraitzeko". ●

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

✆ 943 37 11 50

20170 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

Beste pandemiak

Ngegbaren familia ebolaz kutsatutako lehena izan zen Moyamban, Sierra Leonako hegoaldean. Birusa Abiren neba zaharrenaren gorputzean iritsi zen hirira. Mutil apal eta aplikatua, medikuntza ikasi eta zirujau bihurtu zena. Bisturien eta odol transfusio desesperatuen arteko borroka ez parekatu hartan kutsatu zen.

Abik nebaren argazki bat erakutsi nahi izan zidan. Mediku gisa graduatu zen egunekoa. Haren ondoan zegoen, irribarretsu eta harro. Mina handiegia zen, ordea, orduan bezala irribarre egiteko –ebolak aita eta neba nagusiak hil berri zituen–. Egunen batean Abik ikasketak egiterik bazuen, nebarengatik egingo zuela zioen.

XAVIER ALDEKOA

PAPERAK DENONTZAT!

Sistematik kanpo utzi dituztenen aldarria

MIKEL GARCIA IDIAKEZ DANI BLANCO

Pandemiak ikusgarriago egin du migratzaile askoren errealitatea: bazterkeria sozialera, lan baldintza ankerretara eta arrazakeria polizial eta instituzionalera kondenatzen ditu legeak berak, pertsona ilegaltzat dituelako. Nolatan normalizatu dugu pertsonak oinarrizko eskubiderik gabe uztea, beren jatorriagatik? Kolektibo migratzaileek ozen esan dute: aski da, legalizatu egin behar da egoera irregularrean daudenen egoera (guztiena eta eskubidez, ez sektore batzuetan lan egiten dutenena bakarrik, behar ekonomikoei erantzuteko). Epe luzera, arrazista eta bidegabea den legea aldatzea dute erronka.

Pandemiaren ondorioei aurre egiteko egoera okerrenetakoan daude migratzaileak, argi geratu da hilabeteotan: lan prekarioenak egiten dituzte –kurioski, baita oinarrizko direnak ere, zaintzari lotutakoak kasu–, sarri etxebizitzetan pilatuta bizi dira, Poliziaren indarkeria gehien sufritzen dutenetakoak dira... Eta asko egoera irregularrean daudenez, babesgabe daude. Esaterako, zaintzan edo garbiketan etxeko langile aritzen diren emakumeei kontratua eten diete konfinamenduarekin batera eta ezin izan dute ez bajarik hartu ez langabeziara jo. Berdin lanean beltzean aritzen diren eta kaleratuak izan diren migratzaileak, beltzean aritzen direnez eta paperik ez dutenez, gainerako herritarrek (autonomoek, enplegua modu batera edo bestera galdu dutenek...) jaso dituzten dirulaguntzetatik kanpo geratu baitira. Jakina, beltzean aritzen dira ez beraiek nahi dutelako, legeak horretara behartzen dituelako baizik: hiru urtez ilegal eta klandestinitatean aritu behar dute, eta hiru urte horiek pasata has daitezke errotuta daudela frogatzen, paperak eskuratzeko.

Hain juxtu, euren egoera erregularizatzeko prozesuan zeudenentzat traba bat gehiago izan da koronabirusaren krisia, eten egin baitiete prozesua, egoera luzatuz –prozesu guztia hasieratik berrabiatu behar izan du hainbatek–. Transito betean zeudenentzat ere sekulako oztopoa izan da konfinamendu garaia eta mugen erabateko itxialdia. Aterpeak, kiroldegiak eta bestelako espazioak ireki zituzten, bai bidean zeuden horientzat, bai kalean bizi direnentzat, baina baldintza kaskarrak salatu zituzten aterpe batean baino gehiagotan, jendea gelatan pilatuta zeukatela-eta.

Ondorio nabarienetakoa izan da asko eta asko diru-sarrerarik gabe geratu direla egun batetik bestera, eta hori kolpe latza izan da bizimodu prekarioak daramatenentzat. Manteroak adibidez ezin kalean saldu geratu dira bolada luzez –"Normaltasun Berria" delakoan ere zaila dute lehengo martxa berreskuratzea–. "Egunekoarekin bizi dira asko, eta eguneroko hori erortzen denean, akabo. Ezin alokairua ordaindu, ezin jatekorik erosi, ezin mugikorra erabili eta beraz ezin komunikatu... geratu dira", kontatu digu Mbolo Moye Doole Bilboko mantero senegaldarren elkarteko kide Khadim Sambek.

"Eskubide guztiak denontzat" aldarrikatzen.

BOUBA DIOUF

Mbolok eta beste hainbat kolektibo migratzailek autogestionatutako erresistentzia kutxak sortu dituzte konfinamendua hasi eta gutxira, zailtasun handienak dituztenen beharrei erantzuteko asmoz. Ekarpen ekonomikoaz gain, zaintza sare antiarrazistak, bizilagun eta elkartasun sareak, sexu langileentzako baliabideak, inongo kolektibotan ez dauden migratzaileengana iristeko bideak... garatu dituzte, sasoi honetan.

ERREGULAZIO MASIBOA, BEREHALAKOA ETA IRAUNKORRA

Erresistentzia kutxek eta laguntza sareek pandemiaren kolpea arindu duten arren, muinari ere heldu diote kolektibo migratzaileek: paperik ez izatearen ondorio zuzena baldin bada jendea eskubiderik gabeko bizitza prekario eta babesgabeetara bultzatzea, paperak aldarrikatu behar dira guztiontzat. Dagoeneko herrialde ugaritara zabaldu den aldarrikapena da eta gurean Mugimendu Antiarrazistak eta Emakume Migratu eta Arrazializatuen Euskal Herriko Sareak kaleratu zuten manifestua, erregularizazioa eskatuz. Astebetean, Euskal Herriko 60 eragile baino gehiago atxikitu ziren manifestura. Aldarrikatzen dute erregularizazio berehalakoa, baldintzarik

ECUADOR ETXEA

Polizia gehiegikeria arrazistak salatzen.

gabekoa, ezohikoa –legeak baimentzen duelako egoera berezian interes publikoaren eta segurtasun nazionalaren izenean egoera irregularrean daudenak legeztatzea, eta osasun pandemia bada egoera berezia–, iraunkorra –alegia, ez adibidez pandemiak irauten duen eperako bakarrik–, eta zabala –denentzat–.

Inportantea da azken ezaugarri hori azpimarratzea, sektore batzuetan lanean ari diren migratzaileak bakarrik erregularizatzeari ekin baitiote hainbat herrialdetan –adibidez landa eremuan frutak biltzen aritzen diren migratzaileen eta osasungintzan ari direnen egoera erregularizatu dute Espainiak eta Italiak–. "Eskubideak onartzeko modu arrazista da merkatuak bultzaturiko erregularizazioa, sektore ekonomiko jakinetan dituzten beharrei erantzuteko erregularizatzen delako jendea, inork egin nahi ez duen lana egiten segi dezaten migratzaileek. Prekarietatea eta esplotazioa mantentzen dituen logika kapitalistari erantzuten dio erregularizazio mota horrek eta gainera jende migratua beste arlo batzuetan garatzea galarazten du", azaldu digu Emakume Migratu eta Arrazializatuen Euskal Herriko Sareak.

Ekonomia abiapuntu duen erregularizazioa "jendea erabiltzea" dela gaineratu du Jessicak. Migratzaileen alaba eta aktibista da bera: "Pertsonen balioa ezin dugu lan indarraren arabera neurtu. Landa eremuan lan egiteko aukera ez duenak ez du eskubiderik hemen nazionalizatzeko? Emango dizkizugu paperak gure herrialdeko ekonomia sostengatzen lagundu diezaguzun, eta gero hor konpon. Horrelako proposamenak ez zaizkit buruan sartzen".

> **"Eskubideak onartzeko modu arrazista da sektore ekonomiko batzuetan dituzten beharrei erantzuteko jendea erregularizatzea, inork egin nahi ez duen lana egiten segi dezaten migratzaileek"**
>
> Emakume Migratu eta Arrazializatuen EHko Sarea

"JUSTIZIA ALDARRIKATZEN DUGU"

Berehalako erregularizazioak migratzaile eta errefuxiatuentzako eskubide guztiak bermatzea eskatzen du pertsona migratzaile eta antiarrazisten nazioarteko sarearen manifestuak, "gainerako herritarren pare". Deportazioak etetea ere exijitu dute, "gure eskubideez beldurrik gabe gozatu ahal izateko". Mundu humano, zintzo eta inklusiboagoranzko bidea egitera deitu dituzte munduko gobernu eta agintariak. "Gure lanak sortzen duen ongizateaz gozatzeko beste herrialde batzuetara mugitzeko eskubidea dugu. Gobernu eta korporazioek gure jatorrizko herrialdeak arpilatu dituzte mendez mende, eta lapurreta horrek jarraipena du gaur egun, gerrak, go-

sea eta suntsiketa ekologikoa eraginez".

Justizia aldarrikatzen dutela diote manifestuan. "Justizia migratzen duten guztientzat, euren senide eta komunitateak atzean utziz, esplotazioa, espetxeratzea eta deportazioa sufrituz. Justizia itsasoak, mendiak, basamortuak eta mugak gurutzatu nahian hil direnentzat. Justizia bortxaketak, torturak eta gerrak jasan eta biziraun dutenentzat".

"Ezin diogu indarkeriari eta COVID-19ari baldintza berdinetan aurre egin, erabat arrazistak eta neokolonialak diren legeetan gure eskubideak aintzat hartzen ez badira. Jasaten ditugun esplotazioa, diskriminazioa eta abusua arbuiatzen ditugu eta haien kontra egingo dugu".

BADIRA AURREKARIAK, ORAIN ZERGATIK EZ?

Frantziako Estatuan bertan, 180.000 herritarren egoera legeztatu zuten 1981ean eta 80.000 biztanlerena 1997an. Itun europarra aipatu dute agintariek, herrialde bakoitzak erabakia hartzeko aitzakia gisa, baina borondate kontua dela ziur dira manifestuaren bultzatzaileak. Beldur nagusia Mendebaldeak migratzaileei zor dien errepazio historikoa dela uste du Emakume Migratu eta Arrazializatuen Sareak: "Ez diete euren pribilegioei muzin egin nahi, gure jatorrizko lurraldeetatik ateratzen duten aberastasunari". Galdera zuzena egin dute Sareko kideek: "Zeini egiten dio mesede migratzaileak ez erregularizatzeak, jende bat paperik eta eskubiderik gabe mantentzeak? Milaka lagun egoera irregularrean izateak bultzatzen ditu lan prekarioagoak onartzera, edozein baldintzatan. Esplotazioari etekin ekonomikoa ateratzen diotenak dira onuradunak".

> **"Oso hipokrita da lege bat izatea diseinatuta Hego Hemisferioko jendea etor ez dadin, baina gero jende hori eskuzabal hartzen dute baldintzarik okerrenetan lan egiteko"**
>
> Jessica

Halere, eskaera aurrera aterako den esperantza dute kolektibo bultzatzaileek. Espainiako Estatuan 1.000 eragile baino gehiago batu dira eskaerara eta dirudienez irailetik aurrera eztabaida zabaldu daiteke Madrilgo parlamentuan, 600.000-800.000 lagun ingururi eragingo liekeen erregularizazioaz. "Ez da erraza izango –aitortu digu Emakumeen Sareak–, herritarrek ez dutelako afera hau lehentasunezko jotzen, eta horregatik denbora honetan guztian, indarra egiten eta informatzen jarraitzea beharrezkoa da; gizarteak egin dezakegun presioa inportantea da". Frantziako Estatuan, 600 eragilek baino gehiagok sustatu dute aldarrikapena eta Etorkinekin elkartea Pirinio Atlantikoetako suprefetarekin elkartu zen maiatzean, gaia aintzat har dezala eskatzeko. Suprefetarengandik baina, erantzun eskasa izan zutela azpimarratu du Etorkinekin elkarteak.

BESTELAKO LEGE BAT BEHAR DUGU

Sakonean, legea bera da arazoa, Europako herrialdeetako Atzerritartasun Legeak lege arrazista eta bidegabeak direlako, pertsonak urte luzez egoera ilegalera kondenatzen dituztenak. Beraz, legea ezabatu eta beste norabide bat izango duen araudia ere exijitu dute kolektibo migratzaileek. Jessicaren iritziz,

Europako Batasunak mugak are gehiago gotortzeko eta jendea errazago kanporatzeko neurriak hartu ditu uda honetan.

GORKA RUBIO / FOKU

"oso hipokrita da lege bat izatea diseinatuta Hego Hemisferioko jendea etor ez dadin, baina gero jende hori eskuzabal hartzen dute baldintzarik okerrenetan lan egiteko. Arrazakeria hutsa da eta ezin da horrelako lege bat mantendu, ez dielako herritarrei garatzen eta aurrera egiten uzten. Ez da normala hainbeste urte igaro behar izatea nazionalizatzeko, hain burokrazia geldoa jasan behar izatea jendeak, lasai bizitzeko".

Herritarrok ere, pertsona batzuk ilegalak izan daitezkeela normalizatzera iritsi garela dirudi. Hori nola den posible galdetu diegu Emakume Migratu eta Arrazializatuen Sareko kideei, eta bueltan etorri da pilota: "Galdera ez diguzu guri egin behar, guk zuei baizik: zergatik ohitu zarete instituzioak, eragile sozial politiko eta kulturalak, gizartea bera, herritar migratzaileak ikustera eskubiderik gabeko herritar gisa?". Erantzuna egiturazko arrazakerian aurkitu behar dugula gaineratu dute, 500 urte baino gehiago baitaramatza arrazakeriak instituzionalizatzen: "Pertsona beltz eta indigenen deshumanizazioa ekarri zuen eta imajinario hori guztia barruan daramagu oraindik. Migratzaileak ingelesak edo alemaniarrak balira, ez litzateke begirada aldatuko?".

POLIZIAK BEGIZ JOTA

Egiturazko arrazakeria da baita ere Poliziarengandik jende arrazializatuak jasotzen duen tratua. AEBetan George Floyd herritar beltza hil zuen maiatzean Poliziak, eta nazioartera zabaldu zen mugimendua piztu zuen horrek, baina ez dugu ahaztu behar gurean ere Poliziaren gehiegikeriak sistematikoki sufritzen dituztela herritar arrazializatuek. Pandemia garaian, gainera, areagotu egin dira gehiegikeria hauek. Kontrolak handitu dituzte, eta bultzadak, irainak, botere abusua batez ere arrazializatuek pairatu dute. Ongi daki Khadim Sambe manteroak: "Atzo bertan, Bilbon, lau beltz

bagera
Donostiako Euskaltzaleen Elkartea
Hernani kalea 15, behea. 20004 Donostia
943 005 074 - bagera@bagera.eus
www.bagera.eus

AKUILARI
APLIKAZIOA JAITSI. DUINTASUNA IGO
DESOREKA –
App Store
Google play
ALDAKETA +
www.behatokia.eus | @behatokia
IZAN #AKUILARI

20870 Elgoibar (GIPUZKOA) E.mail: pneumax@pneumax.es
PNEUMAX
AUTOMATIZAZIO NEUMATIKAKORAKO OSAGAIAK

ikusi nituen paretaren kontra Poliziak miatzen zituen bitartean. 'Zergatik dira beti beltzak eta ez zuriak?', galdetu nien; 'zuriak legalak dira', erantzun zidaten poliziek, beltz izateak zuzenean ilegal izatea esan nahiko balu bezala. Eta bizi baimena badute? Eta hemen jaio badira? Arrazakeria kasu garbia da. Niri, egun bat bai eta hurrengoa ere bai, dokumentazioa eskatzen didate, kolore guztietako poliziek. Beltza naizelako".

Migratzaile ugariren bizitoki den Bilboko San Frantzisko auzoa adibide garbia dela dio SOS Arrazakeriak: uneoro dago Polizia, uneoro patruilak, eta egunero gelditzen dute jendea arrazagatik. "Baina esaten baduzu zure azaleko koloreagatik gelditu zaituztela eta hori egitea ilegala dela, desobedientzia leporatuko dizute; grabatu nahi baduzu, Mozal Legea aplikatuko dizute; salatzen baduzu, poliziek elkar babestuko dute eta prozesu luze baten ostean galtzaile aterako zara... –kritikatu du Jessicak– Polizia eta beste administrazio batzuk arrazakeria sistemikoaz baliatzen dira, indibidualki egiten dituzten gehiegikeriez elkarren artean babesteko, inongo ondoriorik jasan gabe".

> **"Galdera ez diguzu guri egin behar, guk zuei baizik: zergatik ohitu zarete herritar migratzaileak ikustera eskubiderik gabeko herritar gisa?"**
>
> Emakume Migratu eta Arrazializatuen EHko Sarea

Udaltzainak esaterako, etxez etxe aritu ziren leku batean baino gehiagotan konfinamendu betean, erroldatzeak egiaztatzeko: erroldatutako pertsona etxean ez bazegoen, erroldatik kendu eta isuna jartzen zuten. Hori ere kritikatu dute kolektibo kaltetuek: osasun krisi betean, benetan hori da –teorian herritarrengandik gertuen dagoen Poliziaren– lehentasuna? Gauzak horrela, migratzaile ugarik ez du kalera atera nahi izan, ezta eroskетak egitera ere, Poliziak geratuko zituen beldurrez. Izan ere, "beti dira migratzaileak hiper-zelatatzen dituztenak", salatu du Jessicak.

KOKTEL ILUNA ETORKIZUNERAKO

Pandemiaren aitzakian areagotutako errepresio poliziala berau legitimatzeko modu bat dela adierazi digu Bizkaiko SOS Arrazakeriak, "ondoren ere errepresio horri segida emateko. Kolektibo eta kolore batzuek espaloia okupatzeak enbarazu egiten du, baina tabernetako terrazetan jende zuria garagardoak edaten egoteak ez".

Kontrol gehiago mugetan, segurtasunaren izenean murriztutako eskubide eta askatasunak, pobreziaren eta bazterkeriaren hazkundea, diskurtso arrazista eta xenofoboen hauspotzea. Etorkizunerako koktel iluna aurreikusten dute kolektibo zigortuenek. Europako Batasunak mugak are gehiago gotortzeko eta jendea errazago kanporatzeko neurriak hartu ditu uda honetan. Borrokan jarraituko dute, erregularizazioa eta migrazio politika justuagoa exijitzen, baina bitartean ez daude geldirik: asmoa dute hainbat erresistentzia kutxa, baita zaintza eta babes sareak ere, denbora batez mantentzeko, bestelako garapen eta ongizate paradigmak garatzea helburu. Azken finean, Emakume Migratu eta Arrazializatuen Euskal Herriko Sarearen hitzetan, "Europak bere ongizate estatua oinarritzen du kolektibo arrazializatuen esplotazioan eta diruaren pilaketan; sistema kapitalistak eskaini digun ideal hori zalantzan jartzeko balio dezala krisi honek". ●

Amul been nit ku leegalul
inor ez da ilegala

ARGIA

Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diezu **Mbolo Moye Doole**ren erresistentzia kutxari eta **Argia**ri.
Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

15€*
KAMISETAK

8€*
POLTSAK

14€*
PAPE NIANG
HASIERA BERRI BAT
LIBURUA

24€*
JERTSEAK
4 KOLORETAN

Eskaerak egiteko sartu: **AZOKA.ARGIA.EUS** edo deitu **943 37 15 45** telefonora

*Bidalketa gastuak 4€

HEZKUNTZA

Nolako eskola behar du gaurko munduak?

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA DANI BLANCO

COVID-19ak agerian jarri ditu hutsuneak eta ondorio nagusietakoa izan da ikasketetan ere klase sozialen arteko desberdintasuna handitu dela, etxeetako maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren arabera ikasleek gehiago edo gutxiago eutsi ahal izan baitiote eskolako ikasketei itxialdian. Eskola etxetik eman beharrak praktikan familien eskuetara itzuli du gure gizarteak instituzionalizatua eta profesionalengan delegatua duen hezkuntza. Baina gurasoek lana bikoiztuta burutu behar izan dute funtzio hau. Hala ere, mendeetan ezinezko zirudiena obratu da: eten da ohiko eskola, hiru hilabetez. Horrek ate bat irekitzen digu herritarroi pentsatzeko: Nolako eskoletara itzuli nahiko genuke?

euskal eskola publikoa
denona, denontzako
ehige
Gurasoen elkartea
info+ 944 169 360 / ehige@ehige.eus / ehige.eus / Ronda 27, 1ezk, 48005 Bilbo

Hurrengo ikasturte osoan aurrez aurreko eskolak bete-betean eman ahalko diren, denborak esango du. Osasun neurriak betetzeko ikasleek txandaka joan beharko balute eskolara, Mariano Fernández Anguita soziologo espainiarrak proposatu du behar gehien duten ikasleek egin dezatela ahalik presentzialen ikasturtea. Hau da, eskolak egin dezala diagnostikoa ikasle bakoitzaren beharrak detektatzeko, adibidez akademikoki zailtasunak dituztenak, linguistikoki, etxean baliabide gutxien dituztenak, ikasketetan gurasoen laguntzarik jaso ezin dutenak... eta behar gehien dituzten ikasleak izan daitezela ikasturtean zehar aurrez aurreko eskola gehien jasotzen dituztenak.

Erreportaje honetan *Arrakala* izenburua daraman koadroan irakur daitekeenez, etxeetako baldintza ekonomiko eta kulturalek eragin zuzena dute ikasleen ibilbide akademikoan, etxea baita, hain justu, hezkuntzan eraginik handiena duen faktorea. Zer egin eskolatik, etxeen artean handituz doazen ezberdintasun sozialak gutxitzeko? Joxi Imaz *Hezkuntzaren Soziologia* liburuaren egileak azaldu digunez, "historikoki hiru jarrera egon dira. Batzuek eskolan ikusten dute salbazioa, eskolak berdintzen gaituela diote eta ikasle guztiei ematen diela aukera bera, etorkizunean ongi ordaindutako lan bat lortzeko. Beste batzuek diote eskola kapitalismoa erreproduzitzeko tresna dela, bakoitzak bere maila sozio-ekonomikoaren arabera lortzen duela gehiago edo gutxiago ikastea eskolan eta ondorioz, lan mundura sartzean klase sozial berean geratzen direla. Arrazoi handia du hori dioenak, baina ni hirugarren korronte batean kokatzen naiz, pentsatzen duena zerbaiterako ere balio dezakeela eskolak. Izan ere, kontuz ibili behar dugu determinismoarekin". Hori argudiatzeko, EAEn egiten diren diagnostiko proben emaitzak aipatu ditu: ikastetxe guztiei azterketa bera egiten zaie eta emaitzak interpretatzerakoan kontuan hartzen dira ikasle horien etxeetako baldintza sozio-ekonomiko eta kulturalak ere. "Diagnostiko proben emaitzetan ikus daitekeenez, zenbait kasutan konpentsazio lana egiten du eskolak. Familien espektatibak eta inplikazioa altuak izatea, eskola eta irakasleak inplikatuta egotea... Faktore horiek denek hobetzen dute ikaslearen eskola ibilbidea, batez ere klase sozial baxuenetan. Beraz, ados, faktore sozialek asko baldintzatzen dute norberaren eskola ibilbidea, baina baldintzatu eta determinatu ez dira gauza bera".

Hezkuntza gorena nahi duen herriak, gizarteko ezberdintasunak murrizteko eskolaz kanpoko neurriak hartu behar dituela oroitarazi digu Imazek: "Hezkuntzak bere ekarpena egin dezake desberdintasun sozialak murrizteko, baina ez da nahikoa. Hezkuntzako emaitzarik onenak Europa iparraldekoak dira, gizartean ere parekotasun handiagoa dagoen herrialdeetakoak. Hauetan aberastasuna hobeto banatzen dute zerga gehiago kobratuz, soldata duina jarriz, etxebizitza politikekin, zaintza publikoarekin... Ondorioz, oso ezberdinak dira emaitzak, adibidez, Erresuma Batuan edo Finlandian. Erresuma Batuan badituzte eliteko eskolak eta unibertsitateak, baina ezberdintasun handiak daude ikasleen maila akademikoen artean. Finlandian ezberdintasun akademikoak txikiak dira eta PISA azterketetan mundu mailan puntan daude. Beraz, posible da biak batera egitea, berdintasuna zaindu eta emaitza akademiko bikainak lortzea, baita proba ofizialetan ere".

ZAINTZAK SOS

Zaintza da eskolaren funtzio handietako bat, nahiz eta sarritan ez zaion aitortzen. Nahikoa da eskolak egun batez ixtea, familientzako umeen zaintza arazo izan dadin. Berdin gertatzen da adinekoen zaintzarekin, gaixo daudenekin... Europa hegoaldean batez ere amak eta aiton-amonak dira zaintzari eusten diotenak, egunero etxeko sasoikoek lan ordaindua egiten duten orduetan zehar.

Imazek zaintza krisiaren irtenbidea seinalatu du: "Enpleguan pasatzen dugun denbora murriztea, horrela, bai enplegua eta bai zaintza lanak denon artean banatzeko, etxea eta zaintza ez daitezen gelditu batez ere emakumeen esku eta modu prekarioan". Enplegu orduak murrizteaz batera, zaintza sistema publiko indartsua behar dela gehitu du: "Publikoki eta guztion artean antolatu beharko lirateke baliabide multzo bat. Hau da, haurtzaindegi sistema publiko indartsua (ez baitago oso garbi Haurreskolak Partzuergoa zer den), eskolako jangelekin berdin... publiko-pribatu eztabaidan adi ez bagaude, erakundeek sistema publikoan azpikontratak sartzen dituzte eta pribatizaziorantz urratsak ematen dituzte".

Enplegu orduak murriztuta eta herritarrok eguneroko bizitzari eta zaintzari denbora gehiago eskainita, bizitza eta zaintza desinstituzionalizatu ditzakegula adierazi du Imazek: "Ona al da ume bat 8:00etatik 17:00etara eskolan egotea, haren zaintza osoa profesionalen esku utzita? Eskola batzuk ausartu dira pandemia garaian eskola orduak gutxitzen, eta zentroei benetan autonomia emango baliete ausartu ahalko genuke Batxilergotik beheragoko mailetan horrelako probak egitera, familiak eta eskola komunitatea ados jartzen bagara".

Hezkuntza instituzioetan egunero ordu gutxiago ematea izan daiteke neurri bat, anarkismoaren inguruko zenbait soziologok, adibidez Pedro García Olivo edo Julio Rubio Gómezek kritikatu duten instituzionalizazioa murrizteko. Imazek azaldu duenez, "autore hauek diote industria oso bat sortu dela gizartearen hutsuneak tapatzeko, baita gizarte hezkuntzan ere, eta orain etiketak jarriz ekoiztu ere egin behar ditugula baztertuak, marjinatuak. Autore hauek hezkuntza eta zaintza desinstituzionalizatzeko nahia dute eta gizartea deseskolarizatu behar dela diote: Iván Illich izan zen deseskolarizazioaren ideia garatu zuena eta John Caldwell Holt da beste erreferenteetako bat, esaten baitu hezkuntza instituzio gehiegi dagoela. Horren esperientzia badugu gurasook, bi ume baldin baditugu gure egun osoa oso pautatua egoten da, oso instituzionalizatua, pentsa, orain futbolean ikasteko ere eskolara bidaltzen ditugu. Instituzionalizazio prozesu hori aurrera doa, gero eta negozio gehiago dago horren inguruan". Baina gizarteko olatuetatik ihes egitea oso zaila dela dio, eta adibide gisa jarri du haien umea goiz-pasako udalekuetara ez bidaltzea erabaki zutela eta lanean txandak egokituta goizak umeari eskaintzea. Baina herriko ume ia guztiak zeudela goizeko udalekuan, kaleak eta parkeak hutsik zeuden bitartean eta hurrengo urtean hara bidali zutela, beste umeekin jolastu ahal izan zezan. "Gurasoek eta herriak instituzioengandik hezkuntza berreskuratzea ez da erraza".



Zergatik ez irakasleak gehitu eta herrietan hutsik dauden eraikinetan ikasgela berriak ireki, distantziak bermatzeko?

ESKOLA SOZIALIZATZEKO ETA GIZARTEA ALDATZEKO

Aurrez aurreko klaseak etenda egon diren hilabeteetan, sozializazioa da ikasle eta irakasleek gehien faltan nabaritu dutena. Hain justu sozializazioa da eskolaren funtzio handietako bat. "Pentsa, batere eraldatzailea ez den OECD erakundeak, zeina errenta altuko 34 herrialdek osatzen duten, ikerketa bat egin du eta esan du egoera honek erakutsi digula ezagutza akademiko kognitiboez gain, arlo sozialari eta emozionalari garrantzia eman behar zaiola eta horretarako curriculuma malgutu beharko litzatekeela". Egungo curriculuma gai gutxi hauetan oinarritzea nahi du korronte anglosaxoiak: zientzia, teknologia, ingeniaritza, hizkuntza eta matematika. Ikuspegi hori zabaldu behar dela dio Imazek: "Nik uste Howard Gardner psikologoaren teoriak izan behar direla kontuan, pertsonok inteligentzia anitzak ditugula eta gizartearentzat denak direla interesgarriak eta beraz, denak landu behar ditugula eskolan".

Konfinamenduak eten duen sozializazioaren gaira itzuliz, Euskal Herrian aurrez aurreko eskolek euskarari eusteko funtzioa ere betetzen dute, ikasle askorentzat eskola baita euskaraz ari-

Behar dugun HEZKUNTZA:

BPG aren %6 inbertitu
Publikoa indartu
Eskubidea bermatu
Bizitzak erdigunean

ZERBITZU PUBLIKOAK GARATU

steilas

tzeko gune bakarra. Baina hurrengo ikasturtean eskolak aurrez aurre eman ahal izatea oso zalantzan jartzen dute erakundeetatik aldi berean zabaldu dituzten bi mezuek: batetik, COVID-19aren aurrean gorde beharko diren prebentzio neurriak, eta bestetik, ez dela nahikoa diru inbertituko osasun neurri horiek betetzeko behar diren langileak eta azpiegiturak gehitzeko, alderantziz, murrizketen mehatxua zabaldu da. Ondorioz, herritarrek aurre egin ezean, hurrengo ikasturteko planteamendua gertuago egongo da dirutan merkeena den horretatik, hezkuntza hobetzetik baino. Izan ere, osasunaren aldeko neurriak hartzeak ez ote du aukera ematen hezkuntza hobetzeko? Zergatik ez irakasleak gehitu eta herrietan hutsik dauden eraikinetan ikasgela berriak ireki, hartara gela bakoitzean ikasle gutxiago egon dadin? Zergatik ez egin aire librean ahalik jarduera gehienak, toki itxiak eta masifikatuak saihestuz? Ez al da aukera paregabea behingoz jantoki denetan inguruko baserritarrei erositako elikagaiak bertako sukaldeetan prestatzeko? Pandemiak ez al digu oroitarazi lurralde antolaketa osasuntsuagoa beharrezkoa dela eta beraz, herri eta auzoetan eskola txikiagoak zabaltzea hobe dela, garraioan eta zentralizazioan oinarritutako ikastetxe makroak izan beharrean?

Badirudi hezkuntza sistema osasuntsu eta hobe bat ezarri beharrean, indarra jarriko dela arnasa hartzea zailtzen duten maskarak ordu luzez erabili behar izatean, eta tarte batzuetan etxetik Internetez klaseak jarraitu behar izatean. “Ematen den mezua da ez dagoela dirurik, eta epe motzeko irtenbide eta estrategietan ari gara”. Baliabiderik ez dagoela dioen diskurtsoa

Arrakala

Sheila González eta Xavier Bonal-ek *Konfinamendua eta desberdintasuna Katalunian* ikerketa argitaratu dute eta ondorioa da itxialdi honetan Kataluniako etxeen %56an ez dela dispositibo bat (alegia, ordenagailu edo tabletik) egon pertsona bakoitzeko. Errenta baxuko etxeetan zifra hori %71ra igo da. Etxeen %15ean dispositibo bakarra zegoen: baina pobreen etxeen %25ean zegoen dispositibo bakarra eta aberatsen etxeen %4an. Aberatsen etxeen %50ean 4 dispositibo edo gehiago zeuden. Ikerketa honek dio DBHko ikasleen %15ak egunean ordu bakarra edo gutxiago eman duela eskolako lanetan. Etxean dispositibo gutxien dituztenak dira lanordu gutxiago egin dituztenak. Joxi Imazek salatu duenez, “Euskal Herrian nahiz eta neoliberalismoak saldu dena oso ongi doala, ikusi da etxeetan benetan ez daukagula hainbeste baliabide. Tele-ikasketarako teknologia behar hauek lehen unetik gobernuetatik aurreikusi eta baliabideak publikoki antolatu beharrean, erreakzioa ikastetxe eta udaletatik etorri da geroxeago, eta bakoitzak ahal duen moduan egin du, interneteko txartelak eta ordenagailuak banatuaz”.

Batez ere amak izan dira etxetik eskola jarraitzeko umeei laguntzen aritu direnak. Gurasoek eskola titulazio handiagoa dutenean gehiago lagundu diete seme eta alabei, batez ere DBHtik aurrerako ikas mailetan. Izan ere, titulazio baxuagoa dutenek askotan ez dute laguntzeko beste ezagutzarik. Beraz, etxe batzuetan gurasoak aritu dira tutore eta irakasle funtzioak betetzen, eta beste etxe batzuetan inor ez.

Kataluniako ikerketa honen ondorioa da, baliabide ekonomiko eta kultural gehien dituzten etxeek umeen ikasketa informala ere gehiago bultzatu dutela, hainbat arlotan: irakurketa gehiago sustatu dute, baita hizkuntzak, kirola, musika eta beste arte adierazpenak ere. Aldiz, baliabide gutxien dituzten familietan, bideo-jokotan ordu gehiago sartu dituzte Lehen Hezkuntzan.

zenbat gara elkartea
Done Bikendi 2 - 48001 Bilbo
Tel: 94 423 75 91
e-mail: bulegoa@zenbatgara.org
Hamaika bide hamaika aukera
www.zenbatgara.eus
Gabriel Aresti euskaltegia · kafe antzokia · Algara · Kur Kuluxetan · BI-96.0-FM Bilbo-Kirla irratia · Bakaikuko Etxea · Erroa argitaletxea · Gazteola Haur eta Gazteak · Gabriel Aresti Kultura Elkartea · Atoan! komunikazioa

Pantailak

Amaia Bacigalupek *Haurren osasuna konfinamenduan* ikerketa soziologikoa egin du eta dio Espainiako Estatuan umeen %25ak egunean 6 ordu baino gehiago eman dituela pantailen aurrean itxialdian zehar. Olatu teknologiko hau eta pantailen kultura lehendik zetozela azaldu digu Joxi Imazek, eta itxialdiak azeleratu egin duela prozesua. Baita ere esan du olatuari ezin zaiola atea itxi, informazioaren gizartea dela egungoa, eta beraz, bertan igeri egiten ikasi behar dugula, baina badituela bere arriskuak eta ezin garela super-integratu akritikoak izan: "Arriskuen artean osasuna dago. Pantailetan hainbeste ordu emateak ondorioak ditu bistan, buruan... Jendeak oso kargatuta bukatzen du eguna. Uhinek gure gorputzean duten eraginei buruzko eztabaida ere hor dago". Pantailen beste arrisku bat pribatizazioa dela oroitarazi du eta itxialdi garaian eskoletan oso indartsu sartu dela, Google drive eta antzerako plataformen bidez. Beste arrisku bat "distrakzioa" da: "Ikasteko arreta zentratu eta mantendu behar da, hausnartzeko ixiltasunak laguntzen du...".

Irakasleek eta zuzendariek positiboki baloratu dute aurten beharrak eraginda teknologia berrien erabileran bai irakasleek eta bai ikasleek hartu duten trebetasuna, eta aurrera begira hainbat euskarri erabiltzeko modukoak direla aipatu dute: adibidez, irakasleen azalpen bideoak lagungarri izan daitezke, ikasleek etxean gaia ikasterakoan hobeto ulertzeko aukera izan dezaten. Edo bideo-deiak oso baliagarriak izan daitezkeela denboraz larri dabiltzan gurasoekin bilerak egiteko.

Hobeto bizitzeko, pantaila orduak murrizten ikastea proposatu du Imazek, eta Rafael Feitoren gomendioak aipatu ditu: "Aisialdian pantailak ez diren jarduerak egitea, papereko irakurketa mantentzea, familietan kirola eta artea sustatzea...".

DANI BLANCO

gezurtatzeko, Imazek azpimarratu du ELA sindikatuak zergei buruz 2018an egindako txostenak dioena: nahikoa litzatekeela zerga Europar Batasuneko batez bestekora igotzea EAEn soilik 6.700 milioi euro diru publiko gehiago lortzeko urtero. Izan ere, EAEko zergekin bertako Barne Produktu Gordinaren %31 biltzen da eta Europar Batasunean batez beste %38,7.

Sozializazioa funtsezkoa da, baina edozein baldintzatan aurrez aurreko eskolara itzultzeak ez duela zentzurik gehitu du, Frantziako Estatutik zabaldu diren irudiak gogoan, zeinetan agertzen den ume bakoitza biribil baten barruan eserita, elkarrengandik oso aparte eta marratik ateratzeko debekuarekin: "Planteamendu hori zentzugabea da. Horrelako politikei erresistentzia egin beharko zaie eta gauzak eraldatzen saiatu beharko dugu".

ikastolenelkartea

Euskal Herriko Ikastolak
EUROPAR KOOPERATIBA ELKARTEA
Errotazar bidea 126 - 20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)
tel. 943 445 108 | fax. 943 465 294
ehi@ikastola.eus
www.ikastola.eus

DANI BLANCO

Izan ere, eskolaren funtzio garrantzitsuetako bat eraldaketa da, Imazen ustez: "Eskolak gizarte honetan bizitzeko prestatu behar gaitu, eta horretarako behar dira sozializazioa eta inklusioa. Baina aldi berean, eskolak erakutsi behar du zein diren gure gizarteko arazo sozial nagusiak eta zein diren irtenbideak arazo horien aurrean. Eskolaren beste funtzio bat horixe izan behar baita, mundua hobetzen saiatzea". Norbaitek esango du hau politikoki bustitzea dela... "Hezkuntza beti da politikoa, baita gai hauek aipatzen ez dituenean ere. Agian modu inkontzientean, baina arazo hauek ezkutatzen dituen eskola, gizartean dagoena erreproduzitzen ari da. Beti dago hautu hori egin beharra hezkuntzan: dagoena erreproduzitu ala eraldatu?", bi erantzunak dira, noski, politikoak. Eskola eraldatzaileez jakin-minik duenak badu nor irakurri: Michael Apple, Henry Giroux... eta ezagunena, Paulo Freire: "Freirek dio eskolak kontzientziazioa bultzatu behar duela, aktibismoa, politika, zapalduen aldeko jarrera etiko eta politikoa... hezkuntza zapalduentzako eta zapalduekin egin behar dela, zapalkuntzei aurre egiteko".

Baina eraldaketa bultzatu ote dezake eskola batek, bere antolaketa demokratizatu gabe? "Michael Apple-k eta James A. Beane-k liburu eder bat dute, *Eskola Demokratikoak* izenekoa. Bertan zehazten dute zer den demokratizazioa: denontzako aukera berdinak izatea, ikasle denek lortzea goi mailako titulu bat (DBH osteko titulazioren bat, gutxienez batxilergoa edo erdi mailako moduluren bat), ikasleen, familien eta komunitateen parte-hartzea areagotzea, komunitatearekin lotura handitzea...". Barne antolaketa demokratikoa duten eskolak eraginkorragoak dira, baina antolaketa horretara iristeko badugu zer landu eta zer ikasi gizarte moduan. COVID-19aren aurrean eskolan egin diren aldaketa itzelak goitik behera erabaki eta ezarriak izan dira, eta Jaurlaritzaren kasuan behintzat sindikatuek salatu dute Hezkuntza sailak aldebakartasunez eta eragileekin kontrastatu gabe hartu dituela erabakiak. Aldi berean, Hezkuntza sailak ikastetxeetako zuzendaritzei eman die eskumen osoa, erabakimenik gabe utziz irakasle klaustroak, ikasleak eta gurasoak. Baina zuzendaritzek ere ez dute behar besteko informaziorik eduki, boterearen gertuko hedabideetatik jakin baitute gehienetan erabaki politikoen berri, Hezkuntza sailarekiko komunikazio kanal zuzen eta ofizialetatik baino lehenago. Eskolaz eskola bertako ikasle, guraso eta irakasleek elkarlanean oinarriak sakon lantzea izan daiteke modu eraginkorrena, krisi hau hezkuntza hobetzeko baliatzeko. Eta beharren arabera, gai zehatz horretan esperientzia eta jakintza dituen herriko eragileekin elkarlanak abiatzea. Horrelako adibide ederrik ere ikusi baitugu itxialdian zehar, adibidez, euskarazko mintzapraktikak abiatu dituzten ikastetxeetan edo herriko gazteek zailtasunak dituzten ikasleen tutoretzak egin dituztenetan. ●

baikara
Gipuzkoako Ikasleen Gurasoen Federazioa
Baso Txiki 36, atzealdea · 20015 Donostia
✆ 943 32 72 08 · Fax: 943 27 49 77
www.baikara.eus · baikara@baikara.eus

– 1925etik –
iztueta
esnetan bizi gara

Iztueta Baserria | Lazkaomendi 20210 Lazkao
m. 606 435 022
www.iztueta.eus

urpa
BUS
Pol. 55, Bª Ubilluts · edif. 9 / nº4
✆ 943 305 050
20140 Andoain (Gipuzkoa)
www.autocaresurpa.com
info@autocaresurpa.com

Irailean

Ahal duena salba dadila ahal duen moduan. Hori izan da politika orokorra pandemian, ez baita izan haurrei eta haien familiei egoera gainditzen laguntzeko politika publikorik. Eta abiapuntu horretatik, irailean ikasturte berria dator ate joka, distantzia soziala jainkotzat hartuta. Hezkuntza harremana da, hurbiltasuna, komunitatea, elkar-eragitea... Ez bada, eskola helduentzako parking gisa ulertuta. Umea autoa nola, helduak soldatapeko lana egiten jarrai dezan.

ÉMILE LOREAUX AXIER LOPEZ

Gorka Olmok Iban Zalduaren 'Bisita bat Arma Museora' ipuina ilustratu du "Zirriborroak eta gero" proiektuaren barruan. Egitasmo horretarako sortutako lanetako bat da hau.

LITERATURA COVID-19 GARAIETAN

Bada etorkizunik narrazio apokaliptikoetatik harago

Errazagoa da fikziozko lanetan munduaren inbasio alienigenak agertzea kapitalismoaren amaiera baino. Edo agian dagoeneko ez? COVID-19aren eraginez gure eguneroko bizitzak pixka bat zientzia-fikziorantz jo duenean, zilegi da galdetzea zer pasako den genero horretako literaturarekin. Sarritan mundu apokaliptikoen irudikapenarekin lotu izan dira mota horretako istorioak. Apokaliptikoak izango ez diren biharko munduez hitz egin dugu, ordea, Arrate Hidalgorekin eta Ixiar Rozasekin.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

GORKA OLMO / JOSUNE URRUTIA / MAITE CABALLERO

Birus bat, ezezaguna, oso kutsakorra, mundu digitalaren erritmoan zabaltzen zena. Inor ez zegoen prest: Paris, Bilbo, Teheran, larrialdi zerbitzuak itota, Madril, Riad, Istanbul, heriotza datuak etengabe pantailetan, Dubai, Buenos Aires, Dakar, alarma egoera. Eta, bat-batean, dena eten zen. Isiltasun metalikoa kaleetan. Bazter oro hutsik, zulo kosmiko batek munduko jende guztia irentsi izan balu bezala. Baina ez: tarteka ikusten zen norbait oinez ehunka pertsona bizi ziren porlanezko bloke mortuen artean, maskaratuta, eskularruak jantzita eta erosketak egiteko poltsa ondo agerian –ez da komeni jendeak pentsatzea kalera atera zarela benetako arrazoirik eduki gabe; seigarrenekoa bizilagun bati irainka hasi zen aurreko astean–. Eta mundu osoko ekonomiak hondoratzen hasi ziren, kapitalismo garaikidearen oinarrietako bat den *perpetuum mobile*-ak ezin zuelako sinfoniarekin jarraitu nota disonante zaparrada horren erdian. Mugitzea heriotza da. Elkar ukitzea heriotza da. Hitz egiteak kutsatzen du gehien. Ez atera kalera ezinbestekoa ez bada. Adinekoak, kontuz. Haurrak, kontuz. Denak: kontuz. Orain arte bizi izan zareten moduak hil zaitzakete. Aukeratu behar duzue: bizitzari eutsi, ala atzo goizera arte bizitza gisa ulertu duzuen praktika sorta horri. Baina ez, zuek ez duzue ezer aukeratuko, guk aukeratuko dugu eta zuei zer egin behar duzuen agindu. 2020: distopia egi bihurtu den urtea. Gure egunerokoa *Black Mirror* telesaileko kapitulu sorta bihurtuta –hainbeste, ezen telesail britainiarra promozionatzeko, zenbait herrialdetako autobus geltokietan zera idatzi baitute, irudi

Josune Urrutiak jarri dizkio irudiak, bestalde, Katixa Agirrek egitasmo beraren barruan idatzitako ipuinari.

ARTAZA UREDERRA
Nafarroaren bihotzean esperientzia berri bat ezagutzeko aukera
Artaza Urederra kanpina
www.campingartazaurederra.com
619 402 174 / 646 957 225

baten ordez ispilu bat daukan kartel publizitarioetan: "*Black Mirror*. Seigarren denboraldia. Zuzenean orain, edonon"–.

Martxotik aurrerakoa hain izan da espero genezakeenaren mugetatik haraindikoa, gutako askok oraindik ez dugula barneratu gertatu dena. Industria editorialak badaki egoera arraro hori gure buruei esplikatzeko premia daukagula; horregatik hasiko zen COVID-19aren pandemiari buruzko titulu bat bestearen atzetik jaurtitzen, kasik gauzak gertatu baino lehen kontatuz eta aztertuz. Dendetako mahaiak gainezkatu dituzten liburu horietako gehienak saiakera generokoak badira ere, justua da esatea asmamen dosi handiak behar izan direla argitaratzen ari direnak idazteko, koronabirusaren osteko mundua nolakoa izango den aurreikustea bihurtu baita *intelligentsia*ren kirol gogokoena azkenaldian. Baina pandemia globalak libururen baten antzik izango badu, zientzia fikziozko lanen batena izango da.

> **Apokalipsia etorkizunean kokatzen duen fikzioak alde batera uzten du maiz apokalipsia mundu honetan bizi dutenen esperientzia"**
>
> Arrate Hidalgo

DENA AURREIKUSI OMEN ZUEN LIBURUA

Birusa Europara eta AEBetara iritsi zenean, hedabideetan asko aipatu zen 1981eko eleberri bat, Dean Koontzen The Eyes of Darkness, zeinak kontatzen zuen 2020 inguruan Wuhango laborategi batean garatutako birus batek nola jartzen zuen mundua hankaz gora. "Koronabirusa hitzez hitz aurreikusi zuen liburu" gisa erreskatatu zuten, brotxa lodi samarra erabiliz dena esan behar bada, xehetasunei begiratuz gero liburuaren eta bizitzen ari ginen errealitatearen arteko lotura erraz asko sailka baitzitekeen kointzidentzia gisa, harrigarria, baina ez gehiago. Nondik zetorren, ordea, hainbeste kazetari eta sare sozialetako erabiltzaileren grina liburu profetikoa aurkitzeko? Arrate Hidalgoren ustez, gure inguruan patroiak eta ereduak ikusteko beharra dugu, "errealitateak zentzua izan dezan, minak eta zorigaitzek barne. 'Norbaitek hauxe idatzi zuen ez dakit noiz eta Wuhanen da!'. Agian lasaigarriagoa da pentsatzea zerbait egiteko gai izan ginela baina ez genuela ezer egin 'gizakiok birusa garelako', dena gure kontroletik kanpo dagoela sinistea baino". Zientzia fikzio queer eta feministan aditua da itzultzaile eta editore hau, eta Bilboko AnsibleFest-en antolatzaileetako bat da –irailean egitekoa zen zientzia fikzio feministari buruzko jaialdiaren hirugarren edizioa, baina egoerak atzerapena behartu du–. Honelako egoeretan fikziozko lanetan zer bilatzen dugun galdetu diogunean, azaldu digu errealitatea istorioen bidez ulertzen dugula. "Batzuek ihes egiteko irakurri dute pandemia honetan; beste batzuek erantzunak aurkitzeko, agian. Baina istorioak, fikzioa, gure izatearen parte dira, eta pandemia batek ez du hori gelditzen".

Hori bai, lehen gutako askok zientzia fikzioa etorkizun urrunetako istorioekin erlazionatzen genuen eta orain, aldiz, bihar goizeko eszenetan irudika deza-

hobelex
idite
Eguneratu zure euskara, indartu batasuna.
uzei.eus

BRINTZA
AHOLKULARITZA · CONSULTORIA
Enpresa eta autonomoei aholkularitza eskaintzen diegu
Urbieta, 15 · 20120 Hernani
Tel.: 943 33 12 67
www.brintza.com

Bortzirietako
Hiri-Hondakinen Mankomunitatea
Andutzeta 15, 3.
31760 ETXALAR (NAFARROA)
948 635 254
bulegoa@bortziriakzabor.com
www.bortziriakzabor.com

Irurako udala
San Migel plaza 1, 20271
udala@irura.eus
www.irura.eus

Maite Caballerok ilustratu du Danele Sarriugarteren "Zirriborroak eta gero" proiektuko ipuina.

BIZI
Errenteria

ZATOZ
ETA BIZI
ERRENTERIA



kultura | merkataritza | ostalaritza

Errenteria
ADN
kreaktiboa

bizi.errenteria.eus

kegu. "Nire ustez gertatu da orainak eta etorkizunak bat egin dutela askoren gogoan, eta orain etorkizunean bizi garelakoan gaude. Pandemiak etorkizunarekiko ezjakite eta ezegonkortasun handia sortu du norbanakoen artean", azaldu du Hidalgok. Beraren ustez, ordea, arriskurik larriena birusa heldu aurretik errotuta zegoen sistema kapitalistaren bortizkeria are indartsuago bihurtzea da.

HEMEN ETA ORAIN, BESTELAKO MUNDUAK

Eta kezka horren hariari tiraka, berehala dator galdera: datorren mundua ezagutzen dugun hau baino hobea ez dela izango adierazten duten narratibak zer dira, boterearen diskurtsoa ala bizi dugun garai honen konstatazioa? Biek elkar elikatzen dutela uste du Hidalgok, baina ñabartu du ez dela garaiaren espiritua bakarrik, nagusi den ideologiarena baizik. "Apokalipsia etorkizunean edo beste errealitateetan kokatzen duen fikzioak alde batera uzten du maiz apokalipsia gure mundu honetan bizi dutenen –edo bizitzen ari direnen– esperientzia: herri indigenak, esklabo bihurtutako afrikarrak, berotze globalaren ondorioz haien bizimodu osoa galdu dutenak... Badago 'apokalipsi' kontzeptu inperialistari eta eurozentristari aurre egiten dion zientzia fikzioa, zorionez".

Ixiar Rozas idazlearen ustez, "badakigu garai oso zailetan gaudela, aurrekaririk ez duen krisi orokor batean, larrialdi klimatikoa erabat barneratu gabe genuenean osasun larrialdia iritsi zaigula, ekozidioak eragiten ari garela, biztanle gehiegi garela munduan... Kontua da ikuspegi horrek ekintza bera blokeatu dezakeela. Paralisia sor dezake. Fikzioak paralisi hori gainditu eta etorkizunak irudikatzeko aukerak ematen dizkigu. Beste etorkizun batzuk eta haietara iristeko bidea irudikatu ahal izateko aukera". Xede horrekin ekin zioten 2018an "Zirriborroak eta gero" proiektuari Rozasek berak, Arantxa Mendiharatek eta Idoia Zabaletak, Arabako Lasierra herrian dagoen Azala espazioan. Herrialdean martxan dauden alternatiben inbentario bat egin zuten lehenbizi eta, ondoren, hainbat idazleri eskatu diete esperientzia horietako bat aukeratu eta etorkizunean irudika zezala ipuin baten bitartez. Lau ipuin edo fabula ekarri ditu proiektuak oraingoz: Katixa Agirreren *Loratze perimetroa* –Errekaleor auzo autogestionatua ardatz hartuta–, Iban Zalduaren *Bisita bat Arma Museora* –Gerrarako Eusko Label Armak plataforma–, Danele Sarriugarteren *Zer gertatzen da K herrian ilargi beteko gauetan?* –Lumínica Ambiental, argi-kutsaduran espezializatutako bulegoa– eta Karmele Jaioren *Eskailerapeko* –konfinamendu garaian antolatu diren zaintzarako auzo-sareetatik abiatuta–. Istorio guztiek dute amankomunean galdera bat, Rozasek esplikatu duenez: "Zer gertatuko litzateke egun gure lurraldean lanean dauden alternatiba horiek etorkizunean proiektatu eta zabalduko balira? Nolakoa izango litzateke etorkizuna?". Idazlearen ustez, "zerbaiten hasiera" dira istoriook: "Etorkizunak imajinatzeko ohar sorta modura ere uler daitezke. Norabideak markatu ditzakete. Alternatibak, berriz, espazio sozial eta kolektibo gisa ulertzen ditugu. Behar batetik sortzen dira, aldaketaren beharra. Ekintzaren bitartez gizarte hobea bilatzen dute, denontzat, hobeto bizi eta hil ahal izateko".

> **"Etorkizunean pentsatuz istorio bat eraikitzen duzunean, irudikatuz zein diren horra iristeko urratsak, leku aldatze bat gertatzen da"**
> Ixiar Rozas

Egitasmo honek uztartzen dituen alderdi ugarien artean, Rozasi aipatu diogu arreta deitu digunetako bat: istorioak ez daudela atzerriko megalopolietan girotuta; ea bestelako munduak, mundu hobeak irudikatzeko tokikora itzultzea ezinbestekoa den. "Zirriborroak eta gero"-ri dagokionez, azaldu digu Azala espazioarentzat aukera polita dela Arabako lurraldean lan gehiago egiteko, "erroak botatzeko". Eta laster, proiektuaren hurrengo fasean, Gipuzkoan ere zabaltzeko asmoa dute. Birtokiratzeaz gain, praktikan jartzen ari diren egiteko moduak ere nabarmendu ditu Rozasek: "Futuribleak deitzen ditugu. Futuriblea topaketa bat da, laborategi moduko bat, non alternatibako kideak, idazlea bera, eta aukeratutako gaian interesa duten pertsonak lanean jartzen ditugun. Dinamika bat aktibatzen da, Idoiak gidatzen du lan hori, joko moduko bat da zeinean etorkizunean proiektatzen dugun alternatiba bera. Joko horretan irudimena eta iruditeria eztandarazten dira, nolabait, denon artean. Komunean jartzen dira imajinarioak. Gero, idazleak saioan parte hartu ondoren, nahi duena egiten du material horrekin, erabil dezake ala ez, inspiratuko dio ala ez. Esperientzia interesgarria da Futuriblea, Azala espazioaren egiteko moduekin zerikusi handia dauka. Azalan idazketarekin esperimentatzeko esperientzia dezente izan ditugu, taldean". Normalean idazleak bakarrik egiten bai-

Fikzio espekulatiboaren indar politikoa

UTOPIA BERRESKURATZEA

Etorkizun ilunak irudikatzen dituzten istorioetara ohituegi gaude. Erreportaje honetan Rozasek eta Hidalgok azaldutakoak kontuan izanda, ordea, bestelako etorkizun posibleak imajinatzeko lagungarria izan daiteke fikzioa. Eta hori imajinatzeko gai denak bakarrik lor dezake fikzioa errealitate bihurtzea.

IZANGO DIRELAKO GARA

Sarritan zientzia-fikzioa atzerrian girotutako istorioekin lotzen dugu. Baina bizi garen lekuak ere izango du etorkizunik. Jendea biziko da hemen eta pertsona horien geroa imajinatzeke dago. Euskal Herriko idazleek egiten ez badute, nekez egingo du kanpoko norbaitek.

NOLAKO IRAGANA, HALAKO ETORKIZUNA

Fikzio espekulatiboa ez da etorkizuna irudikatzera mugatzen. Eta iraganean gauzak beste modu batera gertatu izan balira? Ukroniek istorio harrigarriak kontatzeko aukera ematen dute. Eta bestelako iragan horietarako oso aurreratuak liratekeen aparailuak agertuko balira? Steampunk fikzioak horrelako zerbait egiten du, XIX. Mendeko mundu futuristak imajinatuz.

tu lan eta, Rozasen ustez, ohitura horretan ere agian badago "hutsune moduko bat".

LEKU ALDAKETAK

COVID-19a iritsi aurretik zientzia fikziozko literaturaren "une oso onean geunden" Hidalgoren arabera, "mundu osotik idazten ari denari begira, ikuspuntu queer eta ez mendebaldekoetatik gainera". Horregatik, momentu honek badu bere arrisku puntua ere: "Espero dut pandemia honek ez ekartzea bakarrik birusei buruzko olatu bat. Badaukagu nahikotxo arazo eta erronka, birus honen eragina gauzatu duen sistema globalaren ondorioz".

Perspektiba feminista batetik begiratuta fikzio espekulatiboak klabe errealistagoan egindakoaren aldean zer aukera eskaintzen dituen galdetu diogunean, Hidalgok azaldu digu "gure sisteman normaltzat hartzen ditugun generoaren inguruko osagaiak hankaz gora jarri, tokiz aldatu edo guztiz ezabatzen" dituela fikzio espekulatibo feministak. "Fikzio errealistak ezin du hori egin. Beraz, uste dut fikzio espekulatiboak abantaila handia daukala beste gizarte batzuk irudikatzeko gaitasuna lantzeko orduan. Baita ere irudikatutako mundu horietan itxaropena edo gozamena aurkitzeko", erantsi du. "Hori ere bada aktibismo feminista".

Rozasen ustez berriz, fikzioaren bidez "aldez aurretik existitzen ez den zerbait irudikatzen duzu. Izan fikzio errealista edo espekulatiboa. Ez dakit aukera gehiago eskaintzen dituen azken honek. Fikzio espekulatiboa erabiltzea alternatiba horiek ikustarazteko modu bat izan daiteke. Eta dikotomiak gainditzekoa". Izan ere, etorkizuna irudikatzeko modu "ezkor" eta "baikor" hutsetatik harago joateko premia nabarmendu du Rozasek. "Fikzio espekulatiboan beharbada irudimenak gehiago jolasten du iragana, oraina eta etorkizunaren arteko tentsioekin. Posiblearen eta ezinezkoaren arteko tentsioekin. Eta beste modu batzuk posible izango balira? Antolatuko bagina? Eta benetan zabalduko balira? Irudikatu horrelako zabaltze prozesu bat... Galdera asko mugitzen dira hor".

Gauden honetan, errealitateak –edo honi buruz dugun pertzepzioak behintzat– ez du aukera handirik uzten diferentea den zerbait imajinatzeko; beharbada horregatik dira lehen baino are beharrezkoagoak aukera berriei leihoak irekitzen dizkieten istorioak. "Bizi duguna arrazoiarekin pentsatzen badugu, ezkorrak izatea beste erremediorik ez dugu. Paralisia gainditzeko, ordea, ekintzaren, borondatearen baikortasuna behar dugu", azaldu du Rozasek. "Eta istorio bat eraikitzen duzunean etorkizunean pentsatuz, pentsatuz zeintzuk diren etorkizun horretara iristeko eman beharreko urratsak, orduan leku aldatze bat gertatzen da". Bestelako etorkizunak irudikatzen dituzten istorioak leitu bitartean, irakurleek ere desplazamendu hori egiten hasteko aukera izan dezakete eta, beharbada, baita inguratzen dituen errealitate horretan aldatu dezaketenaz pentsatzen hasteko ere. ●

MONDRAGON pertsonak elkarlanean

Industria, Finantzak, Banaketa eta Ezagutza dira Korporazio sendo eta dibertsi katu egiten duten oinarriak.

Merkatu desberdinetan marka liderrak ditu: Laboral Kutxa, Copreci, Danobatgroup, Eroski, Fagor, Maier, Orkli, Orona, Ulma, LKS, Orbea eta Urssa besteak beste.

Euskal Herrian sustraituta, kooperatibak 261 entitateak osatzen dute eta horretaz gain kanpoan 128 produkzio planta ditu.

Enpresa jardueraz gain, gestio demokratiko propiodun sistema baten bidez garatzen da, eta inguruko gizartean konprometituta dago.

Kultura, ohitura eta hezkuntza babestea da betidanik Korporazioaren ezaugarririk aipagarriena.

www.mondragon-corporation.com

GIZATASUNA LANEAN

MONDRAGON

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza

1 Trianoko meatzarien oihartzuna



NON
Bizkaia (Meatzaldea)

IRAUPENA
3 ordu inguru

LUZERA
9,5 km (ibilbide moreak)

ZAILTASUNA
Erraza (salbu eta Elvira barrutira jaitsiera-igoera)

INFORMAZIOA
www.ekoetxea.eus

Langile borrokaren jatorrira bidaia bat egin behar izango bagenu Euskal Herrian, ezinbesteko geldialdietako bat Meatzaldea izango litzateke. Hor egosi ziren XIX. mende amaierako eta XX. hasierako greba eta protesta entzutetsuenak.

Ingelesak Bizkaiko burdin meategiak esplotatzen hasi zirenean, 1870eko hamarkadan milaka lagun erakarri zituzten Trianoko mendietara. Hariztiz jositako mendixkak lehergailu kolpeka soildu eta bizigabe utzi zituzten. Hango paisaia desitxuratuak, irekita dauden zainen antza du orain, baina lurralde arraro batetik paseatzeaz gain –babesturiko biotopoa dira mendiok–, bertan lan egin zuten meatzarien oihartzuna ere iritsiko zaigu zeharka.

Bizi-baldintza oso eskasei egin behar izan zieten aurre, gehienean beste lurraldetatik etorritako langileok: egurrezko barrakoi kaskarretan pilatuta eta meatzaritza konpainiek jarritako kantinetan kalitate eskaseko jakiak erostera derrigortuta –hilkortasuna izugarri handia zen tifusaren eta koleraren eraginez–, lanegun amaigabeak zituzten.

Hala, 1890eko lehen greba handiko aldarrikapen nagusia hamar orduko lanaldia izan zen. Trapagarandik jaitsitako milaka meatzarik, Nerbioiko labe garaietako eta ontzioletako obreroak izan zituzten lagun –21.000 grebalari denera– eta horiek gelditzeko gerra egoera deklaratu behar izan zuen Espainiako ejertzitoak. Bitartekari gisa aritu zen Jose María Loma jeneralak meatzarien bizilekuak ikusi zituenean zera esan zuen: "Txerriek ere ez dute halako etxerik merezi".

Gaur egun, orduko etxe umilen arrastoak ikus ditzakegu oraindik, esaterako Zugaztieta herrian. Meatzarien bizitza eta lana ezagutzeko aukera ematen du Meatzaritzaren Museoak, Gallartako hirigune berrian kokaturik –zaharra Concha II meatzeak jan zuen 60ko hamarkadan–. Horrez gain, Peñas Negraseko ekoetxea bisitatu daiteke.

Ekoetxetik abiatzen dira Trianon zehar ibiltzeko hainbat kolorez balizatutako mendi buelta ugari, elkarren artean uztargarriak. Morea aukeratu dezakegu, esaterako, goialdeko ustiapenak ezagutzeaz gain inguru guztiaren ikuspegia hartzeko. Ibilbide honetan, gainera, Elvira barrutiko kate flotatzaile historikoarekin egingo dugu topo, Galdamesera mea jaisteko orduko ingeniaritza-obra modernoa dena. ●

2 Erreketeen bidea



NON
Gipuzkoa (Ataun)

IRAUPENA
5-6 ordu

LUZERA
17 km
(Lizarrustitik San Martinera)

ZAILTASUNA
Ertaina

INFORMAZIOA
www.ataunturismoa.net



1936ko uztailaren 25ean, Santiago Egunez –faxisten altxamendua gertatu eta astebetera–, 300 falangista, militar eta errekete nafar Gipuzkoan sartu ziren Ataundik barrena. Aurretik, errepide eta zubi guztiak itxi zituzten errepublikarrek. Orduan, nola lortu zuten? 75 urteren ondoren, 2011n, erreketeek erabilitako mendi -bidea berregin zuen Atauniker taldeak gertaera haiek gogoratzeko.

Etxarri-Aranatzen trena utzi eta erreketeek segituan aurkitu zituzten lehen pagoak alderik-alde gurutzatuta. Hala, Lizarrustin Quimica Forestal enpresak irekitako trenbidearen arrastoa baliatu zuten Aralegi eta Ataungo domoa erdibitzen dituen haitzartetik San Martinen azaltzeko, denak arratsaldeko mezetan zirenean.

Baina ordurako abertzale eta errepublikar konprometituenak alde eginda zeuden Ataundik. Inguruan ugari diren mendiko borda eta kobetan ezkutatu ziren asko, baserrietako zaharrenek ondo gogoan dutenez. Herritarrek

ERREKETEAK ORDIZIAN / KUTXA FOTOTEKA

erresistentziarik ez bazuten jartzen, kalterik ez zutela egingo hitzemanda gelditu ziren erreketeak Ataunen. Baina hurrengo egunean, Beasaindik joandako ezkertiarrekin liskarra izan zuten, eta Kaxetako zubi txikia berreraiki ostean, errekete kamioiak iritsi ziren *viva España*ka.

Hala, haien hitzak zer balio zuen erakutsi zuten: lapurretak, emakumeei hile mozketak eta, handik aste batzuetara, fusilatzeak ere izan ziren. Hain justu, Lizarrustin aurkitu zuten duela gutxi Aranzadiren eskutik frankistek tiroz hildako Martzelo Lasa Olaberriko gaztearen gorpua, testigantza bati esker. Errepidearen 47. kilometroko haritz handi bat du oroitarri.

Erreketeen bideak balio dezake ez ahazteko gerra zital hartan batzuek bizitakoa, baina horrez gain, ibilbidean kultur ondarearen fosil bizidun diren saroi zaharrak ere aurkituko ditugu Agaotz gailur inguruan, baita mitoz inguraturiko leize, jentilarri eta Aralarko natur paisaia autentikoa ere. ●

3 Erronkariko artzainaren bila

NON
Nafarroa (Izaba-Cabanillas)

IRAUPENA
Mendiko bizikletan bi etapa, oinez sei.

LUZERA
189 km

ZAILTASUNA
Zaila (hobe taldean eta laguntzarekin)

INFORMAZIOA
www.alberguecabanillas.es

Euskal Herriko bide zaharrenetako bat egitea, menderik mende erabili izan diren galtzada eta bidexkak gure oinen azpian sentitzea, ez da tipula zahar batek balio duena preseski. Erronkariko Errege Abelbidearekin hori lortu liteke oraindik.

Ez dakigu zehazki noizkoa den erronkariarrek euren ardiak Bardean botatzeko daukaten pribilegioa, zenbait iturriren arabera IX. mendekoa gutxienez. Baina transhumantzia horrek gaur egun arte iraun izanak oroitarazten digu zer nolako garrantzia izan duen historikoki artzaintzak inguruotan; oraindik badira euren ardiak Bardeara eta inguruko herrietara eramaten dituzten artzain ugari, Erronkarikoak, nola Zaraitzu, Erro eta beste piriniar ibarretakoak.

Erronkariko Abelbidea, ofizio baten biziraupenaz gain, ekosistema baten galeraren lekuko ere bada. Bardeak antzina belaze eta baso ziren, 90eko hamarkadan arkeologiak azaleratu zuenez. Abelbideak, gainera, bere ibilbide naturala aldatu zuen azken mendean, errepidean autoen ugaritzeak sortzen zuen arriskua zela-eta. Ollateko igarobidearen ondoren Burgira jaitsi eta bailaran barrena abiatu beharrean, artzainek Nabaskotzeko muga jarraitzen zuten, trafikotik urrun.

Gaur egun paraje horiek basoak eta sasiak janda dauden toki bakartiak dira; artzainen sentipenak norbere haragitan suma ditzake batek. Nola egiten zuten Leireko mendizerraren atzean dagoen Garonako amildegia artalde osoarekin igo eta jaisteko? Atsedenlekuak lortzeko konkordia historikoak, aziendak zenbatzeko harkaitzetako estugune edo *kontaderoak*...

Abelbidea Nafarroako ibilbide handietako bat izan zen urte askoan (GR 13), harik eta 2005ean seinale faltagatik deskatalogatu egin zuten arte. Baina azken urteetan Izabatik Cabanillaserainoko mendi bizikleta ibilbide bezala egokitu dute berriz. Hori bai, kontuz malda pikoekin eta udako beroarekin. Bardeako Artzainaren Monumentua zain duzue amaieran. ●

4 Ausartu muga gurutzatzera



NON
Nafarroa eta Lapurdi artean (Xareta)

IRAUPENA
12 ordu

LUZERA
28 km

ZAILTASUNA
Ertaina

INFORMAZIOA
www.xareta.eus



Mugak bazter guztietan sortu eta itxi dizkigute pandemiarekin. Baina badira bideak zabalik segitzen dutenak, lehen bezala orain. Xareta inguruan, Zugarramurdi, Urdazubi, Ainhoa eta Sara artean, bada ibilbide bat hango leizeak lotzen dituena mugaz gaindi. *Pottokaren bidea* izena jarri diote –pottoken lorratz urdinez seinaleztaturik dago–. Aspaldi kontrabandistek erabili zuten, baita boterearen eta torturaren hatzaparretan erori nahi ez zutenek ere.

Inkisizioak setakeriaz pertsegitu zituen inguruotako emakumeak XVII. mende hasierako sorgin-ehiza ezagunenean: 1610ean 53 zugarramurdiar auzipetu eta 11 Logroñon erre zituzten. Amaia Nausia historialariaren arabera, autonomoak zirelako jazarri eta baztertu zituzten garai haietan emakume asko –sarritan etxeko ondasunen jabe ziren alargunak ziren–.

Sorgin-ehizak ikuspegi feministatik gogoratzeko kanpaina abiatu zuten iaz; hala, Nafarroako Parlamentuak emakume haiek biktima gisa aitortu eta oroimen mapa sortzeko urratsak eman ditu. Ibilbide honetan zehar puntu horietako batzuk eta Zugarramurdiko Sorginen Museoa bisitatu daitezke, besteak beste.

Pottokaren bidea-k muga birritan gurutzatzen du, egun bakarrean edo gehiagotan egiteko lerro zirkularra osatuz. Historiako disidentzia askoren ezkutaleku izan dira bertoko leizeak, izan bandolero, nola Bigarren Mundu Gerrako mugalari –alemanak sinetsita zeuden leizeen artean bazela lurrazpiko pasabide bat eta Jose Migel Barandiaran berari agindu zioten erakusteko– edo kontrabandista.

Kontrabandoa edo "gaueko lana" izan da parajeotako ezkutuko ekonomiaren oinarrietako bat; merkatu ofizialetik kanpo egonagatik, haren historia oraindik guztiz kontatu gabe dago. Hain justu, ibilbide honen barruan bada xendatxo bat –Zugarramurdiko leizeetatik Sararainokoa– "*kontrabadisten bidea*" deitua.

Nolanahi ere, kontrabandisten joan-etorriak gertuagotik bizitu nahi izanez gero bada beste alternatiba luzeago bat, hau ere Kontrabandisten bidea deitua –ikusi Kontrabandistak.com atarian–. Zazpi etapatan egiteko antolatua, Baztan-Bidasoako natur gune ederrenak igarotzen ditu. ●

5 Benetako distantzia soziala





NON
Araba (Trebiñu)

IRAUPENA
5 ordu

LUZERA
16 km

ZAILTASUNA
Erraza

INFORMAZIOA
www.condadodetreviño.es

COVID-19aren kontra egiteko tresna erabilienetako bat distantziamendu "soziala" mantentzea izan da. Lasaitasuna gustuko izanik uda honetan ere jendetza atzean utzi nahi baduzu, hauxe duzu zure aukera. Barne konfinamenduan eta bakardadean bizi ziren eremiten lurraldera bidaia bat egitea proposatzen dizugu, Arabako bihotzera, Trebiñura.

Harrian zizelkaturiko gelaxka edo *goba* artifizial misteriotsuak dira ibilbide honen erakargarri nagusia. Adituen arabera, gutxienez IV. mendetik eremitak bizi ziren bertan, materialismoari uko egin eta bizitza aszetikoa aukeratu zuten fededunak, alegia. Mende asko iraun zuen mugimendu horrek Arabako lurraldeotan, harik eta Eliza Katolikoaren hierarkiak arriskutsu ikusi zituen arte, beste heresiek bezala, bere kontrolpetik eskapo egiten zutelako. IX. mendean monasterioen sorrerarekin, nekropoli eta eliza bezala erabili eta azkenerako abandonatuak izan ziren. Ondoren, historiak ahaztu egin zituen.

Trebiñuko Udalak eta Trebiñu Batu herri plataformak *Micaela Portilla* ibilbidea atondu dute eremiten aitzakian, antropologo arabar entzutetsuaren omenez –emakume izena duten ibilbide apurretako bat da–. Albaita herrian hasi eta amaitzen da, horiz eta zuriz egoki balizaturik, eta bidean aurkituko ditugu harrobi harrigarriak, baso sakonak, ermita zaharrak –Euskal Herriko kristau adierazpide antzinakoenak direnak– eta, nola ez, *gobak*.

Denera 31 koba zenbatu dira, gehienak Lañu eta Faidu artean, Santorkaria izeneko tokian. Harri gorrietako ziegek erakusten dituzten zulo eta forma leunek atmosfera bitxia sortzen dute; "euskal Kapadozia" ere deitu izan zaio zonaldeari. Zorte pixka batekin telefono mugikorreko estaldurarik gabe geratuko zara, eta orduan bai, distantzia soziala ekintza errebelde bihurtuko da, eremitena zen bezalakoa. ●

INPRENTA
Offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO **GRAFIKOA**

Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!

ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK

www.antza.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

LIBURUAK

Komunitatea hats-bahiturik

Ainize Madariaga Muthular

UEU, 2018/ 130 OR.

Hiztun traumatizatuaren historia kontatu du egileak. Psikoterapeutak, 44 urteko zuberotarraren korapiloa askatu ezinik, ondokoa galdetuko dio: "Zer gertatu zitzaizun 5 urte zenituela?". Pazienteak esan dio eskolan eta etxean euskaraz egitea debekatu ziotela adin horretan.

Onintza Irureta Azkune

Mihia aske

Elias Canetti
(itzul. Ibon Uribarri)

EREIN-IGELA, 2013 / 423 OR.

Bulgariako familia judu sefardi batean jaio eta alemanez idazten zuen Elias Canettik: hara hor identitatearen konplexutasuna ulertzeko abiapuntu bat. *Mihia aske* bere autobiografiaren lehen zatia da. 1977ko obra honen arrakastari esker lortu zuen Nobel saria, hein handi batean.

Gorka Bereziartua

Den-dena nahi dugu

Nanni Balestrini
(itzul. Fernando Rey)

KATAKRAK, 2019 / 206 OR.

Italia Hegoalde txirotik iparralde industrializatura joan eta Fiat autogintza fabrika erraldoian amaituko du lanean protagonistak. Hasieratik problematikoa, sistema krisian sartzera helduko dira langileak. 60ko hamarkadako Italiako langile mugimendu autonomoaren kontakizun ederra da lan hau.

Lander Arbelaitz

Hondarrak

Ruben Sánchez Bakaikoa

TXALAPARTA, 2019 / 360 OR.

1936ko gerra, gerra ostea, demokrazia garaiko gerra. Pilar eta Julia, Tupa, Gasteiz eta Uxue herria. Garaileak eta garaituak, herrien heriotz geldoa, "aske" direnak eta espetxeratuak, kartzela. Horren guztiaren hondarren kontakizun arin, mamitsu, zintzo eta umoretsua.

Zigor Oleaga

Joana Maiz

Joseba Larratxe
Yurre Ugarte

HARRIET, 2019 / 112 OR.

Joana Maiz eta Lauren. Bi emakume, haien desioengatik borrokan. Euskal nortasunaz komiki ez kanonikoa. Bilbo. Abiadura Handiko Trena. Autobideak baserria nola, orain trenbideak bota nahi du bizitoki bihurturiko borda. Hienak, kaioak, arranoak, astoak. Animalia jendea. Erresistentzia.

Jon Torner

Capitalismo y democracia (1756-1848) Cómo empezó este engaño

Josep Fontana

CRITICA, 2019 / 200 OR.

Kapitalismoa nola sortu zen modu desberdinean azaltzen digu Fontana zenak, erakutsiz orduko igualitarismoa non zegoen eta egungoaren klabeetan arakatzen. Burgesiak legedia bere mesederako nola lotu ohi duen ere argi azaltzen du.

Xabier Letona Biteri

Pedagogías Queer

Mercedes Sánchez Sáinz

CATARATA, 2019 / 160 OR.

Normaltasuna gehiengoa bezala izatea bada, inor ez da normala, bakoitza delako ez-estandarra ezaugarriren batean. Nola egin guztiontzako eroso izango den eskola, "berezi"-entzat *petatxoak* jarri beharrean? Umore handiz kritika zorrotza egiten dio eskolari eta praktika zehatzak proposatzen ditu, esperientziatik.

Estitxu Eizagirre Kerejeta

Fables amères. Détails futiles

Chabouté

VENTS D´OUEST, 2019 / 102 OR.

Eguneroko ttipikeria ustez hutsalak, baina gure jendarteko injustizien eta norbanakoon kontraesanen erakusleiho handi direnak. Hitz guttirekin eta marrazki ezin ederragoekin dator berriz ere komikigilea, 2010eko *Fables amères. De tout petits riens* obrari segida emanez.

Jenofa Berhokoirigoin

Patioa denona da

Tipi Eraldaketarako Diseinua

TIPI, 2017 / 82 OR.

Hainbat ikastetxetako jolastokiak birpentsatu eta eraldatzeko prozesuan laguntzaile aritu da Tipi, eta liburuxka honetan jaso du bidean ikasitakoa, sortutako zalantzak, espazioaren garrantzia, patioetako dinamikak... Prozesua abiatu nahi duen edozein hezkuntza gunerentzat baliagarria.

Mikel Garcia Idiakez

Solitude

Jon Lekue Goikuria

TXERTOA, 2020 / 340 OR.

AEBetara XX. mende hasieran emigratu zuten bi euskaldunen historia kontatzen du eleberriak. Sorterrira aberastuta itzuli ziren indiano arketipoetatik urrun, hara joan ziren gehienei eremu bakarti eta gogorrean bizirautea egokitu zitzaien. Heriotza, bizitza modernoa eta pertsonaia ezagunak uztartzen dituen kronika.

Urko Apaolaza

Gizon zuzenak

Albert Camus

EGAN, 2017 / 71 OR.

Camusek 1949an idatzi (*Les justes*), 1966an Xalbador Garmendiak euskaratu, 1967an Jarrai taldeak eman. Abertzaleak borroka armatuaren korapilo etiko eta estrategikoez hausnarrean... 67an? Antzerki unibertsal bat euskara batuan... batua sortu aurretik? Euskaldunak baziren norbait 1960ko hamarkada hartan.

Pello Zubiria

Hitz beste (2003-2017)

Anjel Lertxundi

BERRIA, 2017 / 223 OR.

Euskal kazetaritzaren historian leku oparoa utzi duen idazle oriotarrak *Berria*n 14 urtez egunero idatzitako ia 4.000 zutabe laburrekin berriro gozatzeko lana. Lertxundik berak egindako aukeraketa 15 ilustraziogileren lanekin apaindua.

Axier Lopez

Heute ist der letzte Tag vom Rest deines Lebens

Ulli Lust

AVANT-VERLAG, 2009 / 464 OR.

1984ko udan, 17 urteko bi gazte punkik Italiara ihes egitea erabakiko dute lo zakua eta soinean daramatena soilik hartuta. Bidaia autobiografiko honetan, drogez, sexuaz, matxismoaz, mafiaz eta askatasunaren balioaz ausart eta umoretik mintzatuko da Ulli Lust komikigilea. Gaztelaniara eta frantsesera itzulita aurki daiteke.

Maitane Gartziandia



Why Women Have Better Sex Under Socialism

Kristen Ghodsee

NATION BOOKS, 2018 / 240 OR.

Ghodseek ikertu du nola kapitalismoak ez bezala, ondo garatutako sozialismoak independentzia ekonomikoa dakarren emakumeentzat, lan baldintza hobeak, kontziliazio egiazkoagoa, eta sexu hobea. Gaztelaniara ere itzulita dago.

Onintza Irureta Azkune

L'Agnese va a morire

Renata Viganò

EINAUDI, 1949 / 256 OR.

Agnese izeneko emakume helduaren eskutik, II. Mundu Gerrako Italian murgildu eta Erresistentzia italiarra bertatik bertara bizitzea ahalbidetuko dion pasea aurkituko du irakurleak orriotan. Partisano gisa bizi izandakoak eta kide izandako emakume baten historia oinarri hartuta, Renata Viganòk 1949an idatzitako eleberri ederra.

Amaia Lekunberri



GB84

David Peace

FABER & FABER, 2004 / 465 OR.

Ikatz meatzeen itxiera iragarri du Margaret Thatcherren gobernuak eta Erresuma Batuko grebarik handiena eragin du. Piketeak, poliziak, eskirolak, bultzakadak, kolpeak, gerra zikina eta klase borroka gordina. Milaka langileren bizitza markatuta utzi zuen urtea *thriller* bilakatu du autoreak. Liburu gogorra, meatzariei omenaldia.

Lander Arbelaitz

FILMAK



Beste egun bat bizirik

EUSKAL HERRIA-POLONIA, 2018
86 MINUTU.

Ryszard Kapuściński, XX. mendeko kazetari handienetako baten kontakizun autobiografikoa. Angolak Portugalen kolonia izateari utzi zioneko azken egunak azaltzen ditu, baita ondorio lazgarriak ere. Gerra film bat, gerraren aurkako mezu argiarekin.

Axier Lopez

Sans Nom Sarea

EUSKAL HERRIA, 2019
33 MINUTU.

Bigarren Mundu Gerran, naziengandik ihesi zihoazenei laguntzeko sareak sortu ziren euskal pirinioetan. Haietako bat, hain zen sekretua, izenik ere ez zuela. Mendibeko zerrategia abiapuntu, Iratiko oihana igarotzen zuten, hango artzain Jean Sarotxarren laguntzaz. Baina zerrategia eraitsita, ahazturan gelditu ziren denak, gaur arte.

Urko Apaolaza

Wasp Network

FRANTZIA, 2019
123 MINUTU.

Habana, 90eko hamarkada hasiera. Kubako Gobernuak espioitzarako unitate berezia sortu du Miamiko opositore taldeek uhartearen aurka abiatutako kanpaina terrorista geldiarazteko. Agente hauek sare *anticastristetan* infiltratuko dira Kuba ito nahi duten boteretsuen aurka.

Mikel Eizagirre

Escapada

BELGIKA-KATALUNIA, 2018 / 89 MINUTU.

Hiru neba-arreba, herentzia bat eta mundua zein bizia ulertzeko modu ezberdin eta kontrajarriak. Oinordekotzan jasotako masia bidegurutze bilakatuko da bakoitzaren bizi-ibilbidean, eta berorrekin zer egin erabakitzeko prozesuan bizi molde ezberdinen arteko eztabaida piztuko da.

Amaia Lekunberri

TELESAILAK

Fleabag

ERRESUMA BATUA, 2016
6 ATALEKO 2 DENBORALDI

Fleabag Londresen bizi den emakume lotsagabea da eta lagun mina zendu ondoren krisialdian bizi da. Konformagaitza da, berekoia, kaotikoa eta, batez ere, dibertigarria. Drama-komedia hau "laugarren horma" apurtzeagatik egin da ezagun; ikusleari zuzenean mintzatzen zaio protagonista, ahoan bilorik gabe.

Maitane Gartziandia

Succession

AEB, 2018
10 ATALEKO 2 DENBORALDI

Logan Roy mundu mailako enporioa eraiki duen familia izugarri aberatseko aita da, erraz izan liteke Rupert Murdoch. Telesailaren hasieran, garuneko isuria izango du, eta seme-alaben artean enpresa eskuratzeko lehia hasiko da. Oso sinesgarria.

Lander Arbelaitz

1992, 1993, 1994

ITALIA, 2015
8-10 ATALEKO 3 DENBORALDI

Ustelkeriagatik Italiako sistema politikoa pikutara joango zela zirudien 1990eko hamarkadako hasieran. Garai hori du ardatz *1992* telesailak (bi denboraldi gehiago ditu, *1993* eta *1994*). Berlusconi fenomenoa azaltzeaz gain, botereaz eta giza kondizioaz hitz egiten digu lan honek.

Gorka Bereziartua

Bron/Broen

SUEDIA, 2011
10 ATALEKO 4 DENBORALDI

Nordic noir bat. Irudien iluntasuna eta protagonisten hoztasuna nahasten dituen thrillerra. Danimarka eta Suediaren arteko zubian zatituta agertutako hilotz batek bi detektibe elkartu ditu: Martin eta Saga, kode sozialetatik kanpo dabilen emakume atipikoa. Epero ez den hori guztia, eta gehiago.

Eneritz Arzallus Alustiza



O que arde

GALIZIA, 2019
89 MINUTU.

Dokumental kutsuko film honek Galiziaren barnekaldera garamatza. Espetxetik atera berri den ustezko piromano bat amaren etxera itzuli da, jakitun sua atzetik izango duela beti. Plano luzeek, paisaia berde amaiezinek eta abileziaz grabatutako benetako sute batek triste bezain ederra egiten dute filma.

Eneritz Arzallus Alustiza

Found In The Forest

KANADA, 2014
112 MINUTU.

Pandemiaren aitzakian kanpoko espazioak hezkuntzarako berreskuratu behar direla entzuten ari garen garaiotan, baso-eskolei buruzko klasiko bat: Kanadan 2011n ateak zabaldu zituen natur eskola publikoaren egunerokoa. Bestelako hezkuntza ereduan sinesten dutenenentzat.

Mikel Garcia Idiakez



Rocks in my pockets

LETONIA-AEB, 2014
88 MINUTU.

Bere familiako bost emakumek eta berak depresioa eta suizidioarekin izandako harremana kontatzen du Baumanek. Arteaz, emakumeez, Letoniaz, historiaz eta naturaz betetako animazio-film hau familia-genetikaren eraginaz mintzo da metafora bisual, irudi surrealista eta umorearen bidez.

Maitane Gartziandia

Totoro

JAPONIA, 1988
86 MINUTU.

Totoro auzokidea umeentzako *anime* japoniarrak gizakiaren eta naturaren arteko harremana du ardatz. Mei eta Satsuki neskatoek etxe eta basoetako izaki magikoak ezagutuko dituzte. Euskal-encodings.com webgunean aurki daiteke, doan ikusteko, euskarazko hamaika film gehiagorekin batera.

Jon Torner

The Deuce

AEB, 2017
8-9 ATALEKO 3 DENBORALDI

70eko hamarkadaren alderik ilunenak AEBetako Times Squaren. Pornoaren industria nola legeztatu zen kontatzen du garaiko errealitatea gordin erakutsiz: HIESa, drogak eta etxebizitzaren merkatuaren gorakada. David Simonen lan guztietan bezala, apaingarri gutxi eta errealitatea sobera hemen ere.

Eneritz Arzallus Alustiza

When They See Us

AEB, 2019
4 ATALEKO DENBORALDI BAT

1989an abiatzen da historia, New Yorkeko Central Parken. Bost gaztetxo afroamerikarri emakume zuri bat bortxatu eta hiltzen saiatu izana leporatu diete, muntaia baten bidez. AEBetako arrazakeria instituzionalizatuaren aurrean jarriko gaitu, auzia berriro mahaigaineratu den egunotan.

Mikel Eizagirre

Wasteland

TXEKIAR ERREPUBLIKA, 2016
8 ATALEKO DENBORALDI BAT

Txekiako Pustina herri txikia erosten eta suntsitzen ari da ikatz-meatzaritzako enpresa bat. Horrek talka sortzen du herritarren artean. Batetik, dirua egin eta beste leku batean bizitza hobea eraiki nahi dutenak daude; eta bestetik, herriko ohiko bizimoduari eutsi nahi diotenak.

Axier Lopez

Eden

ALEMANIA, 2019
6 ATALEKO DENBORALDI BAT

Gurutzatutako bost istorioren bitartez, errefuxiatuen krisi globalari ertz ugaritatik eusten dion telesaila. Fokua migratzaileengan bezalaxe harrera egitea dagokienengan ere jartzen da, bistaratuz, besteren artean, nola ari den Europa pertsona hauen kudeaketaz negozioa egiten.

Amaia Lekunberri

Birus berri bat agertu da Txinan eta zientzialariek gomendatu dute beste gauza batzuetaz hitz egiteko

Txerri-gripe berri bat aurkitu dute Txinan eta momentuz birusari buruzko datu asko falta diren arren, Londresko zientzialari talde batek *Nature* aldizkarian publikatu duenez, "ez dugu horretaz gehiago hitz egingo, zeren joder, aurrekoarekin ere nahikoa bagenuen. Kaka zaharra, ez genuen honen batere beharrik, zertarako zatozte galdezka? Jendeak uda ahalik eta lasaien pasa nahi du eta zuek aurrekoa baino are hilgarriagoa den birus berriaz jakin nahian". EHUko Biologia fakultateko ikerlari talde batek, bestalde, birus berriari buruzko artikulua publikatu du *The International Journal of Developmental Biology* aldizkarian. Honako ondoriora iritsi dira: "Benga, tira, segi zuen gauzetan, hemen ez da ezer gertatzen-eta". ●

SAREAN ARRANTZATUA

Toz, toz!



Jaurlaritza zure zerbitzura

Youtubeko tutorialekin lehen akordea jotzen ikasi duen gazte batek Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin grabatuko du

Laudioko Ainara Garciak (15 urte) ezin zuen espero gitarra jotzen ikasteko Youtubeko tutorial hura ikusten hasi zenean gertatuko zena: "Do akordea jotzeko hatzak nola jarri ikusi, pixka bat probatu eta Instagramera igo nuen, *en plan risas*. 20 minutura-edo Whatsapp mezua iritsi zitzaidan". Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendaria zen, beraiekin disko bat grabatzeko proposatuz. "Putoflipatu nuen", azaldu du Garciak. "Baina si nik ez dakit jotzen!". Hori ez zela arazoa erantzun zioten Euskadiko Orkestra Sinfonikotik eta analfabeto musikalekin egin dituzten azken urteetako grabazio guztiak zerrendatu zizkioten. Argudio horiek konbentzituta, Garciak baiezkoa eman eta aurtengo Durangoko Azokarako diskoa prest egotea espero du. ●

Bilbon euskaraz bizi nahi dugunontzat
webgune berritua

bilbaoeuskaraz.bilbao.eus

Bilbao

Euskara Zuzendariordetza
- Euskara Zuzendariordetzaren zerbitzuak
- Zerbitzuen Agiria
- Hizkuntza-eskubideak
- Araudia

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea

Agenda

Albisteak

Egitasmoak

Euskararen inguruan hainbat egitasmo daude.
Ezagutzen dituzu?

Sentiberatze eta matrikulazio kanpainak



Euskararen erabilera bultzatu





Merkataritza

Zer behar?

Atal honetan euskara erabiltzeko baliabideak aurkituko dituzu.

Dirulaguntzak

- Elkarteentzat
- Euskara ikasteko





...eta gehiago!

ZURE BETIKO GESTOREA, URRUTITIK ERE GERTU.

Batzuetan, lagunduko dizun norbait ondoan behar izaten duzunez, LABORAL Kutxako zure gestorea urrutitik ere gertu duzu.

Egin zure gestioak Online Bankaren bidez ere: online bilerak, finantzetako kontsultak, dokumentuak trukatu eta sinatzea...

Berritzea gauzak erraztea da.

Online Banka

LABORAL kutxa

Bada beste modu bat